

Zu hemen zaude. goiena

2019-10-11
EGUBAKOITZA
832. ZENBAKIA
19. URTEA
DEBAGO IENeko
DOAKO ALDIZKARIA
GOIENA.EUS TOKIKOM



Berrikuntzaz eta kolorez beteta dator Goiena telebista denboraldi berrian..



VANESA GIMBERT, LIGAKO JOKALARI BETERANOENA, EUSKAL DERBIAREN ATARIAN

"Anoetako estadio berrian giro polita izango da domekan" / 38



Vanesa Gimbert, Athleticen jokalaria, Bergarako San Martin plaza zeharkatzen.

XABIER URZELAI

XI. edo XII. mendeko gaztelu bat izan zitekeenaren aztarnak aurkitu dituzte Udalatzen / 5

SINADURAK

 JOSEBA GABILONDO MARKES / 8	 ANDERE ARRIOLABENGOA / 22
 ANE ZUAZUBISKAR / 10	 XABI GESALAGA / 34
 AINHIZE BARRAINKUA / 16	 IDOIA ETXEBERRIA / 48

Gatzaren Eguna domekan Leintz Gatzagan, aurten sanmilixanetako artisau azokarekin / 21

puntuak + Bioteknologia, gizartearen zerbitzura

Azu Muguruza entrenatzaileari elkarrizketa

Hemen GARBIKETAK

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

ESKORIATZA • T. 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com



Debagoieneko mintzalagun taldeko kideak, martitzeneko aurkezpenean, Kulturaten. IMANOL BELOKI

Euskararen mundura hurbiltzeko gonbidapena

Debagoieneko 2019-2020 ikasturteko mintzapraktika kanpaina aurkeztu berri dute Kulturaten: 'TU-tik GU-ra ongi etorri mintzalagunen mundura'. Denon artean hizkuntza komunitatea indartu eta egonkortzea posible dela aldarrikatu dute

Arantazu Ezkibel Galdos ARRASATE *TU-tik GU-ra ongi etorri mintzalagunen mundura* lelopean aurkeztu dute ikasturte berriko mintzapraktika kanpaina; eta, era berean, gonbidapena egin diete euskaltzale guztiei egitasmoan parte hartzeko. "Euskaraz lagun artean, modu eraginkorrean eta giro ezin hobean aritzeko modua da mintzapraktika",

azaldu zuten antolatzaileek prentsaurrekoan.

Debagoieneko mintzalagun taldea osatzen duten kideak izan ziren aurkezpenean: Euskara zinegotziak, teknikariak, dinamizatzaileak... Nabarmendu zuten euskaraz gehiago egiteko eta euskaraz egiteko gaitasuna lantzeko "aukera aproposa" dela Mintzapraktika egitasmoa.

Bidelagun eta bidelari

Bidelagunek –euskaraz naturaltasunez berba egiten dutenak– eta bidelariak –euskara maila hobetu gura dutenak– osatzen dute egitasmoa. Hiruzpalau laguneko taldeetan elkartzen dira, maiztasun jakin batekin –gehienak, astean ordubete– euskaraz berba egiteko. Tarteka, ekintza osagarriak ere antolatzen dituz-

te; adibidez, mendi irteerak, afariak... "Modu horretan, giro atsegina, hurbila eta parte-hartzailea lortzen da", azaldu zuen Iratxe Arresek, Eskoriatzako mintzalagunen dinamizatzaileak.

"Ez da soilik euskaraz berba egiteko tartea; esperientzia, bizipen eta emozioz osatutako mundu zabal bat da", zioen Arresek. "Horregatik, gure helburua da jendea kontzientziatzea eta mintzapraktika taldeen garrantziaz jabetzea", gaineratu zuen.

Euskaraz komunikatzeko gai

Denon artean hizkuntza komunitatea indartu eta egonkortzea posible dela nabarmenduz, herritar guztiak gonbidatu gura dituzte egitasmoan parte hartzera. Parte hartzeko baldintza bakarra euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila izatea da.

Mintzapraktikan izena emateko aukera eta informazioa herri edo eskualdeko euskara elkarteetan, euskaltegietan, udal-letan eta www.mintzalaguna.eus gunean eskura daiteke.

6.000 laguneko komunitatea

Euskal Herri mailan 6.000 lagunek baino gehiagok parte hartzen dute egitasmoan. Parte hartzeko arrazoi ezberdinak daude: euskaraz bizi nahi dutelako, beldur-erri aurre egin gura dietelako, ahaztutakoak gogorarazteko edo euskaraz gozatzeko... horiek guztiak dira egitasmoan parte hartzeko arrazoietakoz batzuk.

"Mintzalagunek herriz herri egiten duten lanari esker, euskal hiztunak ugaritzen joan dira, harreman sare berriak sortuz eta euskaraz aritzeko gune berriak irabaziz", diote antolatzaileek. Astean "ordubete atsegina" pasatzeko modua aurkeztu dute, eta gonbidapena luzatu.



M.R.

"Lotsa kentzeko balio izan dit"

MAITANE RASO
BIDELARIA

Maitane Raso eskoriatzarrak hasieratik dihardu mintzapraktika taldean.

Zergatik erabaki zenuen egitasmoan parte hartzea?

Eskoriatzarra izan arren, etxean eta kalean gazteleraz berba egiten nuen. Semea jaioa zenean, erabaki nuen berarekin euskaraz egin gura nuela; baina ez nuen solturarik eta gaizki berba egiteko beldurra ere banuen.

Ze taldetan diharduzu?

Guraso taldean hasi nintzen; ondoren, pintxopote taldera pasatu eta orain, kafe taldean nago.

Gomendatuko zenuke?

Bai; izan ere, euskaltegian gramatika ikasi arren, batzuetan kosta egiten da berba egitea. Lotsa kentzeko balio du, eta baita soltura irabazteko ere. Animatu!

Ezker Anitzaren egoitza herritarrendako zabalik dago

Aldai kaleko lokalak urtebete egin duen honetan, Debagoieneko Ezker Kultur Gunea izenaz berri dute

A.E. ARRASATE

Ezker Anitzak orain dela urtebete zabaldu zuen Arrasaten eskualde mailako egoitza. "Urte honen balorazio positiboa egiten dugu. Gure egoitza izateaz gain, bost erakusketa egin ditugu

bertan, eta Kulturaten egin diren bi hitzaldi ere bertatik irten dira", azaldu du Ezker Anitzako kide Juan Luis Merinok.

Ateak ireki eta urtebetetera, herritar guztiei zabaldu gura izan diete, Debagoieneko Ezker

Kultur Gunea izenarekin. "Erakunde politiko soziala gara gu, eta sozialak asko esan gura du guretzat. Horregatik, muga batzuen barruan, edozein ideologiatako herritarrei zabaldu gura diegu lokala", gaineratu du Merinok. Lokala erabiltzeko interesa dutenek debagoiena@ezkeranitz.org helbidera idatzi behar dute.

Fluxu migratzaileak ardatz dituen *Ongi etorri* erakusketa dago ikusgai; astegunetan ikus daiteke, 18:30etik aurrera.



Ezker Anitzako kideak, Aldai kaleko egoitzaren aurrealdean. TXOMIN MADINA

"Egun, indartsu dagoen erakundea da Uema"

IRAITZ LAZKANO UEMAKO PRESIDENTE BERRIA

Kargua "arduraz, ilusioz eta pozik" hartu du, eta azaldu du ohorea dela euskararen normalizazioan "hain inportantea" izan den erakunde baten lehendakaritza hartzea

Eneko Azurmendi ELGETA

Pasa den asteburuan hartu zuen Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko presidente kargua Elgetako alkateak. Onartu du badagoela lana egiteko oraindik. "Arduraz" eta "ilusioz" hartu zenuen kargua. Sorpresaz ere bai?

Sorpresaz, ez. Izan ere, aho batez onartutako zerrenda hori adostuta geneukan aurrez alderdien artean. Beraz, sorpresaz ez, baina bai arduraz, ilusioz eta pozik. Euskararen normalizazioan halako inportantea izan den erakunde baten lehendakaritza hartzea ohorea izan da.

Orain arte ze harreman izan duzu Uemarekin?

Elgetako Udalean oso harreman egonkorra eta naturala eduki dugu Uemarekin. Sarri elkartu izan gara, eurekin landu izan ditugu bai gure euskara planak, hizkuntza irizpideak, merkataritza kanpainak, eta abar.

Nola ikusten duzu erakundea bera indar, eragin, baliabide aldetik?

Indartsu dagoen erakunde bat da, hausnarketarako gaitasun ikaragarria daukana. Bestalde, gaintu dugu Uema alderdiketaz ikusteko garaia, eta, apurka, herri gehiago sartzen joateko ikuspegia daukagu, erakundea handitzen joatekoa.

86 udalerrik osatzen dute. Badago aukera, beraz, zabaltzen joateko?

Euskal Herrian beste 70 herri inguru daude Ueman sartzeko baldintzak betetzen dituztenak, baita Debagoiengan ere. Ildoetako bat hori izango litzateke. Garbi daukaguna da zenbat eta herri gehiago elkartu, orduan eta errazagoa izango dela interes komunak defendatzea.

"UDALERRI TXIKIAK OSO SENTSIBLEAK DIRA, ETA, BERAZ, BEREZIKI ZAINDU BEHARREKO GUNEA"

Adierazi zenuenez, euskararen normalizazioan jauzi kualitatiboa emateko eta urrats sendoak egiteko agintaldia izan behar du honek. Urratsak, zein norabidetan?

Legegintzaldi honetan, EAEn, bereziki, lege aldetik urrats handiak egin dira euskara babesteari begira. Legez babesa bermatzeak bakarrik ez dakar normalizazioa. Gero, lege horiek gauzatu egin behar dira, praktikara eramanez, eta hor edukiko dugu erronka handia lau urte hauetan. Beste erronka handi bat izango da baita euskara defendatetik edo zaintzetik euskara bizirik dagoen eremuak garatzera pasatzea. Hau da, euskaldunak bizi diren eremuak bizigarriak izan daitezela.

Udalerri txikien garrantzia ere azpimarratu duzu.

Bai. Udalerri txikiak oso sentsibleak dira, eta biztanlerian ehuneko txiki bat aldatzeak edo familia bat herritik joateak gorabehera handia eragin dezake. Hori dela eta, bereziki zaindu beharreko gunea da.

Udalerriek zein botere, zein ahalmen, zein tresna dute euskararen aldeko lanean?

Udalek asko egin dezakete euskararen normalizazioaren alde. 30 urtean pasatu gara ia erdara hutsean funtzionatzera, eta euskara hutsean funtzionatzera, eta hori alde nabarmena da. Eguneroko jardunean erreferentzia izatea inportantea da.

Zu lehendakari aukeratu baino egun gutxi lehenago, Arnasa Gara izeneko kanpaina aurkeztu zuen Uemak. Zein da honen helburua?

Euskararen arnaguneak zaintzea ezinbestekoa da eta helburuak bi dira: arnagune diren herrietako biztanleak ahalduntzea eta kontzientziatzea eurek duten garrantziaz euskara zaintzeko rol horretan. Eta, beste inguruetako herritarrak ere sensibilizatzea arnagune horiek daukaten inportantiaz.



Iraitz Lazkano, Goiena telebistako platoon. E.A.

Urriak 17

Osteguna

KAIXO, BIZILAGUN!

Zure EROSKI center Aretxabaleta berria irekitzen dugu

Basabe poligonoa 3-5

ESKAINZA ESCLUSIBOA
EROSKI Center Aretxabaleta supermerkatu berria

2x1*

Urriaren 17tik azaroaren 5era arte

3.99 €/u 5.32€/L

LA ESPAÑOLA
Olibo-olio birjina
estra 75 cl

2 erosten

2 €/u

3.99€ itzuliko dizugu erosketa kupoiaren

50 zurekin

*Zure hurrengo erosketan erabili behar duzun kupoiaren itzuliko dizugu. Eskaintza balagarria da soilik EROSKI Center Aretxabaleta supermerkatuan (Basabe Poligonoa 3-5, 20650 Aretxabaleta, Gipuzkoa) urriaren 17tik azaroaren 5era arte. 2x1 eskaintza nabarmendutako produktuetan bakarrik. Kutsatutako produktuak, zure erosketaren %50 itzuliko dizugu eskaintza nabarmendutako produktuetan, gehienez 10 euroko balioa izango duten erosketa kupoi bileraz. Kupoiak alpatutako supermerkatuan erabili daitezke soilik, kupoi edota kupoi bileraren gaineko erosketetan, banatzen diren ondorengo 30 egunetan zehar. Kontsultatu lekuaren itzulitako kupoiaren, kupoiak erabiltzeko moduak.



Ni Singular Naiz kanpainaren aurkezpena. GOIENA

'Ni Singular Naiz' kanpaina abiarazi dute

Singular Denda izendapena duten Gipuzkoako 100 establezimenduk baino gehiagok hartuko dute parte kanpainan; Debagoiengan, Arrasateko bederatzi komertzio eta Oñatiko hiruk, zehazki. Tokian tokiko merkataritza sustatzea da helburu nagusia

Maialen Santos ARRASATE

Singular Dendak marka arlo sozialetan oinarritzat dituen balioetan posizionatzea eta herriko komertzioari balio erantsi berezia eskaintzen diolako baloratzen duen bezeroarekiko konplizitatea sortzea dira kanpainaren bi helburu nagusiak. Gaur hasi eta datorren astera arte iraungo du kanpainak, Arrasate eta Oñatiko Singular Dendetan. Hain zuzen, Belun, Resusta-Karrikiri, Sikol lantzeria, Olgeta, Lasagabaster, Oskar Vitoria bitxitegia, Boutique Elena, Tipi-Tapa eta Josle dira ekimenean parte hartuko duten establezimendu arrasatearrak. Oñatin, aldiz, Maibi dekorazioa, Arkauz Optika eta Amalur izango dira kanpaina aurrera eramango dutenak.

Bezeroak "sartu" nahia

Gipuzkoako Merkatarien Federazioko zuzendari Maite Valmasadak adierazi duenez, establezimendu bakoitzak identifikatzen

duen produktu edo zerbitzu bat jarriko du dendan ikusgai, kanpainako beste elementu batzuekin batera –argi-kutxa bat, *Ni Singular Naiz* poltsa bat Singular Denden gida-liburu bat...-. Hala, aukeratutako produktuen bidez bezeroen leialtasuna saritu gura dute saltzaileek.

Are gehiago, bezeroekin harremanak gauzatu ahal izateko, Onda Vasca irratiarekin elkarlanean sariak banatuko dituzte: "Gipuzkoako Kale Nagusia programak egunero helaraziko dizkie entzuleei ekimenean parte hartuko duten komertzioekin lotutako galderak", eta, gaineratu duenez, erantzun zuzena ematen duten entzuleen artean zozketa egingo dute. Horretaz

**AUKERATUTAKO
PRODUKTUEN BIDEZ
BEZEROEN
LEIALTASUNA SARITU
GURA DUTE**

gain, Ni Singular naiz eslogana daramaten poltsak ere eskuratu ahal izango dira sare sozialetan.

Merkataritzari keinua

Singular Dendak programaren barruan garatuko da kanpaina; horren xedea da Gipuzkoako merkataritza bereiztea, profesionalizatzea eta modernizatzea. Horren harira, Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak nabarmendu du ekonomia "bultzatzea" eta "sustatzea" dela euren jardunaren ardatz nagusietako bat. "Jarduera guztiak dira garrantzitsuak, baina merkataritza bereziki garrantzitsua dela esan dezakegu", azpimarratu du.

Xabier Igartua Oñatiko Udaleko Sozioekonomia alorreko zinegotzia ere tokiko merkataritzarekiko "apustua" egitearen alde azaldu da, eta Singular Dendak markaren enbaxadore Markel Irizar txirrindulari ohiak ere jendea animatu gura izan du merkatariekin bat egin eta tokian bertan erosketak egitera.



Garaia-*lan* egitasmoaren aurkezpena. GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOA

'Garaia-*lan*', barne lankidetzaz eta berrikuntzaz bultzatzeko

Hezkuntzak, ekintzailtzak eta enpresak bat egiteko gunea jarri du martxan Garaia parke teknologikoak

Maialen Santos ARRASATE

Enpresen lehiakortasuna handitzea, inguruneke jarduera ekonomiko dibertsifikatzen lagunduko duten sektoreen enpresa berriak sortzea eta kalitatezko enplegu iraunkorra sortzea du helburu guneak.

Lankidetzaz eta *coworking*-a oinarri izango dituen topagunea da. Mondragon Unibertsitateko (Goi Eskola Politeknikoa) ikasleekin batera, Garaian dauden enpresak eta kanpotik etorritakoak arituko dira elkarlanean. Gainera, Gradu Amaierako Lana beren negozio propioa sortzera bideratzen duten unibertsitateko ikasleek ere bertan lan egiteko aukera izango dute, Garaia Parkeko Negozioaren Garapenerako arduradun Idurre Albizuk adierazi duenez: "Laguntza eta aholkularitza eskaintzen diegu beren ekintzailtzaz proiektua aurrera eramanez nahi dute-

nei". Gaineratu duenez, bertan lan egiteak beste enpresa batzuekin harremana izatea ahalbidetzen du, eta, beraz, ikasle eta enpresen arteko "sinergiak" sortzen dira. Albizuren aburuz, asko dira egitasmo berriak eragingo dituen hobekuntzak: "Ekintzailtzaz jasagarria bultzatzen ari gara. Horretaz gain, ingurunerako hobekuntzak eta onura ekonomiko eta sozialak ekarriko ditu gure lan egiteko moduak.

Gutxinaka, hazten

*Garaia-*lan** topagunea sortu ahal izateko, 400 metro karratuko espazioa gaitu behar izan dute. 38 postu sortu dituzte, guztira; horien artean, hamasei enpresa orokor eta hamar aldi baterako enpresa daude. Gainontzeko hamabi postuak unibertsitatekoentzat zuzenduta daude.

Dagoeneko zazpi postu daude beteta: sei enpresak dira.

Hauteskundeei begira, berritasun gutxi zerrendetan

Azaroaren 10ean egingo diren Espainiako Gorteetarako hauteskundeetarako zerrendak argitaratu dituzte alderdiek, Buletin Ofizialean. Diputatuen Kongresurako sei ordezkari aukeratuko dituzte gipuzkoarrek.

EH Bildu alderdiak orduko zerrenda berberak aurkeztuko ditu. Mertxe Aizpurua izango da Kongresurako zerrendaburua

eta Jon Iñarritu, bigarrena. Esther Larrañaga, Nerea Zubia eta Juan Ramon Garai debagoiendarrak ere izango dira zerrendan.

EAJ nagusitu zen EAEko hiru lurraldeetan apirilean, eta, emaitza berak lortzeko asmoz, zerrendak errepikatzea erabaki dute. Hala, Gipuzkoan Diputatuen Kongresurako Joseba Agirre txea izango da zerrendaburua eta Iñigo Barandiaran, bigarrena. Miren Elgarresta oñatiarra izango da lehen ordezkaria.

Gaztelu baten aztarnak topatu dituzte Udalatxan

'Euskal Herriko gazteluak-Bizkaia' libururako ikerketa lanetan zebiltzala, beste gaztelu baten aztarnak topatu dituzte Arrasate eta Elorrio artean, Udalatx mendia gailurrean. Ikertzaileen esanetan, XI. edo XII. mendeko gaztelua izan daiteke

Amaia Zabala Tolosa ARRASATE

"Aztarnak oso apalak badira ere, gailurrean ikusitakoa nahikoa iruditu zitzaigun harkaitzeko gaztelu baten kokalekua izan zela ziurtatzeko", dio Antton Arrietak. Enpresaritzan lizentziatua bada ere, urteak dira historiarekiko zaletasuna gartu zuela, eta, duela 20 urte, gazteluak zerrendatzeari ekin zion. Geroztik, hainbat lan kaleratu ditu; adibidez, hil honetan kaleratu berri den *Euskal Herriko gazteluak-Bizkaia* liburua.

"Gaztelua izan zenaren aipamen bat ere topatu dugu dokumentu zaharretan. 1217ko irailean, Barriako Toda Ibañez abadesaren erosketan baten dokumentuan honako hau baitio: *Henrike izanik Gaztelako errege, Lope Díaz Arabako dominatzaile eta Aitzorrozko eta Udalako edukitzai*. Aipamen argia eta zehatza da, eta oso ondo txertatzen da historia ezagunean. Gure ustez, Udalako gotorlekua Gaztelako Alfontso VIII.a (1158-1214) erregeak beretu zuen 1199-1200. urte bitarteko erasoetan, eta, beste batzuk bezala, ez da agertzen orduko kroniketan eta dokumentuetan. Goian aipatutako esaldi hori lekuko, Diego Lopez II.a erregeak (1170-1214) Bizkaiko Jaunari emandako tituluen



Udalatxeko gailurra, gazteluaren aztarnak topatu zituzten lekua. ARGAZKIJABEAXXX

artean ageri da Udalako edukitzailearena. Beraz, gaztelu bat egotekotan, Udalatx mendiaren goialdean egongo zela pentsatu genuen, Atxorrotx bezala".

Haitzaren mozketa

Abuztuaren 3an hurbildu ziren Udalatxera, eta topatu zituzten aztarnen artean nabariak haitzaren mozketa izan zirela dio Arrietak: "Argi dago gizakiak eginiko ebaketak direla, eta hau oso ohikoa da garaiko harkaitzetako gazteluetan. Haitza mozteko helburuak defendagarriago,

babestuago eta ikaragarriago egitea ziren, besteak beste. Bestalde, moztutako haitz horretatik harria ere eskuratu ohi zuten. Udalatx kasuan, gainera, harresia egon izanaren aztarnak ere badaude eta gailurra lautua dagoela ikusten da".

Arrietak gaineratu du harriak baseliza eraikitze erabiliko zirela susmoa duela eta gaztelua urez hornitzeko, berriz, Uren Koba erabiliko zuten itxura duela. Aranzadirekin elkarlanean "ikerketa sakona" egin nahi dute aurrerago.



Goienagusiren ikasturte berriko aurkezpen ekitaldia. AMAIA ZABALA

Goienagusik 189 bazkiderekin eman dio hasiera ikasturteari

Hitzaldiak urritik maiatzera izango dira, astelehenetan eta eguaztenetan, 10:00etatik 12:00etara

Amaia Zabala Tolosa ARRASATE

Goienagusi Elkarteak ikasturte berrirako dituen helburu, erronka eta asmoak aurkeztu ditu Kulturaten. Aurkezpen ekitaldia astelehenean, urriak 7, izan zen eta 131 bazkide eta beste hainbat gonbidatu batu ziren bertan.

Goienagusi Elkarteak bailarako herri ezberdinetako 189 bazkide ditu egun, horietatik %82 emakumezkoak; eta %58, berriz, Arrasatekoak. Bazkide kopuruak "goranzko joera" du, gainera.

Aurkezpen lanak Goienagusiko lehendakari Matilde Sainz Osinagak egin zituen eta alboan izan zituen Lydia Fernandez de Luco lehendakariordea eta Arantza Gabiria idazkaria. Erakunde ordezkaritza ere zabala izan zen, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen zuzendari Marian Olabarrieta, Arrasateko alkate Maria Ubarretxena eta

Bergarako Udaleko Kultura zinegotzi Kristina Markina bertan izan baitziren. Antzuolako eta Aretxabaletako alkateak, aldiz, publikoaren artean izan ziren.

Ikasturte berrirako helburu eta erronkei dagokienez, euskarazko hitzaldi gehiago ematea eta hitzaldiak bailarako herri gehiagotara zabaltzea azpimarratu zituzten, besteak beste.


Erakundeen babesa

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen zuzendari Marian Olabarrietak azpimarratu zuen Goienagusi Elkarte Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen "zahartzaro aktiboarekin" bat datorrela. Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak eta Kristina Markina Bergarako Udaleko Kultura zinegotziak, berriz, zorion eta esker on hitzak izan zituzten elkarteak juntakide eta bazki-dezentzat.

Odontologia estetikoa	Ortodontzia
Endodontzia	PADI zerbitzua
Inplantologia	Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 08:30-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55
www.duranahortzklinika.eus



15. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA egin klik!

Banatu ditugu **Udako Argazkien XV. Goiena Lehiaketako** sariak. Lau saridun izan ditugu. **Eneritz Larreak**, *Acatenango sumendia* argazkiarekin, **Protagonistak kategoriako saria** irabazi du –mugikorra Eroski Arrasateren eskutik–. **Agustin Zugastik**, Anboton ateratako *Txoko ezkutuetan* argazkiarekin, **Euskal Herrian saileko saria** irabazi du –Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean bi pertsonarendako otordua–. **Egoitz Erasok**, *Frantziako Saint Lary* argazkiarekin, **Nazioartean kategoriako saria** irabazi du –Arrasate Bidaiak-i esker, Zumaiako Zelai talasoterapian bi pertsonarendako spa zirkuitua eta asteburuko menua–. Azkenik, **Ana Bodesek** eskuratu du **Publikoaren saria**, *Tolosa* argazkiarekin –Bergarako Ereindajan-en saski ederra–. Zorionak guztioi eta hurrengo urtera arte!

NAZIOARTEAN SARIA



Egoitz Eraso, Arrasate Bidaiak-eko ordezkariakin.

PROTAGONISTAK SARIA



Uxue Larreak jaso du atzerrian dagoen ahizpa Eneritzten ordezkariaren eskutik Eroski Arrasateko mugikorra.

PUBLIKOAREN SARIA



Finlandian dagoen Ana Bodes arreba izenean jaso du Andonik Bergarako Ereindajan-eko saskia.

EUSKAL HERRIAN SARIA



Agustin Zugasti, Gure Ametsa jatetxean.

Eskerrik asko!**JASONE GIRALDO**

ARRASATE

Uztailean, Arrasaten, Munduko Arrozak ekimena ospatu genuen, eta, horren bitartez, arrasatearrok geure herrian dugun kultura aberastasuna bide, modu anitz eta ezberdinetan sukaldatutako arrozaz gozatzeko aukera izan genuen. Hau honela, eta pausotxo bat gehiago eman nahian, arroz plater horiek guztiak euro baten truke banatu genituen.

Aldez aurretik, ekimena antolatzeke elkarlanean aritu ginen elkarte eta erakundeek gobernu kanpoko hainbat erakunderen zerrenda osatu genuen: Proactiva Open Arms, Salvamento Maritimo Humanitario, Sea Watch, Zaporeak eta Mundukide Fundazioa.

Ekimenean parte hartu genuen arrasatearrok euro hori zein erakunderi bideratuko geniokeen erabakitzeke aukera izan genuen. Guztira, 95 euro batu genituen, eta, hala, Salvamento Maritimo Humanitario izan zen bozkatuena, eta jada bideratu dugu ekarpena.

Ekarpentxo honen onura izan duen erakundearen eta, nola ez, Munduko Arrozak ekimenaren antolatzaileen partetik, mila-mila esker, Arrasate!

Mundua, arroz-ale batean!

Oharra: hauek izan ziren ekimenaren antolatzaileak:

Arrasateko Udalaren Aniztasun Saila, SOS

Arrazakeria, Gurutze Gorria, Manos Activas Por Un Mundo Solidario elkarte, IMME elkarte eta Ekin Emakumeak Elkarte.

Parte hartu zuten guztiei: mila esker!**NEREA VILLA**

INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA ELGETA

1936an gertatutakoak ahaztu ez daitezen, *Elgeta erresistentziaren memoria* bisita antzetzua egin genuen domekan Elgetan.

Lerro hauen bitartez, ekitaldia burutzea posible egin zenuten boluntario guztiei eskerrak eman nahi dizkizuegu, bai Intxorta 1937 kultur elkartetik, bai Elgetako Udaletik. Aipatu nahi ditugu, bereziki: Frentes de Euskadi, Bergarako boluntarioak, Arrasateko boluntarioak, Elgetako emakume boluntarioak, Elgetako neska-mutikoak eta beraien gurasoak parte hartzen uzteagatik, Ozkarbi elkarte, Sopusertako errekreazioak, Forua inguruko taldetxo, Donostiako taldetxo, historialarien taldea, Valen Moñux eta bere dekorazio taldea, Arantxaren dekoraziorako gauzak eta Maricarmen jantziak. Diego Valor eta Ander Gillegi bizarginak, erizain eta mediku taldea, Bilboko Aitor, muntaketa lanetan parte hartu zenuten Beñat eta Benito, Iker eta Gaizka kamionetarengatik, Iratxe, Bea, Ana eta Asun, EPK-PCE eta Zumaiako institutuko ikasle taldea.

Joan zen astean hil zen Andres Egaña Muruamendiaraz, 100 urte zituela: Bergaran bizi zen azken gudaria**ELENA LETE**

EAJ-PNV BERGARAKO UDALEKO BOZERAMAILEA BERGARA

Omenaldi hunkigarria egin zion Bergarako Udalak 2017an. Bertan, gogora ekarri zen orain dela 83 urte, ezustean gerra piztean, 200 gazte bergararrek, gudari zein miliziano, pauso bat aurrera eman eta askatasunaren eta demokraziaren alde borrokatu behar izan zutela. Andres Egaña gazte haietako bat zen, Loyola batailoian.

Urte latzak izan ziren haiek. Gogorak. Beraien gogoan gelditu zen orduan bizi izan zutena. Baita liburuetan jaso ere bizipen eta gertaera haien arrastoak, baina hotzak dira hitzak guztia azaltzerakoan: Andres Egaña kide zen Loyola batailoiko 63 bergararretatik, lautik bat frontean hil zuten, eta besteek denetik ezagutu zuten: hala-nolako epaiketak, heriotza zigorrak, urteetako kartzela-zigorrak, Frantziako Gurs kontzentrazio eremuan kartzelaratzak, langile batailoietako urteak, ondasunen bahiketak eta hainbat eta hainbat gerra osteko bizipen.

Guztia, askatasunaren eta demokraziaren defentsagatik. Orduan esan zitzaion eta gaur ere diogu: egin zuten guztia ez zela ahaztu, ez genuela

ahaztu eta ez dugula ahaztuko.

Horregatik, omenaldi egunean, pleno aretoa herritarrez gainezka zegoela esan genuen bezala, diogu gaur ere:

Agur eta ohore, Andres!

Arrasateko Udala eta ondare historiko-artistikoa**RAMON UGALDE**

ARRASATE

Harriduraz irakurri ditut gure herriko Udal horrek Maritxu Kajoi aurreko egunean egindako pintaketak gaitzesteko egin dituen adierazpenak. Argudioetako bat da ondare historiko-artistikoa pintaketa horiek egindako kalteak. Beste argudio batzuk ere aipatzen dituzte –pintaketaren ezabaketaren kostua eta zerbait adierazteko beste modu batzuk daudela–, baina horretan ez naiz sartuko.

Hasteko, esan behar dut ondare historiko-artistikoa ez esateko zilegitasun minimoa ere ez daukala Udal horrek. Hasteko, ez da egia "raseatu" batean egindako pintaketa batek ondare historiko-artistikoa kaltetzen duenik. Larriagoak iruditzen zaizkit Arrasateko udaletxeko balkoietan, forja barroko elegante horretan, azkeneko urteetan zintzilik dauden plastikozko loreontzi horiek, edo Herriko Plazan parrokiako beirate edo bidriera ederrak ikustea galarazten digun plastikoz

estalitako *kiosko* barregarri hori. Edo Portalioan bertan horman itsatsita dauden burdinazko plaka horiek, Alde Zaharraren PER negargarriarekin hain ondo uztartzen direnak.

Gainera, inolako lotsa barik ondare historiko-artistikoa aipatzen dute Etxezarretako harrizko zubiaren desagerpenaren erantzule zutenek, Adan de Yarza jauregiaren aurrean zegoen burdinazko hesia desagerrarazi dutenek, Ricardo Olan arkitektoak Garibairi eraikitako monumentu liraina eraitsi zutenek eta Elmako bulegoen eraikina etxean itotzea onartu dutenek.

Arbolapetako arkuaren berriztatzea aipatzen dute, hain gustu txarrarekin egindako lan horrek sekulako meritua balu moduan...

Kulturate ere sartzen dute pintaketak jasan dituen monumentuen artean; ba, niri, grabeagoa iruditzen zait eraikin horretako obraren aurrekontuan egondako desbideratzea edo fatxadaren bertan apurtuta dauden harlauzak ikustea, edo Kulturateko hormak nola kentzen dion bolumena eta edertasuna San Frantziskoko fatxadari.

A! Eta Arrasateko Udalak PER-en bidez eta beste arbitraritateekin Alde Zaharrari egindako kaltea beste baterako utziko dugu.

Baina, mesedez, artea eta ondarea ez aipatu inor kritikatzeko.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!**GARBINE UBEDA**



ZABALIK

JOSEBA GABILONDO MARKES

LGBT+ (neo)liberalak?

Azkenaldian, eskuineko posizio politikotik LGBT+ kolektiboak erabiltzen ari dira. Eskuineko ideologia politikokoa izanda, LGBT+ mugimendukoa izatea posible ote den auzia mahai-gaineratuz.

Ez da afera berria, gure aurreko ahizpek izan baitzuten debate honetan zeresana.

Oraingoan, esan daiteke berriz ere debate hau lekua hartzen ari dela LGBT+ agenda politikoan. Orduan, izan da daiteke, esaterako, gay eta eskuinekoa? Ez. Ez, behintzat, LGBT+ mugimenduaren parte autodefinitzen bazara.

LGBT+ mugimenduaren borroka ez da norekin oheratzen garen, baizik eta gaur egungo jendarte eredu honek LGBT+ pertsonak jendartean non kokatzen gaituen. Are gehiago, gaur egungo jendarte eredu oinarritzen den bazterte eta zapalkuntza sistemek bazterrean uzten dituen pertsona

ororen aldeko borroka da LGBT+ mugimendua.

Memoria daukagulako eta transfeminismotik ikasi dugulako, zapalkuntzak ezin direla bananduta ulertu.

LGBT+ mugimendua metaleko langileen

borroka da, pentsionisten borroka da, emakumeen* borroka da, ikasle eta gazteen borroka da edota errefuxiatuen borroka da.


Laburbilduz, LGBT+ mugimendua antikapitalista da. Izan ere, kapitalismoak sortzen ditu bazterreko identitate horien zapalkuntzak.

Baina badirudi LGBT+ kolektibo batzuek –instituzio eta enpresa pribatu jakin batzuen laguntzaz– ahaztua dutela nondik gatozen, eta aldarri eta eskubideak euro bihurtu nahi dituzte. Beste behin, bazterreko hainbat identitate ahanzturara eta prekarrietara bultzatuz.

LGBT+ mugimendua basakeria polizial jarraitu batetik jaio zen eta orain, LGBT+ kolektibo polizialak daukagu. Iritsi da momentua argi ezberdintzeko, zuek izan lesbianak eta gayak, guk nahiago dugu bazterrean uzten dituzuen bollera, trans eta marikak izan. Gu transmaribolloak gara, erradikalak, antifaxistak eta antikapitalistak.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Elcano

JUNE FERNANDEZ

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Ez dut Fisika eta Kimika klasean ikasitako ezer ere gogoratzen. Integralak eta erro karratuak zer diren ahaztu dut. Baita Wittgenstein-en ekarpenak eta Karlismen jatorria. Eta kostata egingo nuke esaldi baten analisi sintaktikoa. Nor izan zen munduari lehendabizi buelta eman zion gizona, ordea, hori bai Lehen Hezkuntzako ikasgai ahaztezina. Euskalduna zen, azpimarratu zuten irakasleek, eta harro barneratu genuen ikasleek.

Euskal instituzioek sustatutako Elcano

fundazioaren arabera, Juan Sebastian Elcano "euskaldunak bereizten gaituen indarraren, ausardiaren eta itsas teknologia aurreratuenari buruzko ezagutzaren ikurra da".

Espedizioaren bosgarren mendeurrena ospatzeko programetan, inperialismoa, genozidioa, Inkisizioa edo indarkeria matxista bezalako kontzeptuak ez dira agertzen, soilik laudorioak. Irabazleek idatzitako historia behin eta berriro kontatzen digute, abentura epikoaren xarmarekin odolaren kiratsa lurrinduz.

Egun ez da Getariako konkistatzailearen jatorria

harro sentiarazten nauena. Bai, ordea, Elkanori Bira herri ekimenean parte hartu izana, historiaren pasarte horren hausnarketa kritiko bat –feminista, internazionalista, dekoloniala– egitea xede duena. Kolonialismoaz ari garenean, ardura hartzea bada balentria eta gizatasunaren aldeko konpromisoa. Manifestuak esan bezala, hori da zapaltzailek eta zapalduak gabeko etorkizun bati ateak irekitzeko giltza.

Bitxikeria batekin bukatzearen, Elkano kalean topatuko duzue Bilboko liburu-denda feminista eta internazionalista: Louise Michel Liburuak.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amalia Mundiñano,
Ziortza Martin.
Administrazioa
Ane Bereizbar,
Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldiakari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

BERBAGAI

"Negozio huts bihurtzen ari dira zaharren egoitzak"

BEGO GAINZA ZAHARREN EGOITZETAKO LANGILEA

Eneko Azkarate Laspiur BERGARA Zaharren egoitzetako langileak greban daude azkeneko hilabeteetan, sektorean nagusi den ELA sindikatuak deituta. Gaur, Eskoriatzan eta Arrasaten egin dituzte protestak. "Zerbitzu minimoak %70 eta %80koak dira; hortaz, kalera atera behar dugu protesta, igarri dadin", dio Bego Gainza ELAko ordezkariak. Bergarako Mizpirualde egoitzan egiten du lan. 1991 ezkerer dihardu bertan. **Noiztik daroazue mobilizazioetan** 2018ko irailean hasi genituen mobilizazioak. Ez da greba etengabea izan, egun batzuetan egin dugu. Azkenekoz, irail erdialdean ekin genion eta urriaren 18an amaituko dugu. Donostia Zinemaldian, Keen Loach-ek bat egin zuen gure aldarrikapenekin. Azken egunotan, ibilaldiak egiten ari gara. Gauzak ez badira konpontzen, mugarik bako grebari ekiteko gertu gaude.



Bego Gainza, Bergarako Mizpirualde zaharren egoitzaren aurretan. ENEKO AZKARATE

Lan hitzarmen "duinak" aldarrikatzen dituzue.

Bai. 2012tik 2014ra bitarteko lan hitzarmena sinatu genuen; baita 2015koa eta 2016koa ere, hainbat borrokaren ostean. Orain, 2017, 2018, 2019 eta

2020koa sinatzeko, patronalak eta Gipuzkoako Diputazioak soldatak ez igotzea proposatu digu. Ez gaude onartzeko gertu. Mileuristak gara. Negoziatu egin nahi dugu, lan baldintzak hobetzeko.

Soldata igoera eskatzen duzue?

Ez bakarrik. Lanaldi partzialak ditugu gehienok. Egunero joaten gara bi edo hiru bider lanera. Goizean goiz hasi eta gauera arte. Laneko kalitatea ez da egokiena eta, gainera, langile batzuek %60ko lan-jarduna daukate. Eta bajei dagokienez, lehen, arazo fisikoek eragindakoak ziren gehienak, ziatikak eta halakoek eragindakoak; gaur egun, laneko estresak eragindakoak dira.

Eskaintzen duzuen lanaren kalitateagatik kexu zarete?

Lan baldintza kaskarrekin ez dute ahalbidetzen lana modu duinean egitea eta, ondorioz, zerbitzu egokia eskaintzea. Ez dugu astirik zaharrak dagokien moduan zaindu ahal izateko haiekin egoteko, gosari, bazkari edo afariak lasaitasunez emateko... Gure lan baldintzak hobetu eta lana kalitatez egin nahi dugu. Zaharren egoitzak ez dira merkeak eta, bestetik, eskaintzen den zerbitzuaren kalitatea asko hobetu daiteke. **Negozio huts bihurtzen ari dira zaharren egoitzak.** **Zenbat langile egoera honetan?** Mizpirualden, 90 bat. Gipuzkoa osoan, 5.000. **Gehienak, emakumezkoak.** **Zaintza lanak ez dira behar beste baloratzen?**

Zaharren egoitzetako ia langile guztiak gara emakumeak. Hor dago arazoa. Tamalez, egiten dugun lana ez da behar den moduan baloratzen. Borroka feminista da. Lehen, senarra zihoan lanera eta zaintza lanetan ziharduen emakumeak irabazten zuena gehigarria zen; gaur egun, etxe askotan, zaintza lanetan diharduen emakume askorena da soldata bakarra. Kaleko garbitzaileek, esaterako, batez beste, 6.000 euro gehiago jasotzen dute. **Diozue Gipuzkoako Diputazioa dela egoeraren erantzule. Zergatik?** Ez dauka jarrera egokia. Ez dago gertu negoziazio mahaian esertzeko eta adostasunera heltzeko. Zerbitzu publikoa da eta Diputazioa da zerbitzuaren jabea -Kabiaren bidez-, nahiz eta enpresa pribatuek kudeatu. **Ze enpresak kudeatzen dituzte zaharren egoitzak?** Eskoriatza, Soraluze eta Mutrikuko egoitzak patronatu publikoek kudeatzen dituzte. Ostera, Eibar, Elgoibar, Bergara, Oñati eta Bergarakoak azpikontratatu daude. Hauetan, Aita Menni, Eulen, Egogain... ari dira. Patronatu publikoek kudeatzen dituzten egoitzetan ere bertsuak dira lan baldintzak.

ITURRI ONETIK

DKS sariak Bergaran banatuko dira

Debagoieneko Kirol Sariak -DKS- Bergaran banatuko dira oraingoan. Iaz berrabiatu zuten sariketa Debagoieneko udalek eta Goiena Komunikazio Taldeak, urte batzuetako etenaldiraren ostean. 2018ko edizioaren sari banaketa Arrasaten egin zen, urtarrilean. Maialen Axpe atletak, Martin Perez saskibaloijokariak, Ointxe Araski saskibaloitaldeak eta Xabier Infante *Artza* igeriketa entrenatzaileak jaso zituzten sari nagusiak. 2019koak datorren urtarrilean banatuko dituzte, Seminarixoa aretoan.

ALBISTE IZAN ZEN



2008-10-09

Ibarretxe lehendakaria Goiena telebistan

Juan Jose Ibarretxe lehendakaria Goienan izan zen. Jarduneko lehendakari batek Goienan inoiz eman duen elkarrizketa bakarra izan zen. Gaurkotasuneko gaiak jorratu zituen. "Debagoieneko tranbia egingo dugu", esan zuen... Gerora, martxorako deitu zituen hauteskundeak, eta, irabazi arren, sozialistek eta popularrek Patxi Lopez izendatu zuten lehendakari. Handik gutxira, dimisioa eman zuen Ibarretxek.

HAU BE BADOGU!

Altsasu: 'trending topic', beste behin

Eguaztenean jakin zen Altsasuko gazteen gaineko epaia, eta *#AltsasukoakAske* traola *trending topic* izan da: *@Altsasugurasoak*: "Duela minutu gutxi jaso dugu Auzitegi Goreneko epaia. Oihan, 9 urte eta erdi. Jokin eta Adur, 8 urte eta erdi. Jonan eta Julen, 7 urte eta erdi. Aratz, 4 urte eta bi hilabete. Iñaki, 3 urte eta erdi. Ainara, urte eta erdi". *@haritzpg*: "Zigorra gutxitzeak ez du mina arintzen... Kartzelaldia mantentzeak injustizia areagotzen du *#AltsasukoakAske*".



Marga Garmendia Udaleko Enplegu Saileko teknikaria eta Edurne Unamuno Enplegu Batzordeko burua, eguaztenez. X. GOROSTIDI

Herriko 26 langabe kontratatuko ditu Udalak

Aldi baterako lanpostuak dira; gehienak bost hilabeteko iraupenekoak, eta ia guztiak jardun osokoak. Jada hamabi posturen deialdiak eginda daude; gazteei zuzendutako bost astelehenera arte egongo dira zabalik eta beste bederatz, aldiz, eguenera arte

Xabi Gorostidi ARRASATE

Lanbideren hiru deialdi bateratuz lortu du Udalak langabeak kontratatuzko finantziario larroa: enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2019ko dirulaguntzak; enplegua, batez ere, eremu eta udalerrri behartsuetan sustatzeko toki-ekintzetarako 2019ko finantzio laguntzak; eta gazte enplegurako 2014-2020 programa operatiboaren esparruan, toki-erakundeek gazteak kontratatuzko 2019rako dirulaguntzak, hain zuzen ere.

Lanpostu horien kostua 452.677,96 eurokoa izango da: horietatik 327.997,32 Lanbide finantzatzeko ditu eta gainerako 124.680,64 euroak, aldiz, Udalak.

Hamabi deialdi, eginda

Plana komunikabideetara aurkeztu orduko, 26 lanpostuetatik hamabiren deialdiak eginda zeuden. "Hiru finantzaketa-lerroak lotuta eduki bezain pronto eman dugu plana aditzera, eta ordura deialdi batzuk eginda zeuden.

Lanbiden eta Udal webgunean egon dira ikusgai", azaldu du Udaleko Enplegu Saileko teknikari Marga Garmendiak. Hauek dira eginda daudenak: artxiborako administrazio laguntzaile bat, bi delineaizaile, digitalizazioarako administrari bat, turismo teknikari bat, igeltsero bat, pintore bat, peoi elektrikari bat, administrari laguntzaile bat eta web diseinatuzaile bat. Bi izan ezik, guztiak dira bost hilabeteko lanpostuak.

Hamalau deialdi, irekita

Gainontzeko hamalau deialdiak zabalik daude, baina, adi, egun gutxi barru itxiko dira eta: bost irailaren 14an eta bederatz, irailaren 17an.

GAZTEENTZAKO BOST POSTUREN DEIALDIA ASTELEHENEAN ITXIKO DA; BESTE BEDERATZI, ORDEA, EGUENEAN

Astelehenean itxiko diren bost lanpostu horiek 16 eta 30 urte bitarteko arrasatear langabeentzako mugatuta daude. Hauek dira eskaintzen diren postuak: dokumentalista bat, euskaltegi-rako teknikari laguntzaile bat, administrari bat Munigex programarako eta Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Auzoen Sailerako igeltsero bat eta peoi bat. Bostak zortzi hilabeterako dira, euskaltegi laguntzailearena izan ezik -12 hilabete-.

Ostegunean agortuko direnek ez dute adin mugarik, eta hauek dira lanpostuak: hiru baso-erreak langile, hiru laguntzaile garabi zerbitzurako, bi lorezain eta pintore bat. Guztiek dute bost hilabeteko iraupena, garabi zerbitzuko laguntzaileek izan ezik; hauek sei hilabetekoa dute.

Izen emateak, Lanbide bidez

Interesdun langabeek Lanbiden eman behar dute izena. Lanpostu bakoitzak lan eskaintza propioa du.



NIRE USTEZ

ANE ZUAZUBISKAR

Gelditu

Aplikazio bat duzu ligatzeko. Hau bai, hau ez, hau ez, hau bai. Aplikazio bat ez dezazun diskorik ireki, musika aparatua piztu eta lehen abestiaren aurreko zaratatxo entzun. Aplikazio bat ez dezazun inori deitu beharrik izan. Kaixo, gabon, bai, ez, bihar arte, bihotzak dituen aurpegia. Aplikazio bat duzu mugikorrean afaria etxera ekar diezazuten. Denbora aurreztu dezazun. Hamahiru aplikazio dituzu, ahalik eta denbora gehien eman dezazun probetxuzko zerbait egiten. Egiten. Egin dezazun, egon zaitezkeenean.

"Gelditu nahi duzu nirekin?" Eta azkeneko, ez da gonbidapen bat, ez da ez dakit zer neurriko aitortpena. Inork esan diezazukeen hitz txikirik onena da. Gelditu. "Gelditu nahi duzu nirekin? Segi dezala munduak biraka, nik *gel-di-tu* nahi dut zurekin. Geldi". Besteentzat labanaka, baina egoten ezin asmatu. Irla bat jarri hamar eguneko oporrei, eta itsasoari begira partez, mugikorra eskuan neure buruari artikulurako esaldiak bidaltzen. Eta zuk, ez al duzu hau irakurtzea beste egitekorik? Ez al duzu egitekorik?

Hiru ekintza, kanpotik etorritako lagunak euskarara hurbiltzeko

Ekin Emakumeak Elkartek eta Udalak garatu dituzte, elkarlanean, beste herrialde batzuetatik etorritako familiak euskara gerturatzeko. Lehena harrera zerbitzua da. Herriko zerbitzuen berri emateko, beste entitate eta zerbitzuetara bideratzeko eta tramiteekin izan ditzaketen zailtasunak argitzeko balio du. Astean hiru egunez ematen dute zerbi-

tzu hau: astelehenera, 16:00-18:00; astearteetan, 10:30-12:30; eta asteazkenetan, 16:00-18:00.

Bigarrena Auzoko programa da, euskara inklusio tresna moduan lantzen duena; partekatze-ko eta elkar ezagutzeko.

Eta hirugarrena euskarazko irakurketa saioak dira. Ipuinen bitartez haurrak euskarara hurbiltzea du helburu, euskararekin erlazionatzen hasteko modu "polit, erraz eta naturala". Intere- resdunek, deitu 943 79 83 70 edo 651 70 79 telefonoetara.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Udalako jarlekuetan, zaborra batu gabe

Irakurle batek jakinarazi duenez, Udala auzoko harrizko jarlekuetan zaborra batu gabe geratzen da. Irudian ikusten denez, kristalezko edalontziak eta botilak bertan uzten dituzte.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Ttak! taldeko gazteak eta Txatxilipurdiko arduradunak, Monterron parkean egindako prentsa agerraldian. XABI GOROSTIDI

Puntako sortzaileak, gazteen zerbitzura berriz

Ttak! taldeak eta Txatxilipurdik prest dute 'Ausortu' sormen laborategiaren bigarren aldia. Aurten, saio gutxiago prestatu dituzte, partaideen adin tartea 15 urtetik 25 urtera zabaldu dute eta Olatz Salvador eta Paul Beitia izango dira artista gonbidatuak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Iazko lehen edizioako saioak ondo joan zirela ikusirik, bigarren ez antolatu dute *Ausortu* sormen laborategia. Aurten, bi saio lotu dituzte gazteen sormen interesetatik tiraka: "Iaz, bi diziplina artistiko landu genituen: arte plastikoa eta musika. Parte hartze saioak oso ondo baloratu zituzten, eta gazteei egin genizkien galderetatik hautatu ditugu aurtengo diziplinak: musika eta literatura". Horrez gain, parte hartzaileen adin tartea ere zabaldu dute: iaz, 15etik 19 urtera mugatu zuten, eta aurten, 15 eta 25 urte bitartekoek parte har dezakete.

Olatz Salvador eta Paul Beitia

Bi artista horiek izan dira *Ausortu*-ren bigarren edizioarako hautatutako sortzaileak.

Salvador musikari donostiarra da. Ikasketaz psikologoa da, baina txiki-txikitatik izan du musikarekin harremana. Piano eta solfeo klaseekin hasi zen, eta gerora, gitarra, baxu, harmonia eta ahots teknika ikasketak ere egin ditu. Skakeitan taldearen eskutik egin zituen

lehen urratsak, eta orain, bakarlari ere badihardu. "Musika sorkuntza prozesu osoa aztertuko dugu, kantu bat nondik has daitekeen eta zein izan daitekeen amaitutzat eman arte egiten duen bidea".

Paul Beitia getariarra, aldiz, literaturan aditua da. Euskal Ikasketetako irakasle da eta *Lekore* aldizkariaren arduratzen da 2015etik hona. "Idazteaz eta irakurtzeaz jardungo dugu, bi ekintza horiek modu kolektiboan baino ulertu ezin diren ideiatik abiatuta".

Saioak eta izen emateak

Egun osoko bi saio izango dira, beraz: musika tailerra urriaren 26an eta literatura tailerra azaroaren 23an. Goizez eta arratsaldez egingo dituzte, eta, horrez gain, artistekin bazkaltzeko aukera ere izango dute. Hogei laguneko saioak izango dira, gehienez. Izena saioak baino astebete lehenago egin ahalko dira: online labureus/izenematea *Ausortu*-, edo Txatxilipurdira edo AEDra deituz. Saio bakarra 15 euro kostatuko da eta biak, 25.

RPS: 214/15

AMAGARA

Estetika Zentroa

Eman argitasuna azalari, gaztetu eta birsortu

Zure azalarendako tratamendu estetikoak: orbanak kentzeko, indartzeko, gaztetzeko...

Eta terapia mediko estetikoak ere bai: azido hialuronikoarekin, botoxarekin, hariekin...

Kontsulta egiguzu, konpromiso barik.

Erdiko kale 54, beheka 20500 Arrasate • 943 79 09 09 • www.amagaraestetikazentroa.es • facebook.com/amagara

"Horazio maitatua izan dela ikustea polita da"

VIKTORIANO ETXABE ARRASATEKO PARROKOA

"Presiorik gabe" dator Arrasatera, aspaldiko lagun duen Horaziori lekukoa hartzeko. Domekan esan zuen lehen meza San Juan Bataiatzailea parrokan, 56 urte bete berritan

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasate izango da bere etxe berria, eta adaptazio asteak ditu orain aurretik.

Zer moduzkoak izan dira zure lehen hartu-emanak Arrasaten?

Harrera oso ona izan da. Niretzako, oso pozgarria izan da nire aspaldiko lagun Horazio zein maitatua den ikustea. Bere alboan egin ditut lehen urratsak, eta oso pertsona onartua dela ikusi dut. Badakit Arrasateko eliza komunitateak oharra kaleratu zuela, minduta eta haserre, eta normala iruditzen zait.

Horri buruz galdetu nahi nizun. Zer sentitzen du haren ordeztaroren apaizak halako ohar bat ikusita?

Esan dizudan moduan, Horazio zein maitatua izan den ikustea polita da, eta eskertzekoa da halako idatzia atera izana. Norbaitek pentsa dezake niri presioa sartzen didala era horretako idazki batek, baina ez dut hala ikusten. Gotzainak Oñatira joateko esan zion, eta niri, berriz, Arrasatera. Ez zegoen beste aukerarik. Biok baiezkorekin erantzun genion, aurkakoa egitea itsusia izan daiteke eta.

Aspaldiko lagunak zarete Horazio eta zu?

Aspaldi ezagutzen dugu elkar, eta harreman ona daukagu. Orain, gainera, elkarrengandik gertuago gaude, eta hori lagun-garri izango zaigu.

Apaizentzako, lekuz aldatzea eguneroko ogia da, hein handi batean?

Ni Hondarribitik nator, jakingo duzunez. 2014ko martxoan hasi nintzen bertan, eta, hasiera batean, sei urteko egonaldia egitera joan nintzen. Ostean, alardea dela eta ez dela, hautsak harrotu nituen, eta espero baino lehen amaitu zen nire egonaldia. Baina, hasiera batean, aldatzera ohituta egon behar dugu.

Hondarribia eta alardea aipatuta, albiste freskoak egon dira asteen, alarde tradizionalako gazte talde bat emakumeek parte hartzearen



Viktoriano Etxabe, San Juan Bataiatzailea parrokia atzean duela. XABI GOROSTIDI

"HONDARRIBIAN, OSO MINGARRIA ZEN EMAKUMEAK EMAKUMEEN AURKA IKUSTEA"

alde lerratu baita. Albiste pozgarria irudituko zaizulakoan nago...

Bai, bai. Alde egin nuenean, zera izan zen esan nuen gauza bakarra: "Horrela ezin dugu jarraitu; hitz egin behar dugu". Niretzako, jasangaitza zen sufrikario hori ikustea: emakumeak emakumeen aurka. Are gehiago, historikoki emakumeek jasan izan duten zapalketa ikusita. Ni ez naiz ez feminista, ezta matxista, baina emakumeek beren lekua behar dutela defendatzen dut. Hori errespetatu beharra dago. Aurtengo alardea hobeto joa da, eta orain, gazte talde hau azaldu da, besteak beste, "hitz egin behar dugu" esanez.

Fedearen gainbehera agerikoa da: fededun kopurua, bataioak... horren aurrean zer egin behar du Elizak? Fedearen gainbehera ez da hemengo arazo bat soilik. Europa mendebalde osoan gertatzen da,

baita Ameriketako Estatu Batuetan, Kanadan... Baina konponbidea, nire ustez, ez da zabalakundea edo inboluzionismoa. 60ko hamarkadan, Rikardo Arregik esan zuen Elizak karta guztiak jokatuta zituela, eta nik ere antzera ikusten dut. Fedearena sinpleagoa da: sinisten duzu edo ez duzu sinesten. Zure andrea maite duzu edo ez duzu maite dikotomia bezala da. Zure emaztea maite baduzu, aurrera joan zaitezke, baina, ez baduzu maite, hobe duzu lehenbailehen utzi.

Mundu asko ikusitakoa zara. Zenbat tokitan egondakoa zara?

Frantzia, Alemania, Errusia, Ingalaterra, Ukraina, Egipto, Peru... bertan urtebete luzeko egonaldia egin nuen 24 urterekin, eta ostean, hainbat aldiz itzuli naiz; aurtun, azken aldiz. 1991n, adibidez, Hego Amerika osoa egin nuen, goitik behera. Ez nintzen Venezuelan egon, ez baitauka harri potolorik.

Lan berriarekin, bidaiatzeko aukerarik bai?

Konponduko gara Horazio eta biok. Niri on egiten dit urtean behin bidaiak handi bat egiteak, eta, meza kopurua jaisten denean, Horaziorekin negoziatuko dut.

Etxezarretaren xarma herritarrei erakusteko eguna, domekan

Mendi irteera, kalejira, bisita gidatuak, bertsolariak eta ipuin kontaketak izango dira jaiaren osagaietako batzuk

X.G. ARRASATE

Eremu horren potentziala herritarrei erakusteko, ekintzaz jositako goiz-pasa antolatu dute Udalak, Besaide Mendizale Elkarteak eta Naturtzaindiak.

08:00etarako, mendi ibilaldia antolatu du Besaidek, Biteritik tipi-tapa Etxezarretara joateko. "Biteritik Azuelarantz joango gara, eta bertan, Kurtzetxikiko bidea hartu beharrean ezkererantz joango gara, Bakue ingururantz. Handik Etxezarreta eremuan dagoen Kortaburu tontorrera joango gara", azaldu

du Besaide MEko presidente Eñaut Iturbek. Mendiko botak jantzi nahi ez dituztenek kalejiran joateko aukera izango dute. Gaiteroek alaituta 10:30ean abiatuko da kalejira, Biteritik. Behin bertan, 11:30ean, bertsolariak, haurrentzako jolasak eta ipuin kontaketak egingo dituzte. 12:00etan, hiru ataleko bisita gidatua, Jose Mari Velez de Mendizabalekin, Naiara Corcuerearekin eta Antxon Zabaletarekin, eta, ekitaldia amaitzeko, Arrasate Musikaleko ikasleek zuzeneko egingo dute, 13:00etan.

Pintaketak kentzeko 2.666 metro koadro pareta garbitu dituzte

Udal Gobernuak jakinarazi duenez, aurtun 25.492,73 euro bideratu dituzte lan horietara, "jolas parke baten konponketaren gastuen pare". Maritxu Kajoi bezperan egindako azken pintaketan harira eman dute datua, eta hauek "herriko ondare historikoa kaltetzen dutela azpimarratu dute: "Aski da, ez ezazue behin eta berriz kaltetu".



Pintaketa bat Seber Altube plazan. UDALA

OHARRAK

Pentsiodunak

Astlehenean elkartuko dira, Herriko Plazan, 12:00etan.

Irteera Bedoñara

Auzo horretako Santa Eulalia eliza erromanikoa hobeto ezagutzeko antolatu du Turismo Sailak. Hitzordua: domekan, 12:00etan, Bedoñan.

Munduko arrozak

Jaialdian batutako 95 euroak Salvamiento Maritimo Humanitario erakundeari bideratuko dituzte.

1969an jaiotakoak

Kintadara joateko 65 euro sartu behar dituzte 3035 0055, 19 0551059784 kontuan, urriaren 23a baino lehen.

Kulturola eraikina birgaitzeko lanak hasi dituzte

Horiek iraun bitartean, Mankomunitatearen egoitzan kokatuko dira, behin-behinean, eraikina erabiltzen zuten kultura eragile gehienak. Izaskun Murgia elkarte lirikoa eta Arrasateko konpartsa, aldiz, beste lokal batzuetan kokatuko dira. "Eskerrik asko denek lekualdatzeko erakutsitako jarrera eraikitzailegatik", azaldu du Udal Gobernuak.

Lanek hamasei hilabete iraungo dute eta 2021eko udaberrirako amaitzea espero dute. Construcciones Moyua izango da eraikina birgaitzea gauzatuko duen enpresa, eta, horretarako, 6.149.160 euroko aurrekontua izango du.



MUGARRI AUTOAK ARRASATE

Urriak 17 eta 18 **EGUN OSOA**

0Km eta Okasiozko
AUTOEN AZOKA

%40 -rainoko
deskontuak



Aukerak bukatzen ari dira!!!



PREZIO OSO BEREZIAK EGUN HAUETAN



GRUPO
EASO
MOTOR

San Andres Kalea, 6
20500 Arrasate
943 79 07 44

www.grupoeasomotor.com

"Sinistuta nago MUK liga irabaz dezakeela aurten"

ZACH KIRSCHBAUM OINTXE!-KO JOKALARIA

Las Vegasko jokalaria bigarren urtea egingo du Arrasaten; jokalaria profesional bilakatzea du amets, eta taldean duten kimika ona nabarmendu du

Xabier Urzelai ARRASATE

Las Vegas (Nevada) atzean utzi eta jokalaria profesional izateko etorri zen duela bi urte Zach Kirschbaum (1993) Europara. Bulgariako lehen mailan jokatzeko hasierako asmoa, baina denboraldi-aurrean belaunean min hartu, eta denboraldia pikutara joan zitzaion. Hala, Arrasaten aurkitu du ametsagatik borrokatzen jarraitzeko leku aproposa, eta helburu zorrotzak jarri ditu bigarren urte honetarako.

Nor da Zach Kirschbaum?

Las Vegasko gazte bat naiz, familian lau anaia eta arrebak bat gara, eta orain, nire familia propioa osatu dut, emaztea eta bi seme ditut eta. Nagusiak 4 urte ditu eta txikiak, 1. Sinistuta nago saskibaloia jokalaria profesional izan naitekeela, eta horren aldeko apustua egin dugu familian, nahiz eta ez den erraza.

Eta nolatan iritsi zinen Arrasatera izaz?

Belauneko lesio batengatik Bulgariako lehen mailan jokatzeko asmoak pikutara joan ziren duela bi urte, eta nire agenteak gomendatuta etorri nintzen Arrasatera.

Zer aurkitu duzu Ointxe! klubean? Klubean hasieratik sentiarazi naute oso ondo, eta maite dut hemengo jendearen izaera. Taldean oso kimika ona dugu eta sinistuta nago lorpen handiak egin ditzakegula. Talde honek liga irabaz dezake.

Galdera pertsonal bat: apustu sendoa egin duzu saskibaloia alde, baina ez da erraza izango etxeok urrun izatea.

"TALDEKIDEENGAN, ENTRENATZAILEENGAN ETA ZALEENGAN SINISTEN DUDALAKO BUELTATU NAIZ"



Zach Kirschbaum, jaurtiketa librean egiten, Iturripen. I. SORIANO

Bai, saskibaloia alde egin-dako apustu pertsonala da, eta etxeko babes osoa dut, eskerrak horri. Baina egia da ez dela batera erraza: urte erdian familia oso urrun izaten dut, eta elkarren hutsune handia izaten dugu. Eskerrak Jainkoari *Face Time* izeneko aplikazioa existitzen dela! Gogorragoa izango litzateke, bestela.

Las Vegaskoa zara; antzekotasun gutxi du zure jaioterriak Euskal Herriarekin, ala?

Ez dute inongo antzekotasunik, erabat ezberdinak dira. Han oso azkar bizi gara, garaiera handiko eraikinen artean, kasino artean... Euskal Herria, berriz, leku berezia da, askoz ere ederragoa. Ez izan zalantzarik, hemen bizi izateko giro hobea daukazue.

Euskal Kopa irabazi berritan, zein da taldearen aurtengo helburua? Eta zure helburu pertsonala?

Uste dut Euskal Kopa bi urtez jarraian irabazteak erakusten duela talde honek zer lor dezakeen. Eta noski, niretako, oso berezia izan da denboraldi hasieran halako garaikur bat irabazi ahal izatea. Lehen aipatu moduan, sinistuta nago liga

irabaz dezakegula, eta horrek izan behar du gure helburua. Hain zuzen, horregatik bueltatu naiz bigarren urte Arrasatera, taldekideengan, entrenatzaileengan eta ditugun zaleengan sinisten dudalako.

Valle de Egues dute zain

MUK Nafarroan jokatu du asteburuan (domeka, 12:30, Sarriguren), oraindik liga hasi ez duen Valle de Egues taldearen kontra: "Iaz, talde horrek etxean lau partidua baino ez zituen galdu, eta horrek motibatu egin behar gaitu", adierazi du taldeko entrenatzaile Iñaki Ogara *Arri-k*. Nafarreko goialdean egoteko moduko taldea dute, baina etxekoek bigarren garaipena gura dute: "Gainera, ondoren dugun atsedendira bi garaipenekin iristea oso garrantzitsua da".



Ziklistak, joan den hilean, Bergaran egindako Palmerakuen martxan. I. SORIANO

Urriaren 19an egingo dute Mondranbike martxa

Zailtasun tekniko eta gogortasun ezberdinak izango dituzten hiru ibilbide prestatu dituzte

X.U. ARRASATE

Besaideko lagunek gertu dute aurtengo Mondranbike martxa, eta, azken urteotako joerari jarraituta, bizikleta gainean teknikoki trebeak direnek ere gozatu ederra hartu ahal izango dute.

Horrek ez du esan gura euren-dako soilik antolatutako martxa izango denik, antolatzaileek hiru ibilbide erakargarri prestatu dituzte eta. Hala, ibilbide errazena 28 kilometro (1.050 metro) izango ditu, eta zailtasun tekniko ertaina. Ibilbide luzeak 35 kilometro izango ditu (1.500

metro) eta zailtasun tekniko altua. Eta azkenik, Extreme dertizona ere prestatu dute. Hala, izenak esaten duen moduan, muturreko ezaugarriak izango ditu: 40 kilometro, 1.800 metro-tako desnibela eta zailtasun tekniko handia.

Internetez urriaren 16ra arte

Izena aurrez eman gura duenak urriaren 16ra arte du horretarako aukera (*Kirolprobak.com*), baina egunean bertan ere izena emateko aukera emango dute antolatzaileek. Aurten, Biteri plazatik abiatuko da martxa.

Abian da helduek bizikletan ikasteko ikastaroa

Arrasate Udaleko Kirol Zerbitzuak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, helduek bizikletan ibiltzen ikasteko doako ikastaroa eskainiko du urriaren 14tik 18ra.

Bizikletan ibiltzen ikasteko bi ikastaro emango dituzte, goizez 10:00etatik 12:00etara eta arratsaldez 16:00etatik 18:00etara. "Ikastaroa egiteko ez da bizikletarik izan behar, ikastaroan bertan izango dira bizikletak zein kaskoak erabiltzaileendako prest", adierazi dute Udaleko ordezkariak. Bizikletan ibiltzen ikasteko ikastaroa doakoa da eta izen-ematea lehenbailehen egin behar da, Musakolako kiroldegira deituta (943 25 20 30).

Etxean jokatu duen bakarria Mondrate izango da

Euskadiko Txapelketan diharduen Arrasateko areto futbol taldearendako ligako hirugarren jardunaldia izango da, eta Zirauntza taldea izango du bihar, zapatua, aurrean (17:30, Musakola).

Ligan orain arte jokatu duen bi partiduetan Zirauntzakoek oraindik ez dute norgehiagokarik irabazi eta Mondratekoek, berriz, bi partiduetatik bat irabazi dute; ligako lehenengo jardunaldian izan zen, Tolosala taldearen kontra (4-3). Bigarrenean, ordea, Sestaoren kantxan 6-3 galdu zuten. Hala, emaitza horiekin, arrasatearrak sailkapenaren erdian daude, seigarren postuan, hiru puntu batuta.

Itsutasuna bistaratzea helburu daukan jaialdia

Urriaren 26an, zapatua, Errebeldeak Blind Rock Festival jaialdiaren lehen edizioa egingo dute Arrasaten; hiru ardatz izango ditu ekimenak, musika, sukaldaritza eta sentsibilizazioa, eta, azken horren baitan, "manifestazio errebeldea" egingo dute

Eneko Azurmendi ARRASATE

Jaialdiaren helburua bat eta bakarra da: itsutasuna bistaratzea eta gizarteratzea. Traol bat sortu dute horretarako, #*secie-goporundia* izenekoa (izan zaitez itsu egun batez). Ibon Casasek sortutako DameTVision irabazi asmorik gabeko elkarteak da ekimen hau antolatuta duena, Arrasateko Udalarekin eta Ibai-Arterekin elkarlanean.

Jaialdiak hiru ardatz nagusi ditu: alde batetik, musika dago. Egun osoan zehar Arrasateko talde ezberdinen kontzertuak egongo dira herriko kaleetan zehar. Gero, 20:00etan hasita, Ibon Casasen musika taldearen emanaldia egongo da, Ibon Casas And The Blind Rock Band, eta baita Leioako Herio taldea ere. "Bi talde hauek duten berezitasuna da talde bakoitzean bi musikari itsu daudela", azaldu du Maria Jose Acevedok, Casasen *coach* eta jaialdiko prentsa arduradunak. Kontzertu nagusia,



Ibon Casas, klaketa bat eskuetan duela. DAMETVISION

aldiz, Def Con Dos talde madrildarrarena izango da, 22:00etan.

Bigarren ardatza sukaldaria izango da, eta dastaketa bat egingo dute, patatak errioxar erara prestatuta. "Hau antolatzen du Angel Palacios sukaldari

itsuak zuzentzen duen Logroño-ko talde batek, Cocinar A Ciegas izenekoak. Duela hainbat urte jarri zuen martxan ekimen hau, eta helburua da pertsona itsuei kozinatzen irakastea. Beraz, jende itsua etorriko da berarekin

kozinatzen, eta jende garrantzitsua ere etorriko da. Esaterako, Begoña Rodrigo, *Top Chef* programaren lehen edizioko garailea; Xabi Gutierrez, Arzak jatetxeko I+G saileko arduraduna; Bilbon hainbat jatetxe dituen Hung Fai sukaldaria, eta abar".

Hirugarren ardatza, eta "garrantzitsuena", sentsibilizazioa da, eta, honen baitan, manifestazioa egingo dute, 19:00etan. "Itsutasunaren aurkako munduko lehen manifestazio errebeldea" izango da. "Arrasateko jendeak eta kanpotik datozen guztiek manifestazioan parte hartzea gura dugu. Bikoteka jarrita, bat begiak itxita joango da eta besteak gidari lanak egingo dizkio, eta alderantziz, jendea itsu baten azalean jar dadin".

Manifestazioa bukatu ostean, itsutasunaren inguruko hausnarketa bat egingo dute, Acevedok berak gidatuta.

Dokumentala, martxan

Ibon Casasen bizitza ardatz duen dokumentalaren grabaketak hasiak dituzte dagoeneko, Axel O'Mill ari da zuzendari lanetan, eta urriaren 26an grabaketa lanetan ariko dira. "Manifestazioan oso interesatuta daude, beraz, hemendik dei egin nahi diegu guztiei manifestazioan parte hartzeko, emozio handiko momentuak biziko dira eta".

Transmititu gura duten mezua da "gizartean dagokien lekua" hartu dezatela itsuek. "Horreta-

rako, ahalik eta parte-hartze handiena lortu gura dugu, mezua zabaldu dezagun guztion artean, eta denboran iraungo duen hausnarketa bat izan dadin. Jende asko dago itsu geratzen ari dena, baina jende horrek aurrera egingen du euren bizitzarekin. Non nahi ditugu itsuak, etxean sartuta ala kalean, gauza eta ekinga ezberdinak egingen? Ibon Casas horren adibide ona da. Etxean geratu orde, ekinga da, eta ez da geratzen sekula. Eta hori da helarazi gura duguna", dio Acevedok.

Arrasate, herri kuttun

Ibon Casas donostiarra da izatez, baina kupoiak saltzen aritu izan zen hainbat urtez Arrasaten, eta berari "asko" gustatzen zaion herria da. "Arrasateko jendea maitasun berezia dio, eta oso oroitzapen onak gordetzen ditu. Beraz, jaialdi hau Arrasaten egitea erabaki dugu, eta udal-txearen oniritzia jaso dugu hasieratik. Lehen aldia izango da aurtengoa, baina asmoa da urte urte errepikatzen joatea", azpimarratu du *coach*-ak. "Etorri Arrasatera eta izan zaitez itsu egun batez", bukatu du.

URRIAREN 26AN, 19:00ETAN EGINGO DUTEN MANIFAN PARTE HARTZEKO DEI EGIN DUTE

Disko berria eta bideoklipa kaleratu ditu Numen taldeak

'Iluntasuna besarkatu nuen betiko' da diskoa, eta bideoklipa 'Lautada izoztuetan' abestiarekin egin dute

E.A. ARRASATE

12 urteren ostean, disko berria kaleratu du Numen talde arrasatearra, eta baita euren lehen bideoklipa ere. "20 urteko ibilbidean egin dugun bideoklip bakarra", azaldu du *Jabo* taldekideak. "Hemen inguruan grabatu dugu, mendian, eta uste dut lan txukuna atera zaigula. Jendea gustura geratu da, askok idatzi digute zorientzen, eta, orokorrean, oso kritika onak jaso ditugu. Beraz, pozik gaude", gaineratu du. Era berean, aipamen berezia egin nahi izan dio-

te Iban Toledori, "bideoklipetan egindako lanagatik".

Diskoaren izenari dagokionez, *Jabo*-k dio, orokorrean, abesti guztiek dutela iluntasun puntu bat. "Gure egoera ere islatzen du, denboraldi luze baten ondoren bueltatu garelako, kobazulo batean sartuta egon ostean. Beti paganismo hori ere aldarrikatu izan dugu. Letretan agertzen den kontzeptu bat da, eta hori jartzea erabaki genuen".

Azken diskoaren ildo jarraitzen du disko berriak, taldeki-dearen esanetan. "Hala ere, 12

urte hauetan asko ikasi dugu, eta disko helduagoa dela esango nuke, ektura gehiago dauka, teknikoki aberatsagoa da, eta gaur egungo joeretara egokitu-ta dago".

Aurkezpenak, azarotik aurrera

Disko berriarekin eskainiko duten lehen kontzertua azaroaren 16an izango da, Donostian, Zombie jaialdian. Ostean, Zaragozan ere joko dute, azaroaren 30ean, eta Frantzian ere bi emanaldi eskainiko dituzte.

Arrasateko gaztetxean jotzea gustatuko litzaieke. "Zor diegu gure lagunei, ingurukoei eta Arrasateko gaztetxeari ere bai. Gure bigarren diskoa hor aurkeztu genuen, 2004an, eta ordu-tik ez dugu jo". Hala ere, aitor-tu dute oraindik ez daukatela ezer lotuta.

Zarzelako sarrerak merkeago lortzeko aukera bazkideentzat

Manuel Fernandez Caballeroren *El dúo de La Africana* zarzelaren lau emanaldi egingo dituzte azaroaren Amaia antzokian, azaroaren 23an, 24an, 29an eta 30ean. Urtero moduan, Arrasate Musikaleko bazkideek aukera izango dute emanaldi bateko sarrerak merkeago eskuratzeko -azaroaren 29koa-. Ekitaldirako sarrerak Monterron jauregian egongo dira salgai, urriaren 14an, 15ean eta 16an, 16:30etik 19:30era. Bazkideen deskontua 3 euro izanik, prezioa 16 eurokoa izango da. Beste hiru emanaldietako prezioa, aldiz, 19 eurokoa izango da. Bazkide bakoitzak lau sarrera erosi ahal izango ditu, gehienez.

OHARRAK

Bi antzerki Kulturaten

Emakume Txokoaren eskutik, bi antzezlan egingo dituzte urriaren 17an, eguena, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan hasita. *Agur eta dolore*, Miren Gaztañaga eta Iraia Elias aktoreekin, eta *Amatxi dixit*, Nerea Ariznabarreta, Gaizka Chamizo eta Ander Basaldua aktoreekin.

Hurrena, Motosierra

Uruguako Motosierra taldea izango da Kooltur Ostegunak ekimeneko hurrengoa. Punk rock, hardcore eta heavy metal doinuak uztartzen dituzte. Datorren egunean, 22:00etan, gaztetxean. Sarrera bost euro da.

Feminismoa sustatzeko ekimenak asteburuan

Aretxabaleako eta Eskoriatzako emakumeen topaketa bideratzeko kultura ekitaldiak antolatu dituzte: bertso musikatuak izango dira gaur, Zaldibar antzokian, eta sendabelarren gaineko ikastaroa eta 'Nomofobikak' antzezlan bihar, Arkupen

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Aretxabaleako eta Eskoriatzako udaletako emakume langileek bat egin zuten Martxoaren 8rako deitutako grebarekin, egun hartan eskatutako konpromisoari erantzunez.

Orduko soldata zatia ere borrokarekin jarraitzera bideratu gura dute eta langileek elkarrekin adostutako prentsa-oharrea hala adierazi dute: "Konpromiso politiko horrekin jarraitzeko egin genuen greba, eta diru hori herrira bueltatzea nahi dugu. Alde batetik, herriarekin ospatu eta guztiok batera hausnarketa prozesua jarrai dezagun. Eta bestetik, gure egunerokotasunean ikuspegi feminista inplementatu eta sustatzen jarraitu nahi dugulako martxan jartzen ditugun proiektu guztietan".

Kultura ardatz topaketan

Hainbat ekimen antolatu dituzte aste bukaerarako, emakumeen arteko sareak osatzeko eta, era berean, emakumeen ikusgaitasuna agerian uzteko. Horregatik, emakumeak izango dira oholtzan antolatutako kontu guztietan. Gaur, egubakoitza, *Ez da kasualitatea* bertso saio musikatua eskainiko dute Eskoriatzako Zaldibar antzokian,



Martxoaren 8an Herriko Plaza herritarrez beteta. MIRARI ALTUBE

arratsaldeko zazpitan. Malen Amenabar Larrañaga, Nerea Ibarzabal Salegi eta Oihana Bartra Arenas bertsolariak izango dira Gari Otamendi Arrieta eta Aritz Bizkai Villanueva musikariek lagun eginda, eta aurkezle lanetan, berriz, Maite Berriozabalek jardungo du.

Zapatuan, ostera, sendabelarrak ezagutzeko saioa egingo dute Arkupen, goizeko bederatzietan, Ekoudalatz elkarteok gidatuta: "Mendi buelta izango da lehenengo, eta gero, prakti-

kan jarriko ditugu gure emakume arbasoen ezagutzak. Bakoitzak prestatutakoa, gainera, etxera eroango du", adierazi dute. Iluntzean, ostera, Amaia Lizarralde eta Olatz Beobide protagonista dituen *Nomofobikak: Sarean kateaturik* antzezlan izango da, hau ere Arkupen, arratsaldeko zazpitan.

Antolatutako ekintzetara herritar guztiak gonbidatu dituzte: "Aretxabaleako eta Eskoriatzako udaletako emakume langileok ekimen horietara joateko dei egiten dizuegu".



NIRE USTEZ

AINHIZE BARRAINKUA

Erortzea

Beldurra diogu erortzeari, badelako amiltzea, beherakada bat.

Baina oreka galtzeak badu ederretik. Agian erori izan ez bagina ez genizkiolako gure errutinari bost minutu lapurtuko zeruko izarrei beha egoteko; ez geniokeelako ezetzik emango inertziatzeko eginkizun hutsal bati betetzen gaituzten hitzak, muxuak, laztanak jasotzeko; ez genukeelako behar beste baloratuko milaka argi urtetara dauden izarren distira iristen zaigun eran, kilometrotan urrun egonda ere beren maitasuna helarazten digutenen berotasuna.

Lantzean behin, gure zaurien zainketa beste esku batzuei uztea badelako autozainketarako bide bat. Esku horiek zeintzuek une batez ahulak izaten uzten gaituzten, inongo epairik gabe; baina momentua iristean zutik jartzeko behar dugun bultzadaxoa ematen diguten, aurrera jarraitu behar dugula gogoraraziz.

Gauaren iluntasunean ikusten dugu garbier izarren argia, baina egon beti daude. Eta beharbada, erortzeari esker deskubritu duzu zu zeu ere uste baino distiratsua goa zarena.

Adinekoei erorikoak prebenitzen erakutsiko diete

Adinekoei erorikoak prebenitzeko ikastaroa antolatu du Udalak 65 urtetik gorakoendako. Urriaren 30ean izango da, eguaztena, Ibarra kiroldegian (10:30-12:30). Izena aurrez eman behar da -debalde da- eta azken eguna urriaren 28a da; horretarako jo daiteke osasun etxera (943 71 19 59) eta Gizarte Zerbitzura (943 71 18 62). Gehienez, 30 pertsonarendako lekua dago.

Saio teorikoa eta praktikoa izango da; horregatik, arropa eroso eramateko eskatu dute. Horrez gainera, aholkuak emango dituzte teleasistentziaren, etxez etxeko laguntzaren eta laguntza teknikoaren gainean, besteak beste.

OHARRAK

Odol ateratzeak

Urriaren 14an, 21ean eta 28an odola emateko aukera izango da Durana kalean egongo den autobusean (16:45-20:00).

Pintura eskolak

Kultura Sailak antolatutako pintura eskoletan izena emateko epea zabalik dago Arkupen (943 08 10 01). Iban Urreta izango da irakaslea.

Posta bidezko botoa

Posta bidezko botoaren inguruan herritarrek dituzten zalantzak argitzeko laguntza eskainiko dute batzokian; astelehen, eguazten eta egubakoitzetan (11:00-13:00) eta martitzen eta eguenetan (11:00-13:00); urriaren 31 arte.

SANER

Iturgintza, gasa eta berogailuak
Zelaikoa Baserria, 20 • Apotzaga auzoa
20540 Eskoriatza - Gipuzkoa
943 71 52 51 / 605 71 66 92

Bainuontziaren
ordez dutxa
jarriko dizugu
EGUN BATEAN!

Galdarak
aldatzen
ditugu

Komunen eta sukaldeen zaharberitze-lanak • Iturgintza-lanak • Energia berriztagarriak



Asier Castellano, Aida Merino, Eukene Marrodan eta Itsaso Diego, HitzHartu akademiako lan taldea. HITZHARTU

Bost urte, Aretxabaleta hezten laguntzen

HitzHartu akademian, adin eta maila askotariko ikasleen arrakasta akademikoa dugu helburu; horretarako, bakoitzaren beharrak, gaitasunak eta gabeziak kontuan harturik eskola pertsonalizatuak eskaintzen ditugu

HitzHartu: 182 ikasle eta 10 irakasle, hamaika zalantza, talde lan, proiektu eta azterketa, 2014ko irailaren 5ean lehen aldiz HitzHartuko atek zabaldu genituenetik.

Nork esango zigun helburua ikasleari irakastea den lan honetan, gu bihurtuko ginela ikasle nagusi. Eta zenbat ikasi dugun! Txiki zein helduengandik: materia ezberdinetako ezagutzetan

sakonduz, ikaslearen lekuan jartzten saiatuz, azalpenak emanez, materiala egokituz, eta abar.

Ezin dugu aipatu gabe utzi ibilbide honetan euskarri izan ditugun Kurtzebarri Eskola eta Arizmendiko irakasleak, ezta hasieratik gudan konfiantza jarri duten ikasle zein gurasoak ere. Zorionak bost urte hauetan horrenbeste lan egin ondoren helburua lortu duzuen guztioi!

Aretxabaleta hezten laguntzea zen gure hasierako ametsa, eta zuen esfortzu eta emaitzak erronka betetzeko energia iturri izan dira.

Ingelesa indartu

Inoiz baino indar handiagoarekin ekin diogu ikasturteari, erronka berriekin. Guraso zein ikasleen eskaerei erantzunez, ingeleseko errefortzua indartu nahi dugu etapa berri honetan.

Oraindik ezagutzen ez gaituzuenoi, gure atek zabalik dituzuela gogorarazten dizuegu. Zatozte eta informatu. Zuek hartuko duzue hitza gure akademian, zure erronkak gure egingo ditugu.

**"HITZHARTU
AKADEMIAN INOIZ
BAINO INDARTSUAGO
EKIN DIOGU
IKASTURTEARI"**


hitzhartu
errefortzuakademia

Eta ORAIN, Ingeleseko eskolak
LEARNING IS FUN!

Mitarte 8, tarteko solairua 7 • ARETXABAETA • 943 08 76 32 / 688 72 68 51 • hitzhartu@hitzhartu.com



Aretxabaleko kuarteleko zenbait eragile kartelarekin. KUARTELA KULTUR ELKARTEA



Criminal Remains taldekoak, kuarteleko lokalean entseatzten. I.B



Guardia zibilen kuartela izandakoa, gaur egun. I.B

Kuartela, sortzaileen gune

Kuartela kultura elkarteak sortu berri, 'Kuartel zaharra sekula baino gazteago!' lelopean jaialdia antolatu dute zapaturako. Egitasmoaren hasierako pausoetako bat izango da, eta, auzolana bultzatuz, herriko kulturari balioa ematea dute helburu

Imanol Beloki ARETXABALETA

Aretxabaleko kuartel zaharra eraikin esanguratsua da hainbat herritarrentzat. Istorio ugari batzen dituen lekua da, eta kulturalki erreferentziatzkoa zenbaitentzat. Hala, kultura sustatzeko espazio bihurtu nahi dute orain hainbat lagunek. Badira urte batzuk, batez ere, musika talde ezberdinek eraikin horretako gelak erabiltzen dituztela entsegu lokal moduan, baina aurrerapauso bat eman gura izan dute, eta herriko eragileak, norbanakoak eta talde ezberdinak batu dira Kuartela kultura elkarteak sortzeko.

Lokala hutsetik elkarte ofizialera

Errepublika garaikoa da herriaren sarreran dagoen eraikina, eta 1989a arte guardia zibilen bizilekua izan zen. Haiek alde egin zuten guztiz bestelako ibilbidea hasi zuten. Haur eskolaren egoitza izan zen, baita gazteena ere, gaztetxea izan zelako han hainbat urtez. Leizarra musika eskolak ere bertan eman zituen lehenengo pausoak, eta dantza taldekoek ere hara jo zuten. Urteek aurrera egin ahala, horiek guztiek alde egin zuten handik –gaztetxea itxi–, eta poliki-poliki herriko musika taldeak hasi ziren erabiltzen

barruko lokalak; lehenengo gutxi batzuek eta orain mordo txo batek. Eñaut Zubizarreta txelo-jolea da bertan entseatzeko duen musikarietako bat: "Gela huts mordo zeuden, gutxi batzuek erabiltzen zirelako; beste batzuek, aldiz, zaborrez beteak zeuden egokitzen beharrean. Aretxabaleko musika talde

**100 PERTSONA
INGURUK OSATZEN
DUTE ERATU BERRI
DUTEN KUARTELA
KULTURA ELKARTEA**

berriak, gazteak, batez ere, Eskoriatzara joan beharrean geunden entseatzera. Beste batzuek gaztelekura joaten hasi ziren, baina hori 16 urtera artekoentzatzat soilik da, eta adinez zaharragoak ere bazeuden bertan; ez zela leku egokiena iruditu zitzaien. Hala, diagnosi bat egin genuen herrian, eta erabaki genuen entseatzeko tokirik ez zuen jende hori kuartelean sartzea espazio huts horiek betetzeko".

Kuarteleko gelak beteaz doaz poliki-poliki, eta orain, beste urrats bat egitea erabaki dute. "Itxura formala emate aldera, kultura elkarte moduan eratzea erabaki genuen. Eta, horrela, kuarteleko gelak, batzuek bakarrik erabili beharrean, kultura sortzaile guztiontzat eremu bilakatzeko, herritar guztiei ateak zabalduta", adierazi du Zubizarretak. Kuartela kultura elkarteak uztailan sortu zuten ofizialki, eta zuzendaritza batzorde bat eratu ere bai; hain zuzen, lau kidek osatzen dute hori: Inaxio Corres (presidentea), Carlos Lopez (presidenteordea), Eñaut Zubizarreta (idazkaria) eta Asel Errastik (diruzaina). Era berean, uste dute eraikin horren etorkizuna ziurtatzeko

ere balio duela elkarteak sortu izanak.

Talde gehiagori baietza

Talde asko elkartzeko dira kuartelean eta lagunak gehiago; 100 bat gazte dabilta joan-etorrian. Eta gehiago ere izango direla uste dute. "Hainbat pertsona lokal barik dago oraindik, eta eskaera egin dute. Eratze prozesu erdian geundenez ez diogu horri heldu baina bigarren txanda bati ekingo diogu talde gehiagorendako lekua egiteko. Beraz, 100 pertsonatik pasako garaela uste dut", dio Zubizarretak eta gaineratu du oraindik tokia egon badagoela: "Hiru lokal huts daude, espazio handi bat ere badugu... Egiteko dagoena da gelak txukundu, egokitu, banatu eta ondo antolatu. Bizikidetzaren aldeko apustua egingo dugu gainera eta lokal batzuk elkar-banatu egingo ditugu, nahiz eta hori zenbaitetan ez izan gustuko".

**AUZOLANARI
GARRANTZIA EMANEZ,
ESPASIOAK
EGOKITZEN JARRAITU
GURA DUTE**

Zapatuta begirako jaja

30 urte bete dira aurtengoa guardia zibilak eraikinetik joan zirela. "Guk ez genuen data horren berri, baina Mondragon Unibertsitatean Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten dabiltzan elkarteko zenbait kidek eraikinaren gainean egindako ikus-entzunezkoan jaso zuten. Aitzakia bikaina iruditu zitzaizgun jaialdi bat prestatzeko urriaren 12rako, Pilarika Egunerako, hain zuzen ere, horrek duen esanahiarekin".

Abian jarritako prozesu horri bultzada emateko eta herriko sortzaileen lanari balioa emateko, *Kuartel zaharra sekula baino gazteago!* jaialdia antolatzen dute biharko, zapatua: 12:00etan, irekiko dituzte ateak; 13:00etan, *Jam eta Jan* ekitaldia izango da Jaiki elkartearekin eta Brgs DJarekin; 14:30ean, paella erraldoia bazkaltzeko elkartuko dira 100 bat lagun –txartelak 15 eurotan erosi daitezke, Urbaltz eta Ezkutu tabernetan–; eta 17:00etan, musika kontzertuak izango dira: Txerrikumeak, Wood Strings, Nhil, Screamers and Sinners eta Criminal Remains taldeak, besteak beste. Horiekin batera, DJek ere girotuko dute arratsalde parte. Iluntzean, aldiz, parrilada egingo dute, jaieguna borobiltzeko. Egunotan gogor jardun dute lanean bertako kideek gunea egokitzen eta zapatutako jaialdirako gogotsu daude: "Herriarrak gonbidatu gura ditugu; ateak zabalik izango dituzte, kontzertuak debalde, eta herriko sortzaileen lana ezagutzeko aparteko aukera. Goazen Aretxabaletako kultura eredu on bat bultzatzera...".

Udalak bat egin du jaialdi horrekin eta laguntzen jardun du: "Geu ere ilusio handiarekin gabilta laguntzen jaialdi horrek aurrera egin dezan", adierazi du Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak, eta pozik agertu da elkarte eratzeko egindako urratsarekin: "Antolatzen dabiltza, hainbat proiektu dituzte esku artean, erabilpen hobe baten alde dihardute lanetan eta gu pozik gaude horrekin. Harreman zuzena dugu haiekin".

Sormena bor-bor

Kuarteleko lokalak sorgune izan dira bertan entsetzen duten zenbait musika talde

Elkarlanerako prestutasunez

AINHOA CABERO
KULTURA ZINEGOTZIA

Aretxabaletako Udalak azterten jarraitzen du eraikinaren egoera, baina jarraipen bera eman nahi zaio, oraingoz, zer egin erabaki arte. Eraikina zaharra da, eta gabeziak ditu, baina arriskurik ez dago. Bestalde, poztekoa da kultura elkarte bat sortu dutela; proiektu ugari daude tartean, erabilpenaren segurtasuna bermatze aldera, taldea ere osatu dute... Sortzaile ugari ditugu Aretxabaletan, eta oso toki interesgarria da.



EÑAUT ZUBIZARRETA
ELKARTEKO IDAZKARIA

Ez dugu ikusten arrisku estruktural handirik eraikinean. Badago txosten bat eraikina egoera oso onean ez dagoela dioena, eta badaude gauza batzuk aldatu beharrekoak: leihoak ezin dira zabaldu eta ezin dugu aireztatu lokala, komunak guardia zibilen garaikoak dira, zaharrak, eta instalazio elektrikoa ere aldatu beharrean dago. Hala ere, ari gara poliki-poliki lanean, gauza batzuk aldatzen, baldintza egokiagoak izateko bidean.

edo norbanakorentzat. "Herri-tarron aurreiritziak ezabatze-ko ere balioko du jaialdiak; izan ere, sarritan pentsatu izan da gazteak egonean egoteko toki bat besterik ez dela, eta ez da horrela. Garrantzitsua da guztiok ulertzea sormena lantzen den eraikin bat dela

eta lan pertsonalak aurrera ateratzeko elkartzen direla hor", dio Cabero zinegotziak.

Proiektu interesgarriak eta arrakasta handikoak *egosi* izan dira kuartelean, lanordu asko dituztenak atzean. Wood Strings taldeak, esaterako, bigarren diskoa aterako du azaroaren erdialdean eta zenbait bideoklip ere eginak ditu. Nhil taldearen proiektu berria zapatuko jaialdian emango dute ezagutzera; bi urtez kuarteleko lokalean entsetzen aritu ostean jendarean egingo duten lehen pausoa izango da. Eñaut Zubizarreta txelo-joleak bakarkako Trigger proiektua bertan sortu du. Screamers And Sinners taldeak dagoeneko hiru disko argitaratu ditu, guztiak kuartelean sortuak, eta azkena *-Hypnosia-* maiatzean aurkeztu zuten. Jasan taldeak, aldiz, esklerosi anizkoitzaren ikerketari laguntze aldera, bideoklipa grabatu zuen kuarteleko sabaian, herriko hainbat elkarterekin lankidetzan. Criminal Remains taldeak lau urte daramatza han eta disko bat du *Walking on the same old road*. Jaiki elkarteak ere ekitaldi mordo antolatzen ditu: dantza ikastaroak eta herrian erakustaldiak, besteak beste.

Elkartekideen zerrenda**Dantza**

- Jaiki Elkarte.

Musika

- Gorka.
- Txerrikumeak.
- Joss.
- Wood Strings.
- Eñaut Zubizarreta
- Nhil.
- Screamers And Sinners.
- Pieman.
- Iban Brgs.
- Criminal Remains.
- Margumission.
- Jasan.
- Zerendepya.



Aretxabaletako EH Bildu, eguaztenean egindako prentsurrekoan. TXOMIN MADINA

Agintaldira begirako plan baten beharra eskatu du EH Bilduk

Plan horretan, beste alderdien ideiak eta herritarren ekarpenak txertatzea ere sartzea eskatu zuten

Imanol Beloki ARETXABALETA

Eguaztenean egindako prentsurrekoan, Aretxabaletako Udalean agintaldirako plangintza baten beharra dagoela adierazi zuen Aretxabaletako EH Bilduk. Unai Elkoro alkateari datozen lau urteetara begirako arloko plangintza bat eskatu zioten, honako hau argudiatuz: "Edozein enpresatan eta gizarte erakundetan halako ibilaldi bat hasi behar denean derrigorrezkoa izaten da norabidea markatzea, eta nora iritsi nahi dugun ahalik eta zehatzen jasota edukitzea. Batetik, helburuak denok garbi izan ditzagun; bestetik, ibilbide hori egiteko zein bitarteko behar diren zehatzen laguntzen delako, eta Udalaren konpromisoa betetzen den edo ez herriak jakitea garrantzitsua ikusten dugulako", adierazi zuen EH Bilduko zinegotzi Mikel Uribebarria Aldalurrek.

Arloz arloko plangintza

Besteak beste, Ion Albisu EH Bilduko bozeramaileak zenbait herritan egin dituzten alderdien programak eta agintaldi plan garatuagoak jarri zituen mahai gainean, eta plangintza garatu baten beharra azpimarratu zuen.

"Agintaldiko plan batean ez lirateke bakarrak hauteskundeak irabazi dituen alderdiaren ideiak jaso beharko. Beste alderdien ideiak kontuan hartu eta txertatu beharko lirateke, eta herritarrek egin ahal dituzten ekarpenak jaso. Ez badago denok ezagutzen dugun plan bat, Udala inprobisazioaz ibil daiteke edo konfidentziala den plan bati jarraitu. Ez dago erdibiderik, hamar neurriekin ezin baita gobernatu". Hori esanda, lau urtetarako arloz arloko plangintza bat egitea eskatu zuen Albisu, eta EH Bilduren lanerako prestutasuna agertu.

Jou Díaz
Karakina
Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia I - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

"Bazkide berri bila, erronka berriari ekiteko"

JUAN LUIS ZUBIZARRETA ATXORROTX KULTURA ELKARTEKO LEHENDAKARIA
'150 Baietz' lelopean bazkide kanpaina jarriko dute martxan Atxorrotx Kultura Elkarteko Kideek. Horretarako, zenbait ekintza egingo dituzte urte amaiera arte

Imanol Beloki ESKORIATZA

Herriko eragile esanguratsua den Atxorrotx Kultura Elkartek bazkidetza kanpaina jarri nahi du martxan, aro berri bati hasiera emateko asmoz. Herriarentzat lanean jarraituko du, baina aurrerapauso bat eman nahi du, elkarte indartzeko, ekintza kopurua handitzeko eta, batez ere, Eskoriatzako kultura arloari bultzada emateko.

Bazkide kanpaina jarri nahi duzue martxan. Beharra dago?

Bai. Gure helburua, epe motzera, bazkideak lortzea izango da. Horretarako, *150 baietz* lelopean hainbat ekintza burutuko ditugu hemendik urte amaiera arte. 100 bazkidetik gora izan ditugu azken urteetan; hala ere, krisi ekonomikoa irten zenetik... zenbait ekintza egin zuten elkarteak, eta, gaur egun, 92 kidek osatzen dugu.

Badira zenbait urte Atxorrotx Kultura Elkartek bere ibilbidea hasi zuela, ezta?

Urriaren 30ean, 26 urte beteko ditugu. Orduan hasi ginen, orain Inkernun taberna dagoen lokaletan erosi genuenean... Handik hamar urtera, 2003an, berriro egin genuen taberna, eta kultura elkarte moduan hasi ginen funtzionatzen. Orduetik, zenbait ekintza antolatu ditugu.

Zeintzuk dira ekintza horiek?

Ekintza finko batzuk ditugu: Errekan Gora, Elkartearen Eguna, ardo dastaketa, Kontzejupe pilota txapelketa, Inkernuko kontzertuak –erreferente bat dena Euskal Herri mailan–. Beste elkarte batzuei laguntza ematen ere saiatzen gara: Aste Zapatatari, Gabez Takarraran mendi-lasterketari... Horrez gain, laguntza ekonomikoa ere ematen diogu Kirol Elkarteari, presoen aldeko mugimenduari, eta orain, baita emakumeen mugimenduari ere. Zenbait momentutan, auzolanak ere egin izan ditugu, eta horietan parte hartu...



Juan Luis Zubizarreta, Atxorrotx Kultura Elkarteko lehendakaria. IMANOL BELOKI

AZKEN SUSTRAIAK ETA CRIMINAL REMAINS TALDEEN KONTZERTUAK GAUR, INKERNUN, 22:00ETAN

Nola finantzatu duzue elkarteak?

Bazkide bakoitzak hileroko ekarpen ekonomikoa egiten du. Horrez gain, dirulaguntzen beharrak izaten ditugu ekintza puntualak aurrera eramanez. Inkernun tabernaren esplotazioa ere gure gainean dago.

Elkartearen estruktura, berriz, nolakoa da?

Zuzendaritza zazpi bazkidez osatuta dago, eta, lau urtean behin aldatu behar dugun arren, orain gauden kide batzuek zortzi urte daramatzagu, nahiz eta azkenengo bi urteetan lau pertsona aldatu ditugun. Honekin batera, urtero batzar orokor bat egiten dugu, irizpide ezberdinak markatzeko. Hain zuzen ere, ideiak elkartrukatzeko batu garenean, aldaketa baten beharra ikusi dugu. Momentu honetan dugun helburua elkarte indartzea eta bazkide berriak

lortzea da, hori da helburua. Bazkide egiteko aukera modu ezberdinetan jarriko dugu martxan. Eskuorri batzuk jarriko dira zenbait taberna eta komertzioetan, eta info@atxorrotx.eus helbide elektronikora idatzita ere egin daiteke.

Berrikuntzak aipatu dituzue; esaterako?

Berrikuntzen aldetik, guretzat garrantzitsuena Etxerat elkartearekin hasi behar dugun elkarlana da, presoen egoera eta problematika herrira zabaltzeko eta familiei laguntzeko. Bestalde, Inkernun egiten diren kontzertuak finkatu eta ekintza gehiago egitea da gure asmoa, herriko beste elkarteekin elkar-laguntza ere bultzatuz.

Pauso bat gehiago emateko, gaur, bi kontzertu, ezta?

Hala da. Hain zuzen ere, Oi! estiloa uztartzen duten bi talderen emanaldiak izango ditugu gaur. Azken Sustriak eta Criminal Remains taldeak izango dira Inkernun; 22:00etan hasiko dira. Horrez gainera, aurrerago, Siroka eta Unidad Alavesa taldeen kontzertuak ere izango ditugu, baina zehatuko dugu zein egunetan izango diren.

Euskaraldiko Batzordea, bigarren ediziora begira

Euskaraldiaren prestakizunen aurretik, Euskararen Eguna ari dira antolatzen batzordekideak

Imanol Beloki ESKORIATZA

2020an izango da Euskaraldiaren bigarren edizioa, eta Eskoriatzan prestaketa lanak egiteko berriz osatu dute Euskaraldiko Batzordea. Kide berriak daude, Euskaraldiaren parte izan direnak edo ez, eta interesa piztu zaienak ere gerturatu zaizkie.

Edozelan ere, egitasmoari hasiera emateko lehenengo pausoa 2019ko Euskararen Eguna antolatzea izango da; hala, motorrak berotu eta Euskaraldiaren prestaketa lanak indartsu hasteko asmoz. Dagoeneko bi bilera egin dituzte; atzo, azkena. Hala ere, aurrera begira, egingo dituzte bilera gehiago.

Batzorde irekia

"Euskaraldiko Batzordea batzorde irekia da: norbanakoek, elkarteetako ordezkariak eta Eskoriatzako Udalak osatutakoa. Momentu honetan, hamabost bat kide ditu lanerako prest eta gogotsu daudenak, baina dei egin nahi dugu interesa duen beste edonor etortzeko eta ideia berriak prestatzen laguntzeko...", adierazi du Euskaraldiko Batzordeko kide Mari Karmen Arrietak.

Euskaraldiko Batzordearen helburua 2020ko azaroan eta abenduan izango den Euskaraldia antolatzea da, baina gauzak ondo atera daitezkeen aurrelana ere garrantzitsua dela nabarmendu du Arrietak: "Bigarren edizio honi begira, teorizazioa landuko du batzordeak, edizio berriaren berritasunak aztertuiko ditu, zabalkunderako ekintzak pentsatu eta gauzatuko ditu, eta, horri hasiera emateko, momentu honetan esku artean dugun lehenengo lanketa 2019ko abenduaren 3an izango den Euskararen Egunaren bueltan egingo diren ekintzak dira".

Ideiak batu eta antolatzeko

Hemendik aurrera egingo dituzten bileretan herritar gehiago batzea nahi dute batzordekideek; hala, informazioa zabalduko duten arren, herritarrek parte hartzea animatu nahi dituzte. Bilera horien datak zabalduko dituzte herritarren artean, baina norbaitek joateko aukerarik ez badu eta ideia berriak proposatzeko eta prestatzen joateko iradokizunik egin nahi baditu, eskoriatza@euskaraldia.eus helbidera idatzi dezake.

GORA ETA BEHERA



USUNE BENGOA

San Pedro auzoko goiko parkea, zikin

Zenbait herritarrek kexa adierazi dute, sare sozialen bidez, San Pedro auzoko goiko parkea dela eta: kirola egiteko eremuan jende dezente batzen da, baina garbitasun falta dagoela adierazi dute.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Iruña-Veleia aztarnategia aztergai izan dute

Eguaztenean, Juan Martin Elexpuru idazle eta filologoak 'Zer gertatzen ari da Iruña-Veleian?' izeneko hitzaldia eskaini zuen Ibarraundi museoan. Horrekin batera, Arabako aztarnategia bisitatzeko irteera antolatu du ATX elkarteak domekarako

Imanol Beloki ESKORIATZA

Iruña-Veleiako aztarnategian, 2004an eta 2005ean, 400 bat grafito aurkitu zituzten latinezko eta euskarazko testuekin; hieroglifiko egiptoar batzuk eta greziar alfabetoz idatzitako zenbait hitz ere bai, baita marrazkiak ere. Hasieran, ontzat eman ziren, eta handik gutxira, zantzak hasi.

Iruña-Veleia kasua

Arabako Foru Aldundiak 2008ko azaroan Iruña-Veleian lanean ari zen talde arkeologikoa aztarnategitik bota zuen eta 2009ko martxoan, Eliseo Gil zuzendariaren, Oskar Escribano geologoaren eta beste kide baten aurkako kereila aurkeztu zuen epaitegian, idazkunak faltsuak zirela leporatuta. Kasua irten zenetik hamarkada bat pasata, oraindik ez dago garbi aztarnategian egindako aurkikuntzak egiazkoak ala faltsuak diren. Hori horrela, Iruña-Veleiaren istorioaren be-



Ibarraundiko hitzaldia. I.B

rri emateko, eta gaia hobeto ulertzeko, Juan Martin Elexpuru idazle eta filologoaren hitzaldia izan zen, eguaztenean, Ibarraundin. *Zer gertatzen ari da Iruña-Veleian?* izeneko hitzaldia eskaini zuen, eta hiru bloketan

banatuta eman zuen honen berri. Batetik, Iruña-Veleian egindako aurkikuntza; bestetik, egon den polemika; eta, azkenik, gaur egungo egoera judiziala.

Bisita gidatua domekan

Honekin batera, domeka honetarako, Iruña-Veleiara irteera antolatu du Atxorrotx Kultura Elkarteak, aztarnategia bisitatzeko. Nork bere kabuz joan beharko du, eta bisita doakoa izango da. Iruña-Veleian 10:45ean elkartu arren, 10:00etarako egin dute hitzordua Ibarraundin, bertan autoetan banatzeko. Izena eman nahi duenak Inkernu@atxorrotx.eus helbidera idatzi edo 615 79 92 58 zenbakira deitu beharko du.

Erakusketarik ez

Aste honetan, aurreikusita zegoen Iruña-Veleia aztarnategian egindako aurkikuntzak batzen dituen erakusketa egiteko museoan, baina bertan behera geratu da.

Gaur izango da 'Ez da kasualitatea' bertso-saio musikatua

Martxoaren 8an, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udaletako emakume langileek greba egin zuten, eta, kobratu ez zuten diru hori herrira bueltatzeko asmoz, gaur, *Ez da kasualitatea* bertso-saio musikatuaz gozatu ahal izango dute Zaldibar antzokira gerturatzaren direnek.

19:00etan hasiko da emanaldia, eta antzokiko oholtzan hiru bertsolari izango dira, Malen Amenabar Larrañaga, Nerea Ibarzabal Salegi eta Oihana Bartra Arenas, eta haiekin batera bi musikari, Gari Otamendi Arrieta gitarran eta Aritz Bizkai Villanueva biolinean. Aurkezle lanetan, berriz, Maite Berriozabal izango da.



LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA

Garabidekoen bisita

Martitzenean, Garabidekoen bisita izan zuten Luis Ezeiza eskolakoek. Herri Eskolan murgiltze ereduaren sorrera, B ereduaren jarraipena eta gaur egunera arteko egoera azaldu zizkieten bisitariei. Irakasleen azalpenekin batera, seigarren mailako ikasleek euren esperientziak kontatu zituzten: nola ikasten duten euskara eskolan, beraien etxeko hizkuntzek nolako presentzia duten ikastetxean...

LEINTZ GATZAGA | 21

"Gatzaren Eguna indartzen joan dadin nahi dugu, herritarrekin"

JOANNES MENDIZABAL KULTURA ZINEGOTZIA

Gatzaren Eguna domeka honetan izango da

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Domeka honetan, laugarren urtez ospatuko da Leintz Gatzagako Gatzaren Eguna. Egitarau bete izango da, eta baita berrietasunak ere gatzaren kultura indartzeko asmoz antolatutako jaian.

Zer da gatzagarrentzat halako egun bat prestatzea?

Ez gara asko herrian, eta esku asko behar izaten dira muntakarako, garbikarako, trafikarako... Hala ere, gogoz egiten bada, eta plaza beteta ikusten badugu, sari bat izango da. Ekimena indartzen joan dadin nahi dugu, eta herritarren inplikazioa ezinbestekoa da.

Aurten, berrikuntzak, gainera?

Sanmilixanetako artisau azoka eta Gatzaren Eguneko barazki eta gatz azokak batu nahi izan ditugu, egun indartsuagoa lortzeko. Guztira, 35 bat postu izango dira, eta hori da aurtengo berrietasun nagusia. Espero dugu asmatzea.

Biarnoko Salies herriarekin senidetzea izan zenuten iazko edizioan; badatzo aurten?

Bai, etorriko dira. Gu irailean egon ginen gonbidatuta, 25 lagun inguru joan ginen autobusez. Jai handia da hangoa; izan ere, 4.000 biztanle inguru bizi dira herrian, eta 20.000 pertsona batzea lortzen dute jai horretan, nahiz eta bertan lau eguneko festa izaten den. Domekan, bestalde, etorriko da Gatzagara Saliestik kuadrillatxo bat, bisitan.

Autobus zerbitzu berezia izango da domekan

Beste edizio batzuetan gertatu den moduan, Gatzagan aparkatzeko zailtasunak izan dira Gatzaren Egunean; izan ere, aparkalekua mugatua da, eta sekulako nahaspila izaten dela jakinarazi du Udalak. Hori horrela, Udalak berak hala eskatuta, autobus zerbitzu berezia izango da egun horretan, Eskoriatzatik Gatzagara joan nahi dutenentzat.



Joannes Mendizabal. I.B

Egitarauari dagokionez, zer egongo da herrigunean?

Eguna hasteko, mendi buelta bat egingo da Jakoba Errekondorekin eta EHUKo Iñaki Antiguedad eta Ane Zabaletarekin. Paisaia kulturalaren aldetatik hitz egingo du Errekondok, eta geologiako adituek lur azpiko kontuen gainean jardungo dute. Gero, plazan, azoka, egurrezko jolasak eta artisauen tailerra haurrentzat, Kilimak taldearen kontzertua... izango dira. Museoan, berriz, bisitak eta gatzurarekin fermentazio teknikak erabiliz barazkiak kontserbatzeko tailerra izango da Olaia Blancorekin.

Besterik?

Gatz Bidia eginaz Eskoriatzatik Gatzagarako bidea oinez egiteko hitzordua ere jarri dugu. 10:00etan, Eskoriatzako plazatik irtenda.

Batetik, Goierribusek bi zerbitzu jarri ditu egunerako: 10:30etik 12:00etara bitartean Gorosarri-Aingeru Guarda-Leintz Gatzaga ibilbidea egiten izango da autobusa, eta ondoren, 12:00etatik 15:00etara, berriz, ibilbide bera egingo du; kasu honetan, Gatzaga-gaindik pasata. Bestetik, Lurraldebusek ordu-tegi eta geltoki berriak ezarri ditu Eskoriatza eta Gatzaga bitartean zapatu, domeka eta jaiegunetarako Lurraldebus.eus webgunean daude ikusgai.



Iazko koplak txapelketaren bueltan jardun zuten lagunak. ARAMAIOKO BERTSO ESKOLA

Kopla txapelketa, iazko arrakasta errepikatzerara

Jendeak lehen edizioari egindako harreraren eta herrian eta Iturrieta sagardotegiko finalean sortutako giroaren ondotik, hurrengo barikuan egingo dute bigarren. Aramaioko bertsolariak eta Euskal Herriko beste hainbat tokitakoak ariko dira lehian

Julen Iriondo ARAMAIO

Langa oso goian jarri zuen Aramaioko Kopla Txapelketaren lehen edizioak. "Izugarrizko giroa egon zen iaz Iturrietako finalean, eta nahikoa lan izango da hori errepikatzen, baita geure aldetik ere. Bestetik, iaz eragin handia izan zuen herrian: zenbat jende egon zen plazan entzuten! Oraindik ez dut sinisten, hainbeste jende bertsoak entzuten, errespetuz, isilik, umeak, helduak, normalean erdaraz jarduten duten poteatzailak ere entzuten zeuden. Hori lortzen badugu...", dio bertso eskolako Xabi Igoak.

Aramaioko eta herri mugakideetako bertsolariak hartu zuten parte txapelketaren lehen edizioan –azkenean irabazle suertatu zen Mainer Arregi oñatiarra izan zen salbuespena–, eta oraingoan, berriz, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetakoak izango dira etxekoekin batera ariko direnak: Andere Arriolabengoa, Aitor Ugarte eta Martin Aba-

rrategi aramaiorak eta Oihana Arana –eskoriatzarra–, Aroa Arrizubieta, Bittor Altube, Paule Loizaga, Xabat Illarregi, Malen Amenabar, Oihane Perea, Asier Galarza eta Aratz Igartzabal izango dira parte hartzen, iazko txapelketarekin eta buruz burukoan harekin jardun zuen Jokin Labaien arrasatearrekin batera: "Bertso eskolako kideon lagunak edo bertso eskolarekin harremanen bat izan duten jendea dira; saiatu gara genero aldetik parekide izan zedin, eta adinari dagokionez ere aniztasuna izaten". Faborito argirik gabeko txapelketa izango da, Igoaren arabera: "Ez nuke jakingo esaten nor den faborito, bertsoakera desberdinak dira,

IAZKO IRABAZLEA ETA BIGARRENA, MAIDER ARREGI ETA JOKIN LABAIEN, BERRIZ ARIKO DIRA LEHIAN

baina, aldi berean, oso erakarriak denak; sorpresak egongo direla seguru".

Txapelketaren egitura iazko bera izango da. Klean jokatuko dira bi finalerdiak: 18:30ean hasita Goiko Taberna aurrean jardungo dute hiru bikotek, eta 19:30ean plazan beste laurek; ofiziotan jardungo dute –bikoteko, bakarra–, eta epaileek erabakiko dute bietako zein pasatzen den finalera. Finalerako zortzigarren txartela galtzaileen arteko onenak eskuratuko du.

Finala Iturrieta sagardotegian izango da, afari bueltan –20 euro; astelehena izango da izena emateko azken eguna: 688 62 70 89 (Xabi)–. Bertsolari bakoitzak bi ofiziotan jardungo du bertan, eta bi onenak buruz burukora pasako dira: buruz burukoan, gaiarekin eta librean jardun ostean, kartzelakoa izango da azken ariketa, bakarka. Musikaiek lagunduta egingo dira saio guztiak eta finalean publikoak izango da epaile.

Irakurle Klub Feministaren lehen saioa, astelehenean

18:00etatik 20:00etara izango da, kultura etxean. Hileko bigarren astelehenean elkartuko dira Ainhoa Aldazabal dinamizatzaileak proposatutako liburuak komentatu eta, literaturarekin gozatuz, feminismoan sakontzeko. Klubean parte hartzeko izena, 945-43 01 67 telefono zenbakian edo berdintasuna@gor-beialdea.eus helbidean.

Bihar izango da kaleko pintura lehiaketa

Egunean bertan landu beharko da margolana, edozein teknika eta materialekin: 09:00etan hasita –11:00ak arte– zigilatu ahal da euskarria, Sastiña ermitan; 14:00ak bitartean egin ahal izango da margolana –14:30ean bazkaria izango dute–, eta, epaimahaia bildu ondoren, 18:30ean emango dituzte aditzera irabazle izenak.

OHARRAK

Arabako erretiratuak

Hurrengo zapatuan ospatuko dute euren eguna, Arabako Errioxan. Izena martitzena baino lehen eman behar da.

Bertso bazkaria

Bihar, Kasatxon, Lizaso eta Peñagarikanorekin.

Udaletzeko ordutegia

Eguazten arratsalde ere zabalik, ekainera bitartean.

Atzo hasi eta eguen eta barikuetan izango dira dantza eskolak

Lagun Artean dantza taldeak hasi du ikasturtea. Ekain amaiera bitartean irauango du, eta eguen eta barikuetan izango dira eskolak, taldearen arabera; bost dira aurten, eta 45 lagun denera, oraingoz. Interesa dutenak 626 37 22 06 zenbakian jar daitezke harremanetan. Oihane Vicente izango da aurten ere irakaslea.



NIRE USTEZ

ANDERE
ARRIOLABENGOA

Larre berdeetatik espaziora

Ikasturtea martxan dugu jada, eta ARBEK (Aramaioko Bertso Eskola) ere piztu ditu motorrak. Iaz ospatu genuen lehenengo aldiz Aramaioko Kopla Txapelketa. Apustu arriskutsua izan zen arren, ardiak belardi berde eta oparoetan lez aritu ginen herriko kaleetan zehar, eta ahariz betetako artalde bihurtu ginen ondoren Iturrieta sagardotegian.

Aurten belardi berdeetatik espazio zabalera egingo dugu jauzi. Baserriko lanabesak alde batera utzi eta astronauten jantzi sofistikatuen barruan sartuko gara, planeta eta izar artean hegan egiteko.

Espazioa zeharkatu eta zulo beltzek eta kometek gordetzen dituzten misterioak ezagutu nahi badituzu, igo zaitez gure espazio-ontzira datorren ostiralean. Zure zain egongo gara, arratsaldeko zazpi eta erdietan burutuko dugun aireratzean parte hartu dezazun. Koplen metafora ederra, bidaiak azkar, labur eta intentsoa. Iaz ardi eta aurten astronauta. Gure bailaran horrelakoak gara, hanka bat lurrean eta bestea airean ibiltzea gustatzen zaigu.



Jaietan, dantzan. LAGUN ARTEAN

GOIENA TELEBISTA

UDAZKENEKO PROGRAMAZIO BERRIA

Aitor Agiriano ARRASATE

Bertakoa, berritua, freskoa, zurea, debagoiendarrak protagonista izango dituen saio berritu eta berriekin prest da Goiena telebista udazkenerako.








Kolore askotariko edukiek osatuko dute datorren programazioa: kirola, gizartea, kultura, ekonomia, euskara, ingurumena, osasuna... guztiek edukiko dute lekua albiste, elkarrizketa, eztabaida, erreportaje edota saio berezietan.

Ohiko informazio tartea eskaintzen segituko du: eguneroko gertaerak jasoz *Albisteak* saioak eta kirolak emandakoaren errebasoa eskainiko du *Harmailatik*-ek astelehenero.

Politikariekin elkarrizketak eta eztabaidak ere eskura izango dira, hamabostean behin, herritarren ahotan pil-pilean dauden gaien gainean, *Harira elkarrizketa* eta *Harira eztabaida* saioetan.

Bestetik, herritarren interesekoak diren kontuen gaineko informazio zabala ere eskaintzen segituko du eguneroko Goienak ekoizten duen ordubeteko magazinak: *Hemen Debagoiena*-k. Azken honek, gainera, berrikuntza ugari estreinatuko ditu, asteroko maiztasuna izango duten tarte berriein: dekorazioaren gaineko erreportajeak; tribial moduan hainbat gairen inguruan jokoan jarriko dituzten herritarrak; eta Euskal Herritik kanpo bizi diren debagoiendarrarekin ere Skype konexioak egingo dira; hala, beraien ahotik lekuan lekuko hainbat bizipen entzun eta ikusteko aukera izango dute ikus-entzuleek.

Horiez gain, beti izaten gara zeru aldera begira, ea zer eguraldi egingo ote duen begira, eta, askotan, hainbat klik ezberdinetan jasotzen ditugu eguraldiak dakartzan paisaia ederrak. Horiek guztiak jaso nahi dituzte saioak,



herritarren eskutik, eta argazkiak bidaltzen dituzten guztien artean sariak zozkatu dira hilero. Has-teko, Errigora saskiak; eta, Euskalmet-en eskutik, asteburura begirako eguraldi iragarpena ere berreskuratuko du saioak.

Debagoienean kokatutako erreportaje bereziak ere prest ditu telebistak. Gertuko gaiak sakon landuta, protagonisten ahotik. Denboraldi berrian, honako hauek ikusi ahal izango dira: *Debagoiena eskualde batua* eta *Ndank Ndank Senegalera*, besteak beste.

Entretanimendu formatuekin gozarazteko aukera ere badakar denboraldiak: *Elkarrizketa*, *Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 2019*, *Huhezinema* eta *Jaiak*.

Horiez guztiez gain, oroitzapen kutxa irekita, 90eko hamarkadako irudiak gogora ekarriko dizkigun *Hala bazan* saioa estreinatuko da aurki. Arrasate Telebistako artxiboan arakatzten hasi, eta astero gai konkretu baten inguruan orain dela urte batzuetako irudiak, kirola, kultura, jaiak eta debagoiendarrak nola aldatu diren ezagutzera emango ditu, besteak beste. Nor daki, agian, zeu ere agertuko zara orain urte batzuetako kon-tuetan barrena.

Goiena, 25. kanalera

Bestetik, 5G teknologiari espazioa uzteko eta banden eta frekuentzian erabilera eraginkorragoa izateko, toki hedabideek eta kate nazionalako hainbat telebistak katez aldatu behar izango dute 2020 hasieran. Hala, hainbat telebista ikusten jarraitu ahal izateko, aldaketa edo egokitzapen batzuk egin beharko dira: etxebizitza indibidualetan, telebista berriz sintonizatuta nahiko izango da; antena kolektiboak dauden eraikinetan, berriz, komeni da antenistarekin harremanetan jartzea, antena egokitu beharko da eta.

Kolore askotako programazioa

Ohiko saioak, berriak, atal berritzaileak, herritarrak protagonista izango dituzten eduki freskoak, albiste direnak, gertakariak... guztiak, gertutik eta barrutik landutako ikus-entzunezkoen osatutako programazioarekin dator Goiena udazkena epeltzera

Bailarako kirolaren errepasso sakona 'Harmailatik' saioan

Jone Olabarria ARRASATE

Debagoieneko kirola eta kirolariak protagonista izango dira, beste denboraldi batez, Goiena telebistako *Harmailatik* saioan.

Hain zuzen ere, Xabi Urzelai kazetariak aurkeztua, aste bukaeran kirolak emandakoa, kirolariekin elkarrizketak eta erreportajeak eskainiko dira astelehenero.

Udazken sasoiarekin batera, atletismo denboraldia hasiko da bailarako korrikalarientzat, eta, hain zuzen, lasterketa horiek izango dira nagusi datozen hilabeteetan saio horretan. Hala, Oñati eta Arrasate arteko lasterketa, Antxintxika krosa eta Behobia-Donostia lasterketan Debagoieneko korrikalariei buruzko informazioa izango da.



Oñati-Arrasate lasterketa. I.S.

Herri ordezkariekin elkarrizketa edo eztabaida saioak astero

Erakunde, elkarte, talde eta alderdi politikoetako ordezkariak izango dira 'Harira' saioaren protagonistak

J. O. ARRASATE

Harira saioa ohikoetako bat da Goiena telebistaren programazioan. Azken bi denboraldietan, biko formatuan: elkarrizketa eta eztabaida edo mahai-ingurua, martitzenetan, txandaka: batean elkarrizketa, hurrengoan eztabaida. Eneko Azkaratek eta Goiatz Aranek aurkeztuta.

Lehenak herri erakunde, talde edo elkarteetako ordezkariak elkarrizketatuko ditu, eta denboraldi honetarako, hasierako saioetan, honako hauek izango ditu gonbidatu: argazkian ageri



Iratxe Esnaola. GOIENA

den Iratxe Esnaola, Monzon laborategiko presidentea –oraingo martitzenean, hilak 15-; Eduardo Zubiaurre, Confebaskeko presidentea, eta Imanol Lasa, Gipuzkoako Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Inguruneko diputatua. Aurrerago, Debagoieneko alkateen txanda etorriko da, agintaldiko lehen elkarrizketa luzean.

Hauteskundeetako eztabaida

Goiatz Aranek, berri, alderdi politikoetako ordezkariak batuko ditu mahaiaren bueltan, aktualitateaz eztabaidatzeko. EH Bildu, EAJ, PSE-EE eta Elkarrekin Podemosko kideak izango dira platoon. Azaroaren 5ean, Espainiako hauteskundeetako Gipuzkoako zerrendaburuak izango ditu mahaiaren bueltan.



Txomin Madina, *Hemen Debagoiena* aurkezten, Maialen Regueiro kazetariarekin.

'Hemen Debagoiena': eguneroko informaziorik osoena, gertutik

Berritasunekin dator eguneroko magazina: etxean eta dekorazioaren gaineko tartea, tribiala, eguraldia...

J. O. ARRASATE


Goiena telebistako egunerokoa da *Hemen Debagoiena* magazina. Ordubetea, pultsua hartzen dio aktualitateari. Elkarrizketak, erreportajeak, tarte didaktikoak, lehiaketak, informazio zerbitzuak, albisteak... denetik jasotzen du Txomin Madinak aurkeztutako saioak.

Berritasunekin dator, gainera. Dekorazioa eta etxeak ardatz izango dituen tartea; tribiala moduko lehiaketa, herritarrak protagonista izango dituena; Euskal Herritik kanpo bizi diren debagoiendarren kronika edo

testigantzak Skype konexioen bidez; eguraldiari eskainitako tartea, iragarpenekin eta herritarrek bidalitako argazkiekin...

Ohiko tarreak

Eta ohiko tarreak ere bai: astelehenetan, Xabi Urzelai, asteburuko kirolekin; martitzenetan, Maialen Regueiro, sare soziale-tako bitxikeriekin; eguaztenetan, Monika Belastegi, *Puntua* aldizkariari gai nagusiekin; eguene-tan, Mireia Bikuña, asteburuko hitzorduekin; eta egubakoitzetan, Eneko Azkarate, GOIENA aldizkariarekin.



Hemen Debagoiena

- Egunero.
- 18:00/20:00/22:00.

Goienaren magazina. Debagoieneko gertaerak, tokiak, jarduerak, berriak eta pertsonak protagonista dituen saioa. Kanpoko erreportajeak, platoko elkarrizketak eta solasaldiak batzen ditu. *Albisteak* saioarekin batera, eguneroko saio bakarra da *Hemen Debagoiena*, Txomin Madinak aurkeztua.



Albisteak

- Egunero.
- 14:30/16:15/17:00/17:45

Eguneko albistegia. Unean uneko albisteak, egunekoak, azkar eta arin emanak. Lekukoen eta protagonisten testigantzekin osatutakoak. Astelehenetik egubakoitzera bitartean gertakari esanguratsuenak jasoko dira bertan; asteburuan ere lekua izango du informazioak, eta astean zehar izan diren albiste nagusiak bilduko dituen tartea izango da.



Harmailatik

- Astelehena.
- 21:30 eta 23:30.


Debagoieneko kirola eta kirolariak protagonista dituen saioa. Aste bukaerako kirol kronikak, elkarrizketak, erreportajeak, eta abar, protagonisten ahotan. Eskualdeko kirol arloko protagonisten hitz eta albisten berri eman-go du *Harmailatik* saioak. Bailarako kirola sakon aztertuta, Xabi Urzelai Goienako kazetariaren eskutik.



Harira

- Martitzena.
- 21:00/21:30.

Harira saioak bi formatu eskainiko ditu: batetik, elkarrizketa saioa Debagoieneko herri ordezkariarekin, eta gori-gori dauden kontuak landuko ditu Eneko Azkaratek hama-bostean behin, martitzenetan, 21:30ean; bestetik, eztabaida Goiatz Aranek aurkeztuko du eta hama-bostean behin ere elkartuko ditu politikariak, martitzenetan, 21:00etan.



Debagoiena eskualde batua

- Azaroak 7, eguna.
- 21:00/23:00.

Miren Arregiren eskutik, Debagoiena eskualde moduan batzen duena aztertuko du erreportaje bereziak. Bailarak dituen etorkizuneko erronkak eta bere ezaugarriak ere jorratuko dira ikus-entzu-nezko piezan. Erreportajea azaroaren 7an estreinatuko da, 21:00ean, Goiena telebistan.



Debagoienetik Ndank Ndank Senegalera

- Urriak 24, eguna.
- 21:00 eta 23:00.

Bergarako Ndank Ndank elkartearekin batera uda honetan Senegalgo Dione-warko herrian izandako debagoiendar talde batek garatu dituen proiektuak eta abian jarri dituzten ekimenak ezagutzeko aukera egongo da.

'Hala bazan': artxiboko irudirik onenak bueltan

Denboraldi berriarekin batera iritsiko da 'Hala bazan', Arrasate Telebistaren artxibotik tiraka ekoiztako saio berria. Espazioak 90eko hamarkadako irudirik onenak bilduko ditu astero, bailaran iraganean bizitako kontuak gaika antolatu eta landuta

J. O. ARRASATE

Arrasate Telebista 1990ean sortu zen eta, hamar urtez, 2000n Goiena telebista eratu zen arte, bailarako une ugari filmatu zituen. Hain zuzen ere, artxibo horretako irudiek argia ikusiko dute berriz ere, hainbat urteren ostean, Goiena telebistak denboraldi berrira begira ekoiztako saio berriari esker: *Hala bazan*.

Hala, duela hogeita hamar urte protagonista izan ziren une eta pertsonak berreskuratu dira. Hamarkada oso batean zehar Debagoienean bizitakoak, kamerak orduan filmatu zituen bezala, iritsiko dira ikus-entzuleen etxeetara.

Programa ekoizteko, azaldu bezala, Arrasate Telebistaren artxiboan oinarrituko da Goiena telebista; hortaz, Arrasateko herriak protagonismo berezia izango du irudietan. Hala ere, artxiboak ondoko herrietan hartutako hainbat irudi ere gorde-



Arrasate Telebistako artxiboko irudiak. GOIENA

tzen ditu, batez ere ekitaldi berezi edo egun seinatuak hartutakoak, eta horiek ere lekua izango dute *Hala bazan*-en.

Gaika sailkatuta

Urriaren 31n estreinatuko da saioa eta gaika antolatuko da. Hala, saio bakoitzak arlo batean jarriko du fokua, eta, 90eko ha-

markadako herri ezberdinetako jaiak, ekitaldi bereziak, kirolak, kultura, moda edota musika ardatz hartuta, hamarkada oso baten egunerokoa errepatatuko du programak. Julen Iriondo kazetariaren ahotsak gidatuta, orduko unerik gogoangarrienak biziberrituko ditu Goiena telebistak.



Debagoienari buruzko erreportajea.



Senegalen filmatutako irudiak.

Erreportaje bereziak, askotariko errealitateak erakusteko asmoz

'Debagoiena eskualde batua' eta 'Debagoienetik Ndank Ndank Senegalera' ekoizpenak izango dira udazkenean

J. O. ARRASATE

Debagoienean kokatutako erreportaje bereziak, sakon landuta. Gertuko gaiak, hainbat protagonistaren ahotik. Denboraldi berrian, honako hauen gainekoak ikus ahalko dira: *Debagoienetik Ndank Ndank Senegalera* azaroaren 7an eta *Debagoiena eskualde batua* urriaren 24an.

'Ndank Ndank Senegalera'

Bergarako Ndank Ndank elkarteak urteak daramatza Senegalgo Dionewar herriarekin harremanak eta elkarlaguntza

sendotzen. Aurten, lehen aldiz, elkarbizitza eta elkartasun programa bat aurrera eraman dute, eta Debagoieneko 31 herritar han izan dira. Goiena telebistak han bizitakoak bildu du ikus-entzunezko pieza batean.

'Debagoiena eskualde batua'

Miren Arregiren eskutik, Debagoiena eskualde moduan batzen duena aztertuko du erreportaje bereziak. Bailarak dituen erronkak eta bere biztanleen egunerokoa landuko dira.



Osoko bilkura

- Zapatua, 19:00.
- Domeka, 12:00/22:00.


Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko udalen ohiko osoko bilkurak, oso-osorik, herri bakoitzeko berrie-maileen eskutik; Xabier Gorostidi, Jokin Bereziartua eta Oihana Elortza, hurrenez hurren. Hilean behin izan ohi dira herrietako ohiko osoko bilkurak eta eskualdeko herri nagusietakoak osorik grabatu eta emititzen dira Goiena telebistan.



Jaiak

- Martitzena.
- 21:00/23:00.

Festarik festa ibiliko da udazken honetan ere Aitor Agiriano, herriko jai eta egun berezietan gertatuko guztia pantailara eraman da. Goiena telebistako klasiko bilakatu den saioak bailarako herrietako festa eta ekitaldi bereziak lantzen ditu, eta herritarren hitzak eta bizipenak jaso. *Jaiak* saioa arrakasta handikoa izaten da herritarren artean.



Hala bazan

- Urriak 31
- 21:30.


Arrasate Telebistaren artxiboa erabilia, 90eko hamarkadako irudiekin ekoiztako saioa estreinatuko du Goiena telebistak urriaren 31n. Saioa gaika antolatuta egongo da, eta, bakoitzean gai ezberdin bat jorratuz -moda, musika, jaiak, kultura, eta abar-, bailararen orduko egunerokoa ezagutu eta gogora ekartzeko aukera izango da.



Elkarrizketa

- Eguaztena/egubakoitza.
- 21:30/23:30.

Euskal Herriko pertsona ezagunei elkarrizketak, gai askoren inguruan. Astero bi saio estreinatuko dira: eguaztenetan, gipuzkoarra izango da elkarrizketatua; eta egubakoitzean, bizkaitarra. Elkarrizketek ordu erdi inguru iraungo dute eta elkarrizketatua bere ohiko zereginetik harago ezagutzeko aukera eskainiko dute ikus-entzunezko piezek.



Gipuzkoako bertsolari txapelketa

- Eguaztena/egubakoitza.
- 21:00/23:00.

Goierrik, 28 Kanalak, Erlok eta Goienak elkarlanean ekoiztutako saioa ikusgai dago dagoeneko Goiena telebistan. Inaki Apalategiren gidaritzapean, herriz herri jarraipena egingo du saioak abenduaren 14an Donostiako finalera arte.



Huhezinema

- Eguena.
- 21:30/23:30.

Huhezinema film laburren jaialdira aurkeztutako ekoizpenak erakutsiko dira saio honetan. Sortzaileak gertutik ezagutuko ditugu, eta dagokion film laburra ere eskainiko du saioak. Mondragon Unibertsitateak Goienarekin elkarlanean ekoiztutako programa da honako hau, ikasleek egindakoa, eta Maider Donoso gazteak aurkeztuko du.

'Elkarrizkettap': ezagunak gertutik ezagutzen

Euskal Herrian barrena arlo askotariko hainbat pertsonaia esanguratsu, bakoitzaren ofizioaz haratago, gertutik ezagutzeko aukera ekarriko dute Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako hainbat kolaboratzailek egindako elkarrizketek

Aitor Agiriano ARRASATE
Kultura, kirol eta gizarte alorretako euskal pertsonaia ezagun eta esanguratsuei kolaboratzaile ezberdinek egindako elkarrizketak ikusten segitzeko aukera izango da aurrerantzean ere.

Orain arte bezala, bi saio es-treinatuko dira astero eta gipuzkoar, bizkaitar eta nafar ezagun ugari gertutik ezagutzeko aukera ekarriko digu udazkenean ere saioak. Hala, besteak beste, Jon Gomez, Juan Kruz Lakasta,

Joni Ubeda, Ana Goitia, Ane Zabala, Aitor Manterola, Idoia Torregari, Angel Erro, Mikel Idoate eta Anabel Arraiza kolaboratzaileek toki zaindu eta esanguratsuetan egindako solasaldiak izango dira ikusgai.

Usoa Zumeta eta Klaudio Landa
Datorren urriaren 16an, eguaztena, Usoa Zumeta artista gipuzkoarra elkarrizketatuko du Joni Ubeda kazetariak. Eta, urriaren 18an, egubakoitza berriz, *Egunak egin du* saioan aurkezle lanetan diharduen Klaudio Landa kazetaria gertuagotik ezagutzeko aukera eskainiko digu Ana Goitia kazetari eta moda blogariak egin dion elkarrizketak.

Jarraian etorriko dira Abel Barriola pilotari ohiari, Iñaki Elortza irrati esatari erretiratuari, Oihana Azkorbebeitia mendi lasterkariari eta Oskar Alegriari egindako elkarrizketak, besteak beste.



Maidar Arregi oñatiarra Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan. IMANOL SORIANO

'Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 2019', herriz herri

Txapela eskuratzea amets duten 48 bertsolariren lehia jasoko du elkarlanean ekoiztutako saioak

A.A. ARRASATE

Gartzia, Egaña eta Sarasua bertsolariek dioten moduan, "kantatuz, errimatuz eta neurtuz burutzen den berbaldia" izango da ikusgai telebistan: *Gipuzkoako Bertsolaritza Txapelketa 2019*.

Goierrik, 28 Kanalak, Erlok eta Goienak elkarlanean ekoiztutako saioa da, Iñaki Apalategik zuzenduta.

Herririk herri egingo dio jarraipena saioak abenduaren 14an Donostian finala jokatu bitartean; hiru hilabetez, hamasei saio jarraitu ahal izango dira pantailaz bestalde.

Debagoiendarrak bertsotan

Maidar Arregi oñatiarra eta Ane Zuazubiskar arrasatearra, final-zortzirenak jokatura, final-laurdenetan lehiatuko dira. Arregik urriaren 20an izango du saioa, Irunen, eta urriaren 23an izango da ikusgai telebistan. Zuazubiskarrek, aldiz, azaroaren 2an Azkoitian jokatu du final-laurdena eta hil bereko 6an, eguaztena, emango da telebistan. Ainhoa Ibañezek aurkeztuta, astero izango da bertsotan ari-tzeko aukera Goiena telebistan.



Ana Goitia eta Klaudio Landa. DANI SANCHEZ

Huhezinema, film labur eta dokumentalen mundua barrutik

Zinema munduan murgilduko gaitu Maidar Donosok, formatu berriarekin parrilan bueltan den programan

A.A. ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko ikasleek Huhezinema film laburren jaialdiko MU sailera aurkeztutako lanak sakon ezagutzeko aukera egongo da.

Goienak eta Mondragon Unibertsitateak elkarlanean ekoiztutako programa da honako hau, non bertako ikasleek beraien kabuz telebista saio bat ekoizteko aukera izan duten: "Saioak ekoizteko zazpi ikasle bildu gara eta Andoni Goiti Goienako teknikariaren eta Eider Moncayola Ikus-entzunezko ikaslearen

laguntzaz eraman ditugu produkzio eta ekoizpen lanak aurrera", dio saioko aurkezle izango den Maidar Donosok.

Hala, programa bat sortzeko prozesua ezagutu eta landu dute hasietatik amaiera arte: "Pentsatzen genuena baino zailagoa izan da, baina guztiok gogotsu eta prest geunden lanerako eta azken emaitza polita lortu dugulakoan gaude. Gainera, ikaste prozesu zabalari bizi izan dugu, asko ikasi dugu esperientzia honekin eta hemendik aurrera-ko jarraibidean tankerako gau-



Otalora 27 dokumentalaren egileak eta Maidar Donoso, platoon. M.U.

za gehiago egiteko gogotsu eta prest gaude".

Sei atal eta askotariko gaiak

Sei atalez osatuta egongo da edizio berria eta orotariko gaiak landuko dituzte, zinema mun-

dura gerturatuz: LGTB kolektiboa, gizartearen muga psikologikoak, ehiza eta Aretxabaletako Otalora 27 eraikinaren etorkizunaren inguruan jorratutako lanen inguruan arituko dira saioen egileak.

Lan horien sortzaileak gertutik ezagutzeaz gain, gauzatu duten labur edo dokumentalaren nondik norakoa aterako dute argitara: lan prozesua kontatu eta beste hainbat bitxikeria ere ezagutzera emango dituzte unibertsitateko platoon bertan grabatu dituzten atal ezberdinetan.

Horrez gain, talde bakoitzaren laburra edo dokumentala osorik izango du ikus-entzuleak ikusgai.

Hala, eguenetan, gaueko berderatzi eta erdietan eta hamai-ka eta erdietan, film labur eta dokumentalen munduan murgiltzeko aukera izango da udazkenean: urriaren 17an, *Min ez-kutuak*; urriaren 31n, *Mugak hautsiz*; azaroaren 14an, *Taupadak*; eta, azkenik, azaroaren 21ean, *Otalora 27* dokumentala izango dira emisioan telebistan.

Bidaiatzeko gomendioak jaso dituzte erretiratuek

Kontsumitzaileak eskubideak ditu, baina betebeharrak ere bai. Ezuste txarrik ez izateko gomendio praktikoak eman ditu Begoña Olabarrieta kontsumo adituak. Urriaren 23rako beste hitzaldi bat dago iragarrita. Ohiko iruzurren gainean izango da

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Xalbadorpe erretiratuaren elkar-lanean Kontsumobiderek elkar-lanean antolatuta, bidaiarien eskubideen eta betebeharren inguruko hitzaldia egin du Begoña Olabarrieta kontsumo hezitzaileak Elgetan. "Bidaia agenzien bitartez egiten ditugu erreserba gehienak, eta argi eduki behar dugu bidaia agentzia denda bat dela. Uste duguna baino zerbitzu gehiago saltzen ditu, gainera", argitu du Olabarrietak. Kontsumitzaileak eskubideak dituela ukatu barik, betebeharrak ere badituela azpimarratu du. "Informazioa eskatu, egiaztatu eta alderatu egin behar du kontsumitzaileak, eta hori, kontratua sinatu eta baldintzak onartu aurretik".

Idatzizko kontratua eskatzea eta agiri guztiak ondo gordetzea oso garrantzitsua dela esan du. "Legeak dio idatziz ematen diguten informazioa egia izan behar dela eta derrigor bete behar dituztela bertan agertzen diren baldintzak. Beraz, publikitate eta liburuxkak lotesleak dira, eta gordetzea komeni da. Edozein erreklamazio ipintzeko, dokumentazioa eskatuko digute. 'Esan zidaten', 'nik uste nuen' eta halakoek ez dute erreklamazio batean ezertarako balio".



Begoña Olabarrieta eta Pello Ojanguren, Kontsumobiderek hitzaldia aurkezten. L.Z.L.

SINATU AURRETIK ESKATU BEHAR DA INFORMAZIOA, ETA GORDE EGIN BEHAR DA DOKUMENTAZIOA

Online bidezko kontratazioekin berdin jokatu behar da. "Informatu, plataforma digitala legala eta fidagarria dela egiaztatu, eta beste bidaiari batzuen iritziak zein argazkiak kontuan hartu behar dira", esan du adituak.

Bidaia aseguruekin ere kontuz ibiltzeko aholkatu du. "Ondo begiratu zer estaltzen duten. Aseguru ugari ditugu gaur egun, eta, akaso, badugu aurretik estaldura hori". Herrialde bakoitzeko ohiturak ezagutzea ere komeni dela esan du Olabarrietak. "Leku batzuetan, propinak eman behar izaten dira. Ez badakigu, aparteko gastu bat izango da. Bestalde, herrialde batzuetan, ogia eta edariak ez dira menuaren prezioan sartzen. Aurretik ez jakitea ezuste handia izan daiteke".

Urriko azken astelehenean, Gernikara

Errioxan izan ziren herriko erretiratuak irailean, eta Gernikara egingo dute txangoa hilaren 28an. Interesatuak hilaren 20an eman behar dute izena, Ozkarbi elkartearen, 11:00etatik 12:00etara. Prezioa 30 euro da.

Urriko podologia kontsulta, berriz, hilaren 17an izango da. Txanda hartzeko, deitu egin behar da: 943 76 80 77 (Nati).



Elgetako erretiratu taldea irailean Errioxara eginda irteeran. XALBADORPE ELKARTE

GORA ETA BEHERA



Bertakoak ez diren dortokak Aixolan



Gero eta gehiago dira Aixolan ikus daitezkeen dortokak. Zortzi bat kontatu ditu irakurle batek aurreko astean. Etxerako erosi eta aspertutakoan edonon askatzea ez dagoela ondo dio.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Egoarbitzako herri sailak auzolanean garbitzeko deia

Azken urteetan moduan, Udalak urriaren 12rako egin du auzolanean garbitzeko deia. "Udalak, pasa den urtean, kanpoko enpresa baten bidez egin zituen arlo batzuetan garbitze-lan batzuk, eta aurten ere aurreikusten dugu lan horiekin jarraitzea, baina ditugun baliabideekin ezin gara denera iritsi. Horrenbestez, auzolana deitzeak, lehengo ohiturak be-

rreskuratzeaz gain, Udala iristen ez den lanak burutzea du helburu", adierazi dute Udaleko ordezkariak. "Beraz, dei bat elgetar guztiei, bereziki mendiak gehien erabili eta maite dituzten herritarrei, aspaldian gehituz doazen mendizale taldeei, inguruan ugari ditugun ehiztariei eta ekologistei, baita pinuzaleei eta naturistei", gaineratu dute.

Taldea 08:30ean elkartuko da, Mendizaleen plazan, zapatuan. Hamarretakoa, aurrekoetan moduan, Udalak ipiniko du.



INTXORTAKO LEHOIAK

Intxortako Lehoiak, Mallorcan

Athletic taldeko Elgetako lagunartekak hainbat irteera egin berri ditu. Mallorcan izan ziren taldearen partidua ikusten eta Laudioko Zaleak lagunartekaren inaugurazioan, berriz, eguaztenean. Urriaren 19an, Vigora joango dira taldearen partidua ikustera, eta urteko batzar orokorra deitu dute: urriaren 26an egingo dute, 13:00etan, Bolatoki tabernan.



Bedelkarko kideak eta Udaleko ordezkariak Oxirondo atarian, martitzen arratsaldeko prentsa agerraldian. JOKIN BEREZIARTUA

Denboraldi berriko moda Oxirondon

Denboraldiko moda produktu berriez osatutako Pop Up azoka antolatu dute Bedelkarrek eta Udalak urriaren 19rako eta 20rako; sei orduz egongo da zabalik azoka berezia Oxirondon, eta 18 stand, pintxo-potea eta 300 euroko zozketa izango dira, besteak beste

Jokin Bereziartua BERGARA

Bedelkar merkataritza elkar-teak, Udalarekin elkarlanean, Pop Up azoka antolatu du urriaren 19rako eta 20rako. Zer den Pop Up azoka? Labur azalduta, denboraldiko produktu berriak aldi baterako azoka baten eskuragarri jartzea. 2016an, birritan egin zuten, San Martin plazako Biltoki denda ohian, eta aurten, bueltan datoz, baina Oxirondon egitea erabaki dute. Oxirondo leku oso aproposa dela uste dute eta espero dute bergararrek erantzungo dutela. "Leku egokia da sektoreen arteko sareak sustatzeko". Izan ere, Bedelkarko ordezkariak argi dute herriak halako ekitaldiak merezi dituela.

Pop Up azoka, sei orduz zabalik Urriaren 19an, zapatua, 18:30etik 22:00etara egongo da zabalik

Oxirondoko Pop Up azoka eta domekan, urriak 20, 11:30etik 14:00etara egongo dira. 18 postu izango dira guztira eta denboraldiko moda, oinetako, osagarri eta dekorazio produktuak izango dira protagonista.

Pintxo-potea eta zozketa

Pintxo-potea ere antolatu dute azokara gerturatzen diren herritarrentzako, eta, ekimena amaitu aurretik, asteburuan zehar Pop Up azokan erosketaren bat egiten duten herritarren artean 300 euro zozketatuko dira Udaleko bonutan.

2016AN EGIN ZEN POP UP AZOKA LEHEN ALDIZ; AURTEN ITZULI DA, ETA OXIRONDON EGINGO DUTE

Gainera, aurreratuta dute Oxirondoko azoka modu berezian argizatuta eta apainduta egongo dela asteburuan. Helburua delako herriko sektore baten partetik jasotzen duten babesa eskertzea: "Ekimen hau bada modu bat negozioek herritarrek eskaintzen dieten fidelizazioa eskertzeko eta denboraldiko produktuak jendaurrean eskuragarri jartzeko", adierazi zuten Bedelkarko ordezkariak martitzen arratsaldean Oxirondon bertan egindako prentsa agerraldian.

Udalaren babes faltarik ez

Izan ere, ez dira betiko garai onenak tokiko merkataritzarentzat; gertutasuna, herriari bizitza ematen jarraitzea eta erosketak herrian bertan egitearekin sentsibilizatuta dagoen jendea ondo zaintzea dira Bedelkarren

"Jasotzeko, herriari eman egin behar zaio"

MAITANE AZKARATE
BEDELKAR-KO PRESIDENTEA

Merezi du halako ekintzak antolatzeko hartzen duzuen lanak? Nolako harrera dute? Hilabete batzuk lehenago hasten gara gure ideiei forma ematen; badirudi ezetz, baina bilera batzuk egin behar izaten ditugu. Baina beti merezi izaten du, jendeari gustatzen zaio herrian halako ekintzak antolatzea, eta, normalean, ondo erantzuten du. Herriari eman egin behar diogu, gero guk bueltan jaso ahal izateko.



J.B.

Nolako etorkizuna dauka herriko merkataritzak?

Garai zailak dira, baina badago herrian jendea erosketak bertan egitearekin sentsibilizatuta dagoena. Gertutasuna eta herriari bizitza ematea dira gure balio bereizgarriak eta horiekin sendo jarraitu behar dugu. Internetaren kontra ezin dugu ezer egin; gure neurrian, baina Internet bidezko salmenten munduan sartzen joan beharko gara pixkanaka.

"Merkataritza plana berrituko dugu 2020an"

AINHOA LETE SUSTAPEN
EKONOMIKORAKO ZINEGOTZIA

Elkarlanaz harago, ze asmo duzue komertzio txikiarentzat? Hurrengo urratsa izango da merkataritza biziberritzeko plana berritzea. Azkena 2012koa da, eta zaharkituta geratu da. 2020 hasieran berri bat egiten hasiko gara; lanketa sakona egitea da asmoa, helburu zehatzak finkatuta. **Azterketa sozioekonomikoa ze puntutan dago?** Azterketa egiteko azken elkarriketak bukatu berri



J.B.

ditugu, eta espero dugu datozen asteetan dokumentu bat aurkeztea. Arlo guztietan asko aldatu da Bergara azken urteetan, eta badago behar bat jakiteko gure herria ze egoeratan dagoen. Behin egoera zehatza zein den jakinda, etorkizunean izango ditugun erronkak identifikatu nahi ditugu. Hainbat eta hainbat eragilerek inon gara, Bergara nora begira jarri nahi dugun guztion artean hausnartzeko.

oinarriak, baina gaur egungo presidente Maitane Azkaratek uste du "pixkanaka eta, betiere, euren neurrian" Internet bidezko salmentarako urratsa eman beharko dutela. Pop Up azoka 2016an egin zen lehenengoz eta hiru urtetan ez dute antolatu,

URRIAREN 19AN ETA 20AN SEI ORDUZ EGONGO DA ZABALIK; PINTXO-POTEA ETA ZOZKETA EGONGO DIRA

eta, ekimenak jarraikortasunik izango duen galdetuta, Azkaratek honako hau dio: "Betri ari gara ekitaldi berriak pentsatzen eta antolatzen eta aurten Pop Up azoka berreskuratzea erabaki dugu. Ikusiko dugu jarraituko duen, ea ze emaitza ematen dituen". Udalaren babesik, behintzat, ez zaie faltako. "Bergarako komertzioa herriko bizitzarako eta bertako ekonomiarako garrantzitsua den heinean, elkarlanean jarraituko dugu", adierazi du Sustapen Ekonomikorako zinegotzi Ainhoa Letek.

Jakin-mina erretiratu ez zaielako, Kulturaldia

San Joxepe elkartearen Kulturaldiaren barruan, askotariko hitzaldi, bisita gidatu, erakusketa eta ospakizunak izango dituzte; Jon Maia bertsolariaren 'De Extremadura al bertsolarismo' saio arrakastatsurekin hasi ziren, eta hilaren 20ra arte iraungo du

Jokin Bereziartua BERGARA

San Joxepe erretiratu elkartearen urteko mugarrietako bat izaten da Kulturaldia. "Kulturaldia eta 87 urte betetzen dituzten bazkideei egiten zaien omenaldia izan ohi dira urteko gure ekitaldi garrantzitsuenak", adierazi du aurtengo martxoaz geroztik elkartearen presidenten Roberto Kareagak. 87 urte betetzen dituzten bazkideak omentzearena aspaldiko ohitura da; jatorria du hasieran elkartearen kideak 87 urterekin ohorezko bazkide izendatzen zituztela. Gerora, baina, herri osora zabaldu zuten ekimena.

Gaur egun, 1.800 bat bazkide

Presidente moduan egin dituen lehen sei hilabeteak lan handikoak izan direla aitortu du Kareagak: "Lanpetuta nabil, egin behar askorekin. Lan handia da, baina gustura egiten dena". 1.800 bat bazkide ditu San Joxepe egun, eta horietatik 1.200 inguru dira urteko kuota ordaintzen dutenak. Ohiko kuota bederatzi eurokoa da urtean eta 81 urtetik 85 urtera artekoek bost euro ordaintzen dute: "Kuota sinbolikoa da, eta, gainera, 85 urtetik gora dutenek ez dute kuota ordaintzen; azken adin tarte horretako bazkideak gero eta gehiago dira".

Hainbat ekitaldi hilaren 20ra arte

Jon Maia bertsolariaren *De Extremadura al bertsolarismo* hitzaldiarekin hasi zuten Kulturaldia. "Bere jatorriaz aritu zen, landu beharreko gaia. Saio polita izan zen". Atzo, hilak 10, bisita gidatu bat egin zuten Oñatin eta gaur arratsaldean bi ekintza izango dituzte: 15:30ean ume-jolasak eta 18:00etan Jon Molina parrokoaren *Europako kristau sustraia* hitzaldia. Gainera, asteburu honetarako askotariko eskulanez osatutako erakusketa izango dute elkartearen



Eguazten iluntzeko Jon Maiaren hitzaldiak interes handia piztu zuen. GOIENA

ikusgai, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Astelehenean, hilak 14, sendabelarren gaineko hitzaldia emango du Jose Antonio Apeirriak, elkartearen (19:00). Urriaren 15erako irteera bat antolatu dute: Lodosara (Nafarroa) joango dira, Peron kontserben enpresa ezagutzera. Kulturaldiaren azken txanpa bete-betea izango dute: urriaren 16an, Donostiako Itsuen Oroimenak taldeak *Algo habrán hecho* antzezlanaren interpretatuko du Seminarioan (17:00); urriaren

17an, San Joxepeko eta Oñatiko erretiratuaren abesbatzaren kontzertua izango dute Seminarioan (19:30); urriaren 18an, iaz sekulako arrakasta izan zuen Jose Mari Larrañagaren Bergarako historiaren gaineko hitzaldia izango dute, elkartearen (19:00); urriaren 19an, bolo, toka eta igel txapelketak izango dituzte elkartearen (18:00); eta bukatzeko, urriaren 20an, bazkaria, oparien banaketa eta dantzaldia izango dute elkartearen Aitonak jatetxean (14:00). Bazkariaren prezioa 30 euro da.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Rokodromoa egin dute Angiozarko frontoian



Angiozarko eskola txikiko guraso batzuek egindako rokodromoa txalotu du herritar batek. Mandala eder batekin apaindu dute, gainera; Arbiaska pilotalekuan dago rokodromo berria.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

OHARRAK

Gripearen aurkako kanpainaren hasiera

Urriaren 14an hasiko da, anbulatorioan. Txertoa jartzeko ordutegia izango da 10:00etatik 17:00ak arte, baina alde zuzenetik txanda eskatu beharko da. Azaroaren 29ra arte iraungo du. Argibide gehiagorako deitu 943 03 54 00 telefono zenbakira.

Martxan da Kopla Barik bertso eskola

Eguazteneko elkarten dira, kartzela zaharrean (19:00). Jardunek gogoratu du ateak zabalik dituztela: "Gerturatu probatzera!".

EreinDaJan topagunea zabalik egongo da bihar

Hispanitatearen Egunean "ospatzeko ezer" ez dutela-eta Joan XXIII.a plazan dagoen denda ez dute itxiko bihar (681 66 08 63).

Hauteskundeak: EAJren posta bidezko botoa

Bulegoa ireki dute batzokian, goizez 11:00etatik 12:30era eta arratsaldean 18:00etatik 20:00etara. Argibide gehiago: 943 76 47 00.

1959an jaiotako ospakizuna

Urriaren 26an Tartufon afalduko dute. Autobusa 21:00etan irtengo da Oxirondotik; izena emateko 30 euro ordaindu behar da, hilaren 18a baino lehen: ES29 3035 0009 15 0091155238 (Laboral Kutxa).

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

UGARTE

AROTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak - Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak - Eskailerak -
Leihoak - Tarimak -
Egur lanak

21
K
KALITATA
Enpresa Registrada V00025



Bergarar askorentzat, familian igarotzeko goiza izaten da, belaunaldi berriak sentsibilizatzeko; irudian, 2017ko garbiketa. GOIENA

Erreka garbitzeko gertu dauden bergararren bila

Urriaren 19rako zehaztu du Erreka Garbiketarako Batzordeak, Udalarekin elkarlanean, aurtengo auzolanerako hitzordua, eta dei egin diete herritarrei izena eman dezaten; gainera, sentsibilizatorako beste ekitaldi batzuk ere antolatu dituzte datorren asterako

Jokin Bereziartua BERGARA

Urte luzetako ohitura da Bergaran urtean behin gutxienez erreka garbitzeko auzolana antolatzea. Aurtengo hitzordua urriaren 19rako zehaztu du Erreka Garbiketarako Batzordeak, Udalarekin elkarlanean. Urtez urte erreka gero eta garbiago badago ere, urtero bete ohi dira hiru kamioi errekatik jasotako zaborrekin. Familian pasatzeko goiza izaten da hainbat bergararentzat, belaunaldi berriak ibaiak garbi mantentzearen beharraz kontzientziatzeko balio izaten du eta.

Izena emateko lau modu daude

Goiz osorako egitaraua prestatu dute. Elkartzeko hiru leku zehaztu dituzte: Seminarioko patioa, Labegaraietako kiroldegia eta Osintxu. Aurretik izena eman beharra dago, Erreka Garbiketarako Batzordeak garbiketa ahalik eta ondoen antola dezan. Lau modu daude izena emateko: Udaltzaingora jota, Agorrosinen,

errekagarbitzeko@gmail.com helbide elektronikora idatzita eta *www.bergara.eus* webgunean.

Urriaren 19an 08:30ean elkartuko dira hiru leku horietako batean eta 13:30ak arte errekatik zaborra batzen arituko dira. Hala ere, 11:00etatik 13:00etara, umeei zuzendutako jarduerak izango dira Usondo parkean; 3 eta 5 urte artekoek mural bat margotuko dute eta kareta egingo dituzte, eta 5 urtetik gorakoek ibaiaren ekosistema berreraikitze ariketa bat egingo dute. Gero, 13:30etik aurrera, hamaiketako izango da parte hartzaile guztiendako. Urte batzuetako gorabeherak gorabehera, 200 lagun elkartu izan dira erreka garbiketan; gero eta jen-

SEMINARIOAN, LABEGARAIETAN ETA OSINTXUN ELKARTUKO DIRA; HAMAIKETAKOA EGONGO DA AMAIERAN

de gehiago egoteak zabor gehiago batzea esan nahi duenez, antolatzaileek dei egin diete bergararrei garbiketa lanotan parte har dezaten.

Sentsibilizatorako ekimenak

Aurten, nobedade moduan, ibaiaren zaintzaren inguruko sentsibilizazioa lantzeko Udalak zenbait ekimen antolatu ditu erreka garbiketaren bueltan. Herriko ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako ikasleekin ibaiaren garrantziaz eta zaborren ibilbideaz jardungo dute. Bestalde, urriaren 17an *Ibaia, bizitzaren ardatza* izenburu duen hitzaldia izango da Laboratorium museoan, 18:30ean. Debegesa garapen agentziako jasangarritasun teknikari Aitziber Kortazar eta Diputazio uraren kontrolerako eta kalitaterako unitateko arduradun Iñaki Bañares izango dira hizlariak. Gainera, *www.bergara.eus* webgunean Deba ibaiarekin konpromisoa indartzeko edukiak argitaratuko dituzte.

HERIOTZA-OHARRA

Andres Egaña hil da, Loiola Batailoiko gudari bergararra

Urriaren 2an hil zen, 100 urte zituela; gerran "gorriak" bizi izan zituztela esan zuen 2017an egin zioten omenaldian

J.B. BERGARA

Urriaren 2an, 100 urte zituela, hil zen Andres Egaña, Loiola Batailoiko Bergaran bizi zen azken gudaria. Egañak eta Inazio Ernabidek omenaldia jaso zuten 2017ko maiatzean; Udalak eta Intxorta 1937 Kultur Elkar-teak antolatu zuten ekitaldia, eta 36ko gerran Euzko Gudarostean borrokatu ziren bergarar guztiak aitortzeko balio izan zuten. Omenaldi hartan, umorez

eta gorrotorik gabe gogoratu zituen Egañak gerraren bueltan biziakoak: "Gorriak bizi izan genituen, baina bukatu zen [...]. Omenaldiarekin oso pozik gaude, eskertzekoa da". Loiola Batailoia Euzko Gudarosteko lehen batailoia izan zen. Gernikan osatu zuten gerrak eztanda egin ostean borrokara joandako EAJ-ko gazte gipuzkoarrek; Lino Lazkano bergararra izan zen Loiola Batailoiko kapitaina.



Egaña (ezkerrean) eta Inazio Ernabide, 2017ko maiatzean jaso zuten omenaldian. I.S.



SORTU

"Lozorrotik ateratzeko" beharraz

Interesa piztu zuen Sorturen eta Iratzar fundazioaren Eskola Herritarraren lehen saioak. Ane Miren Alberdi Elgetako euskal preso ohiaren testigantzen ostean, lantaldeetan jarri ziren hainbat gogoeta egiteko: "Lozorrotik atera eta indarrak batzea da oraingo estrategia". Bigarren saioan, Bergarako militanteak izango dira protagonista; urriaren 16an izango da, Irizarren (19:00).



Feriako antolatzaile eta laguntzaileak, pintxoak prestatzen. GOIENA

Ganadua baino gehiago eskaintzen duen feria

Egun osoko egitaraua prestatu dute biharko Elosuan. Mendiko ganadu feria egingo dute, 09:00etan hasita. Horrez gain, artisauak eta bertako produktuen postuak egongo dira. Bergararik Elosura joateko autobus zerbitzua jarri dute 09:30etik 15:30era

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA Elosuko 41. mendi ganadu feria ospatuko dute bihar, zapatua. "Eguraldiak laguntzen badu, 2.000 eta 3.000 lagun artean izan ohi dira auzora bisita egiten dutenak eta lanean 80 lagunek baino gehiagok jarduten dugu dena ondo joan dadin", dio auzoalkate Iñigo Zubeldiak. Feriaz gain, haur, gazte eta helduendako askotariko ekintzak izango dituzte egunean zehar.

Pintxoak 2 eurotan

Hirugarren urtez jarrian, labeldun txahala erreko dute, pintxoak egin eta saltzeko. Aurten, Aitzerrera baserrian hazitako txahala izango da erreko dutena; iaz, Agerreko Balentinenaren baserrikoa izan zen; eta 2017an, Bentaosteko baserriko Marijoserena. Harrera ona izaten du; aurten ere, 1.200 pintxo inguru ateratzea espero dute, eta pintxo bakoitza bi eurotan salduko dute. Erretzailea Karlos Ibarrondo elorriarra izango da aurten ere. Gaur,

barikua, 22:00 aldera, hasiko da lanean, eguerdirako txahala eskaini ahal izateko.

Eguneko egitaraua

Feria 09:00etan hasiko dute. Goizean, artisauak eta bertako produktuen saltzaileak izango dira; ogi, gozogile, gazta, ezti, perretxiko eta askotariko elikagaiak batuko dira plazan, eta beheko zelaian bestelako postuak egongo dira. 11:00etatik 14:00etara, umeendako puzgarriak jarriko dituzte; 12:30ean, bertsolariak arituko dira frontoian: Julio Soto eta Iban Urdangarin, eta jarraian, Laja II.a eta Lurtxurdi trikitilariak. Bazkalondoren, Soto eta Urdangarin bertsolariak kanta-tuko dute berriro.

LABELDUN TXAHALA ERREKO DUTE ETA PINTXOAK BI EUROTAN SALDUKO DITUZTE

17:30ean, herri kirolen erakustaldia hasiko dute. Aizkoran, Otano eta Mugertza aurrez aurre arituko dira hiru lanetan: 60 ontzako enborrekin, enbor bat azkarrago nork ebaki eta sei enbor nork lehenago ebaki. Ondoren, Goenatxo III.a harri-jasotzailearen txanda izango da: 175 kiloko errektangularrarekin, 113 kiloko kubikoarekin eta 100 kiloko borobilarekin arituko da.

Kirolen tartea amaitutakoan, Laja II.ak eta Kutxurdiok erromeria giroa jarriko dute.

Autobus zerbitzua

Feriara joateko autobus zerbitzua ipini dute Bergararik, 09:30etik 15:30era bitartean. Burdiñaten egongo da autobus geltokia.

"Dirulaguntzen dirua ez da nahikoa izango. Aparkalekuak, postuek eta eskaintzen ditugun mokaduek osatzen dute gure finantzaketa. Gaur egungo feriaren kostua 12.000 euro ingurukoa da", dio Zubeldiak.

'Serge'-ren bakarkako lehen lan intimista eta akustikoa

Bule tabernan eskainiko du emanaldia gaur, egubakoitza, 23:00etan: 'Enarak itzuli dira' diskoa aurkeztuko du

A.E. BERGARA

Zarauztarra jaiotzez, Arrasaten bizi da azken urteetan Sergio Ruiz *Serge*. Ezagun egin zen Eraso! eta Osso taldeko kide izateagatik; orain, bakarlari moduan dator. Aspalditik buruan zuen bakarkako lehen proiektua mamitu du modu intimista eta akustikoa: *Enarak itzuli dira* da lehen lan horren izena.

Gari Berasaluzeren poemak

Haurtzaroan zein nerabezaroran ikaskide izan zuen Gari Berasaluzeren poemak musikatzea zen *Serge*-ren nahia. Hala, hori jasotzen du disko berriak: zortzi abesti ditu lanak.

Disko honen emaitza musika akustiko moderno edo garaikidea bezala definitu daiteke: berritzailea batzuetan, pop aldarririk bestetan eta folk ukitua duten momentu ilunak.



Serge musikaria. BULEGO IBILTARIA

Serge sentikor ageri da bilduma horretan eta bihotz barre-netik eginiko lana dela nabari zaio lehen estrofatik. "Sorkuntza borobila, intuitiboa eta emozioz jantzia" dela diote adituek.

Bule tabernan eskainiko du zuzenekoa, 23:00etan.

Gaur inauguratuko dute Egurenen gaineko erakusketa

Gaur, barikua, zabalduko dute *Eguren 1927-1976* erakusketa, 19:00etan. Moises Eguren margolari eta apaizak margotutako lanekin osatutako erakusketa izango da; guztira, 44 lan jarriko dituzte ikusgai. Antton Arri-llaga, Jose Luis Azkarate eta Xabier Arregi ibili dira Egurenen lanak bilatu eta katalogatzen. Guztira, 107 pieza bilatu dituzte.



Egurenen autorretratu.

'Lur' antzezlan eskainiko dute zapatuan, 19:00etan

Xake produkzioak *Lur* antzezlaneroango du Seminarixora. Familia guztiari zuzendutako antzezlan da. Julianek bere biloba Aneri oparitutako pantina batekin desioak betetzen dituen izar magikoaren bila egingo duten bidaiak kontatzen du. Bihar, zapatua, izango da emanaldia, 19:00etan, Seminarixoran, 4 euroren truke.

'Capricornio uno' filma eskainiko dute Dynamo zineklubean

Kartzela zaharreko Dynamo zineklubak *Ibilgailuak* gaia hartu du oinarri urriko emanaldietarako. Hala, urriaren 16an, *Capricornio uno* (1977) filma eskainiko dute, 21:00etan. Peter Hyams zuzendariaren lanak Marten egindako lurreratze faltsu bat du oinarri. *Aterrizko puegas* eta *El submarino* izango dira hurrengo emanaldiak.

"Entzun eta sentitu egin behar da organoa"

OSCAR CANDENDO ORGANO-JOLEA

Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloaren baitan, urriaren 19an, Oscar Candendo antzuolarrak emanaldia eskainiko du Bergarako Santa Marina parrokian

Maidar Arregi ANTZUOLA

Ogibidez organo irakaslea eta kontzertista da Oscar Candendo antzuolarra. Egun, bera da Donostiako Artzain Onaren katedraleko organo-jolea.

Ze sentsazioekin etorriko zara Organo Erromantikoaren Ziklora?

Bergarako Santa Marinako organoa ezagutzen dut eta datorren astean joango naiz emanaldia aurrez prestatzera.

Organoarekin aurrez hartu-eman izatea beharrezkoa da, ala?

Guk lan asko bertan egin behar dugu; ez gara beste musikariak bezalakoak. Izan ere, ez daude bi organo berdin, eta aurrez landu behar dugu erreperitorioa. Ni une honetan Leongo katedralan nago; kontzertua bi egun barru den arren, aurrez landu behar dut eta aurrez ezagutu, erregistroa prestatzeko. Noski, obrak aurrez ikasi behar dira, musikari guztiek bezala, baina gero, lekura egokitu behar duzu.

Bailaran organoak bere lekua egin duela esan daiteke?

Esan beharra daukat Gipuzkoan organo oso onak ditugula. Hiru organo onenen artean, Bergarako San Pedro parrokiakoa dago, nire ustez. Beste biak Donostiako Koruko Andre Mariaren basilikakoa eta Azkoitiko Santa Maria parrokiakoa dira. Estilo ezberdinetako organoak daude, arkitekturan moduan. Organo barrokoa, erromantikoa... Gipuzkoan organo erromantikofrantses asko dago. San Pedrokoa estetika horren barruan dago. Gipuzkoan dagoen altxor artistikoa da organoa.

Bergarakoa berezia omen da.

Entzun eta sentitu egin behar da organoa. Bakoitzen soinuak, erregistroak... bereziak dira. Bergarakoaren kasuan, oso onak. Mundu guztitik etortzen dira. Aipatutako hiru organo horiek Europa eta Ameriketako oso ezagunak dira eta grabaketak egiten dira bertan, gainera.



Oscar Candendo organo-jolea. OSCAR CANDENDO

"PENA DA ANTZUOLAKO ORGANO ELIZAREKIN BATERA EZ BERRITU ZANAN"

Bailaran organo emanaldiekiko zaletasunik badago?

Azpimarratu behar da koru eta organo emanaldiak direla. Biak eskutik datoz. Bergarako Orfeoia oso ezaguna da eta tradizio asko dago. Organoa koruarekin erakargarriagoa dela esango nuke. **Bergarako emanaldian ere korua izango duzu lagun.**

Bai, noski. Kasu honetan, Easo gazte taldearekin batera eskainiko dut emanaldia. Korua 16-18 urte arteko nesken ahots zuriek osatzen dute, eta organoaren laguntzarekin abestuko dute. Bi edo hiru pieza joko ditut, eta, beraz, organoa ere entzungo da. Esan behar da Santa Marinako organoa ere oso ona dela; alboan San Pedrokoa izanda nahi gabe sortzen diren arren konparazioak. Baina biek eskaintzen dituzte aukera onak, bakoitza bere erregistroekin, jakina.

Antzuolako organoak soinu polita daukala ere badiozu.

Bai. Antzuolan, XVIII. mendeko organoa zegoen; orain dagoen organoak badiu orduko erregistro zahar batzuk. Bi erregistro inguru aprobetxatu zituztela uste dut. Soinu oso polita dauka eta akustika oso ona dago. Eliza oso ondo zaharberritua dago, baina organoa ez zen berri. Aurrekontuaren barruan egin zitekeela uste dut, ez da organo handia-eta, baina... ez dakit zer pasa zen; pena da eliza horren eder zaharberritzea eta organoa hor dagoela ahaztea.

Nola hasi zinen organo-jole?

Pianoa ikasi nuen Mariaren Lagundian eta domekero entzuten nuen organoa Antzuolan. 11 urterekin Donostiara joan ginen bizitzera. Jose Manuel Azkue zen basilikako organista eta haren kontzertu batean ohartu nintzen zaletasunaz.

Donostian bizi; Bartzelonan lan.

Bartzelonan 19 urte daramatzat organo irakasle, goi mailako musika eskolan. Bizi, Donostian. Artzain Onaren katedraleko organo jolea ere banaiz; eta Easo abesbatzarekin kontzertuak ere eskaintzen ditut.

Elikadura eta ahotsa, 'bizitzaren bi oinarri nagusiak' Pikunietan

Baserritarren ahotsa ozen entzun zen Pikunietan pasa den zapatuan egindako 'Biziaren ahotsak' ekimenean

Maidar Arregi ANTZUOLA

EHKolektiboaren parte diren baserrietako lana eta agroekologia gertutik ezagutzeko aukera izan dute herritarrek. Batzuk, baserri mundutik gertukoak; beste batzuk, aldiz, horren gertu ez daudenak baina kolektiboaren filosofia eta mugimenduarengandik hurbil daudenak.

Hala, Antzuolako Pikunieta baserrian elkartu zirenek baserriaren bertso bisita ilustratuaz gozatzeko aukera izan zuten. Baita Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsoetan entzutekoa

ere. Saiorearen ostean, bazkaria egin zuten eta Pikunietan ekoiztutako produktuak dastatu zituzten.

Bizitzaren "bi oinarrietara"

Proiektu honekin, "bizitzaren bi oinarrietara" jo nahi izan du EHKolektiboak: elikadura eta ahotsa. "Horiek baitira, gure ustez, biziaren bi oinarri, funtsezkoak, ezinbestekoak biziko bagara. Elikadura gure bizirau-penaren oinarria da; jan gabe, hil egiten gara. Eta, halere, zer garrantzi txikia ematen zaion".



Amets Arzallus eta Maialen Lujanbio. IMANOL SORIANO



Pikunieta baserrian egindako bisita gidatua. IMANOL SORIANO

Kontsumobideren eskutik bi tailer praktiko, urrian

Landatxoep erretiratuen elkar-teak antolatuta, eta Kontsumobideren laguntzarekin, bi hitzaldi eskainiko dituzte urrian, Olanan aretoan. Lehenak publikitatearen trikimailuak izango ditu ardatz eta bigarrenak, bankuek eskaintzen dituzten zerbitzuak.

"Hitzaldiak baino gehiago, tailerrak izango dira; adibide

praktikoak izango dituzte hobeto uler dezagun gai bakoitza", argitu du Landatxoepko idazkari Pilar Etxanizek.

Hala, urriaren 21ean, astelehena, *Publizitatearen trikimailuak izeneko* tailerra izango da, arratsaldeko bostetan hasita.

Urriaren 28an, astelehena, *Banku zerbitzua* tailerra izango da, bostetan hori ere. "Esan moduan, adibideak jarriko dira eta herritarren eskubideak azalduko dira. Fakturen irakurketa ere egingo da adibide gisa".



Antzuolako Haur Dantzarien Eguneko emanaldi nagusia, Herriko Plazan. GOIENA

340 bat haur dantzarik kaleak alaituko dituzte

Antzuolako Haur Dantzarien Eguna opatuko da urriaren 20an, domeka. Antzuolako Oinarin dantza taldeaz gain, sei herri ezberdinetako dantza taldeek parte hartuko dute. 210 haur dantzari batuko dira eta etxeetara, bazkaltzera, jasotzeko dei egin dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

Bi urtean behin ospatzen da Antzuolako Haur Dantzarien Eguna. Hala, datorren urriaren 20an, domeka, askotariko dantzez eta jai giroz beteko dira herriko kaleak; zazpi herri ezberdinetako zortzi dantza talderen emanaldiak gozatzeko aukera izango dute herritarrek egun osoan zehar.

Antzuolako Oinarin dantza taldeko kideek buru-belarri dihardute azken entseguak egiten eta azken orduko antolakuntza lanak lotzen. "Herri guztietako 210 bat haur dantzari espero ditugu. Antzuolako taldeaz gaiz, gurean erakustaldia egingo dute Arrasateko bi taldek, Aretxabaletakoak, Soraluekoak, Legazpikoak, Zumarragakoak eta Oñatiko taldeak".

Egun osoko egitaraua

"Egunari hasiera emateko, datozen dantzari guztiei harrera egingo diegu goizeko lehen orduan. Ondoren, herriko kaleetan

barrena, dantzariak kalejira egingo dute. Ekitaldi nagusia, aldiz, Zurrategi plazan izango da eguerdian", azaldu dute Oinarineko antolatzaileek.

Egunaren bigarren zatia, ordea, bazkalostean hasiko dute: "Zurrategiko erakustaldiaren ondoren, bazkaria egingo dugu eta bazkalostean Herriko Plazako saio nagusia hasiko da".

Ilusio handiz ari dira Dantzari Eguna antolatzen. Entseguak ere egunero-egunero egiten dituztela azaldu dute Oinarineko dantzariak.

Antzuolan zaletasuna badago, eta une honetan 130 haurrek osatzen dute dantza taldea. 170 dantzarik parte hartzen dute, aldiz, Oinarinen.

HAUR DANTZARIAK ETXEAN HARTZEKO IZENA EMAN DAITEKE XINKONAN EDO MARTINEN DENDAN

"Bi urtetik behin izaten da Haur Dantzarien Eguna; orain bi urte, dena primeran irten zen. Aurtengorako gogotsu gaudе, eta ilusioz", aitortu dute. "Astean zehar egunero-egunero egiten ditugu entsegu ezberdinak. Aurten, gainera, martitzenetan, hasiberriak diren 6 urteko haurrekin hasi gara entseguak egiten. Baina 14-15 urte arteko neska-mutikoekin entseguak egiten ditugu egun ezberdinetan".

Antzuolarrek eskainiko dituzten dantza propioen artean, bi daude: makil-txiki eta igitai dantzak.

Haurrak etxean jasotzeko

"210 haur dantzari etorriko dira eta gurasoei gutuna bidali diegu, haurrak etxean hartzeko gonbidapena eginez. Gutunean azaltzen diegu euren seme-alabak kanpora joaten direnean etxeetan jasotzen dituztela", azaldu dute. Xinkonan edo Martinen dendan, besteak beste, dute antzuolarrek aukera izena emateko.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Plazako errekan, zaborra eta plastikoa



"Lotsagarri"; halaxe azaldu du herritar batek dagoela plazako erreka. Plastikoa botila bat, edari lata, gozoki poltsak... zakar guztia erreka zuhaixka eta sastraka artean dagoela salatu du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Azaroan zabalduko ditu gazte txokoak ikasturteko ateak

Gazte txokorako hezitzaileak kontratatzeke deialdia egin du Antzuolako Idolaz aisialdi elkarteak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Azarotik apirilera bitartean egiteko makina bat ekintza antolatu du Antzuolako gazte txokoak. Idolaz aisialdi elkarteak koordinatzaile berri Zumaia Elkorok aitortu du herriko neska-mutikoei asteburuetan eskaintza zabala prestatzen dihardutela oraindik. Ilusioz eta gogotsu dagoela ere esan dio GOIENARI Elkorok. Orain, baina, gazte txokoko hezitzaileen hautaketan buru-belarri dihardutela adierazi du Idolazeko koordinatzaileak.

Izan ere, 2019-2020 ikasturtean gazte txokoa jardungo duten hezitzaileen aukeraketarako deialdia zabalik dago gaur da azken eguna. Lan eskaintza hau azarotik apirilera artekoa izango da.

Bete beharreko baldintzen artean hauexek daude: euskaraz jakitea; 18 urtetik gorakoa izatea; antzuolarra izatea edo bertan bizi izatea; eta asteburutan maltasuna izatea. Informazio gehiago, Goiena.eus/antzuola helbidean eta adolazgaztetxokoa@gmail.com-era idatzita.

Arratsaldeko yoga ikastarorako bigarren taldea sortu da

Yoga ikastaroa egiteko bigarren taldea sortu da eta izena eman daiteke udaletxean. Arratsaldeko ikastarorako bigarren taldea sortu da, 17:00etatik 18:30era bitartean. Irakaslea Mireia Juaristi oñatiarra da.

Goizeko yoga saioa azaroan hasiko da -10:30etik 12:00etara bitartean-, eta, oraindik tokia dagoenez, izena emateko epea luzatu egin dute.

Europako Mendietara joateko plazak daude oraindik ere

Oraingoan, hamalau pertsona eman dute izena Europako Mendietara joateko. Arrolak antolatutako irteera asteburu honetan egingo da: "Kopurua polita da, baina oraindik bost plaza daude libre. Norbait animatuko balitz, arrolamt@gmail.com helbidera idatzita egin dezala eskaera. Irteera bihar, zapatua, goizeko zazpitan izango da".

Jaiak bukatu dira eta hasi da ikasturtea, serio

Herri Egunean eta Errosario Biharamunean jende asko ibili da kalean eta udaltzainek ez dute intzidentziarik jaso. Jaien balorazio positiboa egin du Udaleko Kultura Sailak eta hemendik aurrerakoak prestatzen hasita daude dagoeneko

Oihana Elortza OÑATI

Herriko jai nagusiekin batera bukatzen ei da Oñatin uda sasoi, jaien eta oporren egutegia, eta Errosario Biharamuneko biharamuna pasata hasten da ikasturtea serio. Baita aurten ere. Amaitu dira jaiak, eta ikasturte berriko ikastaroak, lanak, planak eta asmoak martxan dira.

Ikastaroak hasi

Jaien lehen asteburua ondo pasa zen, eta beste hainbeste bigarrena. "Ezin hobeto joan da, egia esan. Umeen puzgarriak barruan izan ziren, domekan euri pixka bat egin zuelako, baina, gainerakoan, Herri Egunean eta Errosario Biharamunean, bereziki, oso eguraldi ona egin zuen eta jendea kalera atera zen jaietz gozatzera. Iker Martinez de Zuazoren diskoaren aurkezpena ondo atera zen eta zapatuko herri bazkarian ere aurrekoetan baino jende gehiago batu zen, umeendako eskaintzatik, aka-



Kuadrilla bat mozorrotuta astelehenean. AITOR AGIRIANO

so. Udaltzaingoan ere ez dute intzidentziarik jaso. Oso ondo joan dira, bai", adierazi du Kultura zinegotziak, Iñaki Olalde. Gaineratu du hurrengo hilabeteetako ekintzei begira hasiko direla orain lanean, "herriko

eragileekin eta herritarrekin batera".

Udal zerbitzuek ere ohiko ordutegiak dituzte martitzenetik eta kiroldegiko ikastaroetako asko datorren aste hasieran hasiko dira.



Iker Martinez de Zuazoren diskoaren aurkezpena egubakoitzean. MIREIA BIKUÑA



Zapatuko bazkarian kantuan. A.A.



Mozorrotuta bazkaltzen. A.A.



Gaztetxoan herri kiroletako saioa Herri Egunean. A.A.

Datorren urteko zerga ordenantzak landu dituzte zinegotziak

Datorren urteko udal zergei KPIaren arabera igoera aplikatzea da Udal Gobernuaren proposamena. Horrez gain, etxebizitza sozialetan egiten diren obretan eta eguzki energia aprobetxatzeko sistemak bultzatzeko hobariak proposatu ditu. Oposizioan dagoen EAJ alderdiak, berriz, hobariak eskatu ditu ingurumenaren zaintzan eta jarduera ekonomikoan, esaterako, ibilgailu hibrido eta elektrikoetan eta merkataritzan eta ostalaritzan.

Datorren urtarrean indarrean jarriko diren zerga horiek arazoitzeko eta onartzeko, ezohiko osoko bilkura deitu zuten atzarako, egunerako.

Jakien kontsumo kontzienteari buruzko tailerra egongo da

Bizipoz egitasmoak saio berria prestatu du udazkenerako: kontsumo kontzientea. Amaia Diaz de Monasterioguren nutrizionistarekin elkarlanean, sei tailerrek osatutako formakuntza praktikoa garatuko dute. Tailerretan, kontsumo moduak eta elikadura ohiturak landuko dituzte. Programako 6 tailerrak azaroan eta abenduan burutuko dituzte eta astearteetan izango dira, 17:30etik 19:30era, Euskaldun Berria gelan. Gehienez, 20 pertsona izango dira taldean eta datorren astean zabalduko da izen-ematea. Aurkezpena astelehenean egingo dute, 17:00etan, Euskaldun Berria gelan. Han apuntatu daiteke.

OHARRAK

Autobusik ez

Zapatuan, urriak 12, ez da autobus zerbitzurik egongo Arantzazura. Domekan, bai.

Hitzaldia, espetxez

Espetxe eskumenaren transferentzia: nola eta zertarako hitzaldia dago hilaren 16an, kultura etxean, 19:00etan, Oñatiko EH Bilduko antolatuta. Hizlariak: Julen Arzuaga eta Larraitz Ugarte.

Botoa batzokian

Azaroaren 10eko Espainiako hauteskundeetarako botoa emateko bidea zabalik dago batzokian. Asteleheneetik egubakoitzera egin ahal izango da, 11:30etik 12:30era eta 18:30etik 19:30era.



NIRE USTEZ

XABI GESALAGA

Shame Europe! Europa lotsagarri!

Whatsapp zaparrada. Bideoak bata bestearen ostean! *Play* sakatu eta: NBEren zigilu urdina daramaten ehunka kanpin denda zuri pilatuak. Laino beltzez jantziriko zeru beldurgarri baten azpian dagoen errefuxiatu kanpaleku bat da. Haizeak denboraren poderioz biribildutako harrizko alfonbra amaiezina, hautsa harro non nahi. Haurrak, hauen guraso izan daitezkeenak, haize bortitzaren menpe, batera eta bestera balantzaka. Hurrengo planoan, NBE zigiludun dendak berriro, baina hauek jausiak daude, lurrak erdi estaliak. *Play* berriro. Norbaiten amona da. Boreas Ipar haizearen jainko greziarrari desafio eginaz, dendari, amasari, bizitzari indarrez eutsiz. Gerrak, senarra, semea, etxea, beharrezko babes gunea, ebatsi, bota dizkio... Baina amonaren eskuek tinko, gogor eusten diote dendari. Siria edo Afganistango errefuxiatu kanpaleku bat izan zitekeen, baina Europako zerua ageri da bideoan. Grezian, Salonikako Nikva-n dagoen errefuxiatu kanpalekua! Bertatik, bost haurren ama den Mahdiye-k irudi hauek bidali dizkigu. Eutsi, amona; eutsi, Mahdiye... Europak ahaztu zaituzte eta.

Legazpira joateko autobusa martxan dago

Hemeretzi lagunendako autobusa da, eta Oñatiko eta Legazpiko udalak erdi bana ordainduko dute aurrekontua: 15.000 euro bakoitzak. Goierri Bus-ek egingo du joan-etorria, Olabarrietako bizilagunek erabiltzen duten bide bera erabilita. Doan da

Oihana Elortza OÑATI

Udana mendatea itxi zutenean, etenda gelditu zen Oñati-Zumarraga autobus linea. Hori berreskuratzeko lanean aritu dira Oñatiko eta Legazpiko udalak elkarlanean, eta dagoeneko martxan dagoen autobus zerbitzua da horren emaitza. "Arrasate-Zumarraga linea izan da eskaini dutena. Euren hitzetan, horixe zen eskaini ahal zuten bakarra. Oñatiko Udalak eta Legazpiko Udalak argi ikusi dugu linea horrek ez zituela herritarren beharrak asetzen, eta hainbat bilera egin ostean lortu dugu autobus txikia martxan ipintzeko Mugikortasun Sailaren baimena", esan du Oñatiko alkate Izaro Elorzak, astean, Legazpiko alkate Kolobike Olabidekin batera zerbitzu hau aurkezteko egin duten ekitaldian.

Hiru tarte

Oñati-Legazpi linea beteko duen zerbitzua hiru tartetan egongo da erabilgarri: 07:00etatik 09:00etara, 13:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Ordu erdian behin ibiliko da autobusa tarte horietan. "Lurraldebusen erabiltzaile datuak hartu ditugu kontuan, eta horiek dira bidaiari gehien duten orduak.



Oñati-Legazpi zerbitzua eskaintzen duen autobusa postetxeko geltokian. O.E.

Bereziki, ikasleek eta Oñatira eta Legazpira lanera doazenek erabiltzen dute autobusa", azaldu du Olabidek. Legazpiko lehenengo 07:05ean irtengo da eta azkena, 19:05ean; Oñatikoak, 07:35ean eta 19:35ean. Astelehenetik egubakoitzera egongo da martxan zerbitzua. Postetxean eta San Lorentzon/Olakuan izango du geldiduna.

Debaldeko zerbitzua

Bi udalen artean finantzatuko dute zerbitzua, erdi bana; 30.000 euroko aurrekontua du. Debal-

dekoa izango da, eta erabilera "arduratsua" eskatu dute alka- teek: "Eskatzen duguna da zerbitzuaren erabilera arduratsua egitea. Hemeretzi lagunendako autobusa da. Txikia. Olabarrietan barrena ibiltzeko tamaina egokia duena. Eta autobus horren benetako beharra duten erabiltzaileak daude bi herrietan", adierazi dute. Lurraldebusen datuen arabera, egunero, 80 bat pertsonak egiten dute Oñati-Legazpi arteko joan-etorria. Ordu berean, gehienez, hamaika lagunek hartu dute autobusa.

Emakumeen ekarpena jasotzeko beka zabalik, bigarrenez

Udalak ematen duen Selma Huxley Barkham ikerketa bekarako lanak azaroaren 18ra arte aurkez daitezke

O.E. OÑATI

Oñatiko emakumeek historian zehar herriari egindako ekarpenak jasotzeko eta zabaltzeko helburua du Selma Huxely Barkham bekaren bigarren deialdiak ere.

Oñatiko Udalak ematen duen aurtengo beka 18.000 eurokoa da eta hemezortzi hilabeteko iraupena du. Bi zatitan banatuko da: lehenengo urtea ikerlana egiteko izango da eta azken sei hilabeteak, jasotako informazio hori herritarren artean zabaltzeko eta hedatzeko. Astean egin dute

deialdiaren aurkezpena, udal- txean, eta azaroaren 18ra arteko epea jarri dute lanak aurkezteko. Epaimahaiak erabakiko du, gero, aurkeztutako zein proiekturi eman beka.

Izaro Elorza alkateak bekaren garrantzia azpimarratu du: "Historian bazterrean utzi dira emakumeen kontakizunak, emakumeen ikusgarritasun sozialean defizita sortuz. Azken hamarkadetan garrantzia izan dute iker-tzaile eta historialari feministen lanek, eta horren adierazle da beka hau".

GORA ETA BEHERA



I.B.

Lanpernak bista- bistan Bidaurretan



Sorpresa hartu zuen herritar batek herrigunetik Olakua aldera zihola Bidaurretako zuhaitz handiaren azpian lanpernak ikusita. "Orain arte ez naiz inoiz fajatua", adierazi du, harrituta.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

GOIENA TELEBISTA
UDAZKENEKO PROGRAMAZIO BERRIA

OÑATIKO SANMIGELAK

GOIENA TELEBISTA, JAIK
URRIAREN 12AN, ZAPATUAN, 12:00ETAN ETA 17:00ETAN
URRIAREN 13AN, DOMEKAN, 11:30EAN ETA 20:30EAN
AITOR AGIRIANOK AURKEZTUTAKO SAIOA

goiena

Zu hemen zaude.



Iñaki Jauregiartzo eta Esteban Kerexeta, erakusketaren aurrean. O.E.

Lau lagun, hiru lehengai eta hamaika artelan

Orbelaun taldeko kide dira Anjel Mari Milikua, Imanol Artola, Iñaki Jauregiartzo eta Esteban Kerexeta lagunak. Artistak dira laurak eta 'Ezusteak' izeneko erakusketa dute jarrita Turismo Bulegoan. Burdina, buztina eta egurra dute funtsean lanek

Oihana Elortza OÑATI

Turismo Bulegoak egindako gonbidapena onartu, eta erakusketa jarri dute Orbelaun taldeko kideek han, horretarako ere erabiltzen duten espazioan. Ez dira bolumen edo tamaina handiko lanak, txikiak dira batzuk eta tamaina ertainekoak beste batzuk. Materialak ere ezberdinak dira eta lan batzuetan material bat baino gehiago erabili dituzte. Burdina, buztina eta egurra dute funtsean. Gainera, ez dira gai jakin bati buruz egindakoak, artista bakoitzak erakusketa honetarako aukeratu dituenak baizik. Lanak lotzen dituenak egileak dira: "Arantzazutik eta bere inguruko parajeetatik edaten dugu laurok".

Orbelaunen jatorria

Eta horregatik du, hain zuzen ere, Orbelaun izena Anjel Mari Milikuak, Iñaki Jauregiartzok, Imanol Artolak eta Esteban Kerexetak osatzen duten taldeak. "Arantzazu da gure iturria eta

Orbelaun da Bitoriano Gandiagaren jaiotetxea, Mendatan", azaldu du Jauregiartzok.

Arantzazu dute oinarrian laurrek, baina bakoitzak bere erara ulertzen eta interpretatzen du. Eta artelanak ere horrelakoak dira. Ikusgai dauden lanetako askok, baina, naturari egiten diote keinu. "Artolak, esaterako, berrirabili egiten ditu gauzak. Han eta hemen aurkitzen dituen gauzak berrabiltzen ditu; esaterako, burdinazko gurrpil txiki bat egurrarekin egindako zutabe baten gainean jarritik. Edo forma berezia ikusi dion egur zati bati osagaiak jarri eta zaldi baten aurpegi bihurtu du", dio Kerexetak. Milikua ere naturarekin lotu du Jauregiartzok:

URRIAREN 15ERA ARTE EGONGO DA ZABALIK ERAKUSKETA OÑATIKO TURISMO BULEGOAN

"Bere egunerokoan ere lotura zuzena du ingurugiroarekin, naturarekin, eta hori ikusten da egurra erabiliz egiten dituen artelanetan".

Iñaki Jauregiartzok berak buztina erabiltzen du eta zeramikazko piezak eroan ditu erakusketa honetara: "Tornua asko erabiltzen dut. Gustatzen zait jatorrizko zeramika zuria, baina baita horri kolore apur bat ematea ere". Azulejoetan egindako erretratuak ere baditu *Jaltzo*-k.

Esteban Kerexetaren lanak, berriz, aurpegiak dira. Egurrarekin egindako aurpegiak. "Izkinako horrek, adibidez, garrasia erakusten du. Duela hamaika urte egin nuen, baina oraindik ere ez du zentzua galdu. Gaur egun ere lehen bezala ulertzen da".

Bakoitza bere proiektuetan sartuko da erakusketa bukatutakoan, baina oraindik antolatuta ez duten arren, seguru daude besteren bat ere antolatuko dutela elkarrekin.

Mekalki Aloña Mendik etxean hasiko du liga, asteburuan

Saskibaloitza taldeak iaz baino maila bat gorago jokatuko du aurtengo. Zapatuan hasiko du denboraldia, Zubikoan

M.S. OÑATI

2018-2019 denboraldian egindako lanari esker, bigarren maila nazionalen arituko da taldea –iaz baino maila bat gorago–. Zapatu eguerdian, 12:00etan, jokatuko du lehen norgehiagoka, etxean, Hotel Gran Bilbao Berriotxoan taldea izango duela aurkari.

Zortzi eta hamar lagun bitarteko taldea osatu dute denboraldi berrira begira; izan ere, taldeko jokalariek finko ez gain, beste batzuen laguntza ere jasotzen dute, Aitor Ugarte taldeko entrenatzaileak adierazi duenez: "Bi senior talde ditu Aloñak, eta, beraz, laguntza behar dugunean beste taldeko jokalariek etortzen dira gurekin jokatzerara".

Maila mantentzea, erronka

Mailaz igotzeak eragina izango du oñatiarren jokatzeke moduan: "Gipuzkoako txapelketan ez dago



Mekalki Aloña Mendi taldea. GOIENA

24 segundoko mugarik, eta orain, muga horren barruan jokatu behar dugu". Horrez gain, taldeen maila ere hobea izango dela aitortu du Ugartek.

Denboraldiko erronka nagusia, "maila mantentzea" izango da, beraz, talde oñatiarrarentzat.

Udalak antolatutako ikastaroak azaroaren 4an hasiko dira

2019-2020 ikasturterako lau ikastaro antolatu ditu Udalak. *Patchwork*, *hardanger*, *myreska*, *ajoureta mayorquin* eta *richellier* teknikak lantzeko ikastaroa da horietako bat. Bestalde, pintura ikastaroa ere badago aukeren artean; hurrei eta helduei zuzendutakoa. Eskulan dekoratibo eta sendabelar tailerrak ere egongo dira, azken hau soilik

helduei zuzendutakoa izango den arren.

Ikastaro guztietan daude plaza mugatuak, eta dagoeneko eman daiteke izena –urriaren 18ra arte– www.oñati.eus webgunean edota udaletxeko Herri-tarren Arreta Zerbitzuan.

Eskaintako plazak baino jende kopuru handiagoak izena emanaz gero, aukeraketa zozketa bidez egingo dute. Urriaren 24 arratsaldean argitaratuko dute onartuen zerrenda kultur etxean eta Udalaren webgunean.

Aloña Mendiren futbol sailak taldeen aurkezpena egingo du

Bihar, zapatua, 09:45ean bilduko dira talde guztiak, Azkoagainen. Talde argazkiak aterako dituzte, eta guztien argazki erraldoia ere ez da faltako. Gizonezkoetan hamar talde arituko dira aurtengo eta emakumezkoetan, bost –bietan, gorengoen mailatik hasi eta alebinetara arte–. Futbol eskolako ehun bat gazte ere elkartuko dira bihar.

San Migel pilota txapelketan, Alberdi eta Altuzarra nagusi

Domeka arratsaldean jokatu ziren jaietako txapelketako finalak, Zubikoa pilotalekuan.

Hain zuzen, hiru final jokatu ziren. Alberdi eta Altuzarra nagusitu ziren promes mailan, Uriberen eta Artolaren aurka. Oskozek eta Etxeberririk irabazi zuten gazte mailan, eta kade-te mailan, Egiguren eta Sodupe izan ziren txapelketako garaile.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Oñalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Boente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Eigeta / Torrealdeia 2 behea ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 76 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

JULEN MURUAMENDIARAZ KIROPRAKTIKA ZENTROA

Bergara / Ibargarai 41 / 688 80 16 72

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Xabier Urzelai ARRASATE

Vanessa Gimbertek (Bergara, 1980) bi hamarkada egin ditu futbolaren gorengo mailan. Hainbat Liga, Superliga, Superkopa eta Erreginaren Kopa irabazi ditu; Espainiako selekzioarekin jokatu du -16 urte zituela deitu zuten lehen aldiz-, eta Txapel-dunen Ligan ere aritu da. 2013an heldu zen Athleticera, azken urtea egitera, baina talde zuri-gorrian ezinbesteko jokalaria bilakatu da eta zazpigarren denboraldiari ekin dio. Txapelketako beteranoena izanda ere, iaz, ligan, minutu gehien jokatu zuen jokalaria izan zen. Partidu guztiak jokatu zituen.

Datu ikusgarrien errepassoa eginda, futboletik haragoko Vanessa Gimbert ezagutu gurako bagenu?

Bada, ez da horren erraza, nire bizitza futbolari oso lotuta dago eta. Futbolerako bizi naiz, nire lagunak futbolaren bueltan ezagutu ditut, eta entrenamenduen eta partiduen arabera antolatzen dut bizitza pertsonala... Aste barruan Lezaman zortzi ordu egiten ditugu, eta arratsaldean etxera -Bergarara- etortzen naitzen lasai egotea gustatzen zait, errekaduren bat egin... Ez naiz kalean ibiltzekoa. Uste dut horregatik ez dudala erretiratu gura, bizitza futbolaren bueltan antolatuta daukadalako; kar, kar, kar.

Bergaran jaio, baina 13 urterekin Kordobara joan zinen aitarekin.

Bai; gurasoak gazte zirenean etorri ziren Bergarara, eta bertan ezagutu zuten elkar. Ama Extremadurakoa da eta aita Kordobakoa, eta lau ahizpak Bergaran jaio ginen. Bada, 13 urte nituela, ahizpa txikiena eta biok aitarekin Kordobara bueltatu ginen, lan kontuak tarteko, eta ahizpa nagusiak Bergaran geratu ziren, ordurako ikasketak-eta bizitza bera bideratuago zuten eta.

Ez zen erabaki erraza izango.

Ez, inondik inora. Kordoban, herri txiki batean bizi ginen, herrixka bat zen. Noski, udan joaten ginenean, ederto ibiltzen ginen han. Kataluniatik jendea etortzen zen, Euskal Herritik... Egun osoa kalean ematen genuen jolasten, baina neguan, han ez zen inor geratzen... Adin horrekin Bergarako oroitzapenak ere oso onak ditut, San Martingo jolaslekuan hasi nintzen futbolean, eguerdietan bazkaltzera joan aurreko tarteak aprobezta-



Vanessa Gimbert, Bergarako Irala kaleko taberna baten kanpoaldean. XABIER URZELAI

"Nire bizitzaren ardatza futbolaria da, baina gertu dut agurra"

VANESA GIMBERT ATHLETICEKO JOKALARIA

FUTBOLA Realak eta Athleticen domekan jokatuko duten derbiaren atarian, iaz ligan minutu gehien pilatu zituen jokalariekin izan da GOIENA, Bergaran

tzen nituen futbolean jokatzeke, eta arratsaldean beste horrenbeste. Kuriozkoa da, etxean ez zegoen-eta futbolerako halako zaletasunik.

Futbola lagungarri izan zen Kordoban egoera berrira moldatzeko?

Ez pentsa, inguruan ez zegoen emakumezkoen futbol talderik, eta lehenengo urtean saskibaloian jardun nuen, La Carlota taldean, nahiz eta ni oso konforme egon ez. Asteburuetan, berriz, herriko mutilekin jokatzen nuen futbolean.

Zelan hasi zinen, baina, Montilla futbol taldean?

Behin, herriko kirol dendara joan nintzen futboleko botak erostera, eta bertako dendariak esan zidan botak lasai eramateko etxera, anaiak proba zitzan. Niretako zirela esan nionean, harritu egin zen; kar, kar, kar. Eta esan zidan bere senarrak Montillan jokatzen zuela futbolean, hirugarren mailan, eta bertan bazutela emakumezkoen taldea. Bada, hor hasi zen nire futbol ibilbidea.

Aitak ere zerikusi handia izan zuen zuk futbolean jokatu ahal izateko.

Bai; lehen aipatu moduan, hasieran, dendako langilearen senarrarekin joaten nintzen Montillara entrenatzera, baina hark futbola utzi zuenean aitak eramaten ninduen autoz; gizajoak laneko arropak kentzeko ere ez zuten izaten astirik; kar, kar, kar. Berrogeita hamar kilometro inguru egongo dira La Carlota-tik Montillara. Eta Andaluziako selekzioarekin jokatzen hasi nintzenean, berdin. Batzuetan,

federazioko ordezkariaren bat etortzen zen ni jasotzera, baina beste batzuetan, aitak eramaten ninduen.

Oso gazte joan zinen Valentziara; ikasketak alde batera utzi eta futbolararen aldeko apustua egin zenuen.

Bai, eta asko damutzen naiz horretaz. Ez Valentziara joan izanagatik, oso bizipen ederrak izan nituelako han, baina bai ikasketak alboratzeagatik. Enpresen kudeaketaren gaineko modulua ikasten hasi nintzen, baina Valentzian ez nien ikasketei jarraipenik eman, eta gero, futbolaria batera eta bestera eramana nau. Iaz, goi mailako ikasketak egiteko gradua atera nuen, eta aurten, soin hezkuntzako goi mailako ikasketak hasi gura nituen, baina entrenamenduak goizetan ditugu, eta horrek ez du laguntzen.

Oso gazte iritsi zinen Espainiako selekziara -absolutua-, 16 urterekin.

Bai; oso gazte hasi nintzen Andaluziako selekzioarekin jokatzen, eta jarraian joan nintzen Espainiakora. Adin horrekin ez zara konturatzen ze pauso ematen ari zaren, gustuko duzun hori baino ez duzu egiten.

Ondoren etorri zen batetik bestera ibiltze hori; neurri batean, nomada bizimodua.

Bai; lekuz aldatzeko motxila beti izaten nuen prest. Lehenengo pausoa Valentziara eman nuen, eta asko kostatu zitzaidan. Ilusio handia nuen, baina etxetik kanporako lehen esperientzia zen. Andaluziako selekzioko beste bi taldekideekin joan nintzen, eta horrek asko erraztu zuen dena.

Baina futbolaria ematen zizuen bizi ahal izateko?

Bai, baina oso justu ibiltzen ginen. Egia da jokalaria gehienak ikasten zebiltzala.

Handik Huelvara joan zinen.

Bai, baina hura nahiko egoera berezia izan zen. Madril inguruko hainbat jokalaria fitxatu zituen Huelvak, eta horiek Madrilen entrenatzen ziren. Eta gero, Andaluziako beste zenbait jokalaria geunden, eta nor bere kasa entrenatzen zen. Pentsa, ni La Carlota kadete mailakoekin entrenatzen nintzen, eta asteburuetan baino ez ginen elkartzeko, jokatzeke.

Eta Huelvatik Sevillara.

Klubaren 100. urteurrenaren bueltan, emakumezkoen taldea ateratzea erabaki zuten, eta, nahiz

eta titulurik lortu ez, oso talde ona geneukan. Egia da klubaren partetik ez genuela uste genuen babesik jaso, baina, akaso, inoiz jokatu dudan talderik onena izan zen hura, besteak beste, gure artean geneukan giro onagatik. Gainera, Sevilla oso leku ona da bizi izateko; kar, kar, kar.

Eta jarraian Madriler, Rayo Vallecano taldera.

Talde horretan uste dut bi liga eta kopa txapelketa irabazi nituela. Rayok beti izan du talde ona, eta Madriler, hiri moduan, aukera handiak ematen ditu. Txapeldunen Liga ere birritan jokatu nuen Rayo Vallecanorenkin.

Eta handik Bartzelonara, Espanyol taldera.

Bai; sasoi hartan, Rayo Vallecanon gorabeherak zituzten zuzendaritzan, eta Espanyolek talde indartsua egiteko apustua egin zuen. Errege Kopa irabazi genuen han, eta hainbat urtez liga irabazteko puntuan egon ginen. Ordurako, baina, Athleticen Inigo Juaristik urtero pare bat aldiz deitzen ninduen, Athleticera etorri behar nuela esanez, eta motibo batengatik edo bestearengatik beti esaten nion ezetz, baina geroago eta gehiago kostatzen zitzaidan ezeko ematea. Gustura nengoelako nengoen tokian, ez zelako momentu aproposa... Kontua da Lezaman jokatzera izugarri gustatzen zitzaidala, ikusten nuen klub moduan ze egitura zuten, zelako zaleak... Azkenean, baiez-

"EUSKAL HERRIA KOPAN IKUSI DUGU REALA ONDO LANDUTAKO TALDEA DELA"

"ATHLETICEN HASIERATIK EGON NINTZEN EROSO, OSO ALDAGELA SANOA DUGU BERTAN"

"GEROAGO ETA LEHIAKORTASUN HANDIAGO DUGU LIGAN, MAILA GORAKA DOA ETENGABE"



Bergarako San Martin eskolako ikaskideekin, zutik, erdian, 1992an. VANESA GIMBERT



Athleticekin azkeneko Espainiako Liga irabazi zueneko, 2016an. ARGAZKI PRESS

koa eman nion, eta ez naiz inoiz damutu.

2013an fixtatu zintuen Athleticen. Bai, eta lehenengo egunetik oso gustura egon naiz bertan, etxekoa izango banintz moduan. **Zuri egindako elkarriketak errepasatzen, badaramatzazu hiruzpailau urte azken denboraldia izango dela esaten...**

Gehiago dira! Kar, kar, kar. Nik uste dut Espanyolen jokatu nuen sasotik nabilela erretiratzeko ordua dela esaten, eta esan izan badut halaxe sentitzen nuelako izan da. Gero, baina, denboraldi ona egiten nuen, eta erabakia atzeratzen joan naiz. Horregatik, urteko helburuak markatzen ditut, eta egunez egun joaten saiatzen naiz. Baina garbi dago geroago eta gertuago dagoela egun hori.

Iaz, baina, minutu gehien jokatu zenuen jokalaria izan zinen ligan. Bai; zentzu horretan zorte handia izan dut. Bereziki, lesioekin. Baina partidu batetik bestera gehiago kostatzen zait erreku-peratzea, adibidez.

Non dago sekretua?

Bada, ez daukat ideiarik ere. Jakingo banu, beste urte mordo egingo nituzke futboleko joko-

tzen. Suposatzen dut bizitza osasuntsua eramateak lagunduko duela, elikadura zaintzea, atsedean egunak ondo errespetatzea, loa zaintzea...

Zer eskatzen diozu denboraldiari? Talde moduan helburuak betetzea. Iaz, bosgarren izan ginen ligan, baina sentsazioak, orokorrean, ez ziren nahi moduko onak izan. Jendeak badaki bosgarren sailkatzeak geroago eta balio handiagoa duela, taldeak ondo indartzen dabilzako eta emakumezkoen futbola aurrerapausoak ematen dabilelako; geroago eta atzeritar gehiago dago taldeetan, konpetentzia geroago eta handiagoa da.

Ez duzue denboraldia ondo hasi. Ez, lau partidutatik bakarra irabazi dugu, eta ez genuen halakorik espero. Domekako derbia aproposa izan daiteke joera aldatzeko.

Zer-nolako partidua espero duzue? (16:00, Reale Arena).

Euskal Herria Kopan ikusi dugu Realera ondo landutako taldea dela, eta, Erregina Kopa irabazi berri, moralki topera daude. Bestalde, estadio berrituan giro polita izango da. Gustura jokatzen dira halako partiduak.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONA.

Touring-Mondra

Zapatua. 16:30. Errenteria

Bergara-Euskalduna

Zapatua. 16:30. Agorrosin

Aretxabaleta-Ordizia

Domeka. 16:30. Ibarra.

ERREGIONAL PREFERE.

Antzuola-Soraluze

Zapatua. 16:30. Estala.

Ikasberri-Aretxabaleta

Zapatua. 12:00. Garmend.

Aloña Mendi-Lagun On.

Domeka. 16:30. Azkogai.

Mondra-Billabona

Zapatua. 16:30. Mojategi.

LEHEN ERREGIONALA

Aloña Mendi-Mutriku

Zapatua. 17:45. Azkoaga.

Elgoibar-Aretxabaleta

Zapatua. 12:00. Mintxeta.

Zestoa-Bergara

Zapatua. 15:45. Iraeta.

OHOREZKO GAZTEAK

Bergara-Zumaiako

Domeka. 16:30. Ipintza.

Urki-Aloña Mendi

Zapatua. 15:30. Unbe.

Anaitasuna-Aretxabal.

Zapatua. 15:30. San Juan

Elgoibar-Mondra

Zapatua. 16:00. Mintxeta.

EMAKUMEZKO OHOREZ.

Leintz Arizme.-Touring

Zapatua. 18:30. Mojategi.

Bergara-Goierri

Zapatua. 18:00. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Antiguoko-Eskoriatza

Domeka. 12:00. Donosti.

EUSKADIKO TXAPELKE.

Mondrate-Zirauntza

Zapatua. 17:30. Musakol.

Aretxabaleta-U sanzolo

Domeka. 11:30. Ibarra.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELK.

Txikipolit-Fagor Indus.

Zapatua. 17:30. Zarautz.

Ereintza-Ford Mugarri

Domeka. 10:00. Errenteria

EUSK. TXAP. EMAKUM.

Kukullaga-Cons. Aloña

Zapatua. 12:30. Etxebarri.

SASKIBALOIA

EBA

Valle Egues-MU

Domeka. 12:30. Sarrigu.

EUSKADIKO TXAPELKETA

Mekalki Aloña-Berrio

Zapatua. 12:00. Zubikoa.

Salleko-Alkide. Ointxe

Domeka. 12:30. Sestao.

GIP. SENIORRAK

Getariako-Bergara Sor.

Zapatua. 18:00. Getaria.

FUTBOLA Hiru talde nagusiek makal hasi dute denboraldia

Ohorezko Erregionalean, Bergarak laugarren dagoen Euskaldunen bisita izango du zapatuan (Agorrosin, 16:30); Aretxabaletak 13. dagoen Ordizia hartuko du domekan (16:30). Mondrak, azkenik, Touringen kontra jokatuko du zapatuan (16:30). Ibarreko hiru taldeak atzean daude sailkapenean.

PILOTA Aretxabaletan eta Bergaran partidu bana asteburuan

Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuan eskuz binakako kade mailako partidua jokatuko dute gaur, egubakoitza (20:00). Hala, aretxabaletarrek Murumendiko pilotariak izango dituzte aurrean. Bergaran, berriz, gazte mailako bigarren mailako partidua jokatuko dute gaur (20:30). Mahoneroek LAPKEkoak izango dituzte aurrean.

FUTBOLA Leintz Arizmendi bigarren da jada sailkapenean

Emakumezkoen Ohorezko Erregional mailan, Leintz Arizmendik eta Bergarak etxean jokatuko dute. Leintzezkoak dagoeneko bigarren daude, eta sailkapenean erdian dagoen Touringen bisita izango dute bihar (18:30, Mojategi). Bergarak, berriz, azken postuan dagoen Goierriren bisita izango dute Ipintzan (18:00).

ESKUBALOIA Etxetik kanpora jokatuko dute talde nagusiek

Hirugarren postuan dagoen Txikipolit taldearen kantxan jokatuko du Fagor Industrialek zapatuan (17:30). Zarauzkoek jokatutako hiru partiduetatik bi irabazi eta bestea berdindu egin dute, eta hirugarren postuan daude. Ford Mugarri Arrasatek, berriz, Ereintza Beissier taldearen kantxan, Errenterian, jokatuko du domekan (10:00).



Bilboko Solokoetxe institutuan egin zuten *Hitzen ahairea* izeneko ikastaroa. GOTZAZON BARANDIARAN

Euskal Herriaren historia kantuekin gainbegiratuta

'Hitzen ahairea' izeneko kantagintzari buruzko ikastaroa antolatu du Jardun Euskara Elkarteak Udalarekin batera, eta Gotzon Barandiaranek eta Rafa Ruedak gidatuko dute; urriaren 24an abiatuko da sei orduko ikastaroa eta zabalik dago izen-ematea

Aitziber Aranburuzabala BERGARA
Ikastetxeetan hasi ziren orain dela sei urte Rafa Rueda musikaria eta Gotzon Barandiaran idazlea eta kulturagilea musikarien eta idazleen arteko elkarrreraginetik sortutako kantagintzaren kontakizuna egiten *Hitzen ahairea* izeneko saioetan. Gaur egun, ikastetxez gainera, beste arlo eta toki askotatik

deitzen diete, eta hala abiatuko dute Jardun Elkartearen eta Udalaren eskutik sei orduko ikastaroa Zabalotegi aretoan: "Hiru saio izango dira, urriaren 24an, azaroaren 7an eta 28an. Helburua gure historia eta euskal kantagintza gertuagotik ezagutzea da, eta guztiontzako dago zabalik", dio Jardun-eko Maitane Arizabaletak.

Hitzak eta kantuak tartekatuta
"Ez dugu ezer probatuko, baizik eta urteetan bildu dugun materiala partekatu egiten dugu", dio Gotzon Barandiaranek, eta zera gaineratu du: "Kantatzen eta aztertzen ditugunak, idazle eta musikari bati daude beti lotuta. Hori baino gehiago eta zabalagoa da euskal kantagintza, lehenagotik ere badatorrena, eta gaur

egun ere badaude euren kantuak egiten eta kantatzen dituzten taldeak eta musikariak, baina gu hor ez gara sartzen. Guk egiten duguna da, nolabait, Euskal Herriaren historia gainbegiratu kantuetan oinarrituta; hortaz, kantua aurkeztu egiten dugu, idazlearen zertzelada batzuk azalduta eta hitzen esanahiari begiratu, eta, ondoren, Rafak zuzeneko bertsioak egiten ditu. Parte hartzaileei kopiak banatzen dizkiegu eta, normalean, gehienek kantuan egiten dute. Iruzkina eta eztabaidak sortzen dira kanta bakoitzaren bueltan".

Saioetan eskaintzen dituzten kantuek eta idatziek Euskal Herriko historia ulertzeko pista asko ematen dituztela dio Barandiaranek, eta honela azaldu ditu ikastaroko gidoiaren ezaugarriak eta osagaiak: "Benito Lertxundik eta Xabier Iratzederrek konposatu zuten *Orreaga* kantuarekin hasiko gara, eta segidan eskainiko ditugu Oskorriren eta Gabriel Arestiren *Oñaztarra* eta *Ganboatarra*; Lauaxetaren hitzak ere gogora ekarriko ditugu Eñaut Elorrieta eta Antxon Valverderekin; Ken Zazpi eta Joseba Sarrionandia ere lotuko ditugu, baita Bernardo Atxaga eta Ruper Ordozika ere; eta horiez gain, kontakizun zaharragoak ere bai, Iparragirreraren kantu batzuekin edo Joseba Tapiari esker, karlistaldiak eta gerra zibila ere bai. 80ko hamarkadako Itoiz, Errobi eta Hertzainak taldeak ere gurera ekarriko ditugu, eta, gaur egunera etorrita, adibidez, Rafa Rueda, Txuma Murugarren eta Maite Larburu ere bai. Kantu zaharrak eta berriagoak eskainiko ditugu belaunaldi ezberdinetako jendea batzen da-eta publikoan".

Atera dituzten ondorio batzuk
Egiten duten saiotik saiora informazio berria jasotzen dutela dio idazleak, eta, horregatik, etengabe osatzen doazela gidoia.

Asko dira orain arte atera dituzten ondorioak; besteak beste, honako hauek aipatu ditu kulturagilea: "Badago hari komun bat idazleak eta gerora idazle horien testuak erabiltzen dituzten kantariak biltzen dituen, eta galtzaile izatearen kontzientzia kolektiboa da hori. 90eko hamarkada arte derrotatu bezala idazten eta kantatzen zuten, baina ez negarra eragiteko, baizik eta borrokarako aldarri egiteko. Beste hari oso nabarmen bat da euskaldunok gure identitateari kantatu diogula, eta 50eko hamarkada arte, batez ere, identitatea hiru ardatzetan oinarritzen zen: euskara, lurraldetasuna eta fedea. Gerora, fedearena galdu eta klase-kontzientziak hartu zuen lekua. Beste bereizgarri bat da, orokorrean, XX. mendeko kantagintza gizonek idatzi dutela eta gizonek kantatu dutela. Hori eta gehiago, bada, ikastaroan zehar berbagai eta aztergai izango ditugunak".

Izen-ematea zabalik dago
40 laguntzako tokia dago, eta izena eman daiteke Jardun Euskara Elkartearen egoitzan -Errotalde jauregia-, 943 76 36 61 edo 605 71 24 69 zenbakietara deituta edo *Jardunkulturatopagunea.com* helbidera idatzita.

IDAZLEEN ETA MUSIKARIEN ARTEKO ELKARLANA OINARRI, EUSKAL HERRIKO HISTORIA IKASGAI

Garai bateko eta gaur egungo otxoteak elkarrekin kantuan

Baionako, Portugaleteko, Errenteriako eta Arrasateko taldeek parte hartuko dute zapatuko otxoteen topaketan

A. Aranburuzabala ARRASATE
Bihar, 50 urte beteko dira Arrasaten otxote txapelketa egin zutenetik, eta efemeridea gogoratzeke hiru talde gonbidatu ditu herriko Txorbela otxoteak: Baionako Enara, Portugaleteko

Danok Bat eta Errenteriako Karnaba. "Portugaletekoek irabazi zuten, eta bihar, orduan abestu zituzten bi kantu eskainiko dituzte; eta Karnaba taldeko oinordekoak ere etorriko dira. Era berean, nesken otxoteak

ekartzeko ahalegina egin dugu, eta hala gonbidatu ditugu Baionakoak", diote antolatzaileek.

San Frantziskon eta kalean
12:00etatik 13:00etara kontzertua egingo dute San Frantzisko elizan, eta ondoren, kalean jarraituko dute abesten. "Bakoitzak bina kantu abestuko ditu, eta bukatzeko, elkarrekin, *Txanton Piperrri* operako *Euskal Herriko*. Ondoren, 14:30ak arte, Alkartu elkartearen bazkaldu aurretik, kalean abesten ibiliko gara".



Txorbela otxotea, Arantzazun egin zuten kontzertuan. TXORBELA

Antzerkiaz gozatzeko askotariko aukerak

Vaiven Producciones antzerki taldearen 'Argiaren hautsa', Nomofobikak taldearen 'Sarean kateatuak' eta Alanbike Teatro-ren 'Sal marina' antzezlanak, asteburuan Arkupe kultura etxean ikusgai; emanaldi guztietarako sarrerak, lau eurotan salgai

A. Aranburuzabala ARETXABALETA

Antzerki zaletasuna bultzatzeko eta herritarrak kultura kontsumitzera bultzatzeko asmoarekin jarri zuen abian Udaleko Kultura Sailak antzerki hilabetea orain dela hiru urte. Antolatzaileen esanetan, "jendearen erantzuna ona izan da, eta, horri esker, ekimena gorpuzten joan da"; hori horrela, hamabi saio eskainiko dituzte oraingoan.

Urriaren 2an abiatu zuten aurtengo egitaraua, eta, asteburuez gain, astean zehar ere antzerkiaz gozatzeko askotariko aukerak daude Arkupe kultura etxeko Zaria aretoan, generoari zein publikoaren profilarri begiratuta; sarrerak lau eurotan daude salgai.



Miren Gojenola eta Mikel Laskurain, *Argiaren hautsa* lanean. MANIX DIAZ DE RADA

'Argiaren hautsa', gaur

Vaiven Producciones-ek iaz azaroan estreinatu zuen *Argiaren hautsa* lanak zabalduko du eskaintza, gaur, 22:00etan.

Luis Elizetxearen liburua du oinarri Mireia Gabilondo beragararrak zuzendu duen lanak, eta zaharren egoitza baten elkartuko diren 80 urteko Milagros eta Manuel dira protagonista nagusiak. "Bizipoza darion emakumea da Milagros (Miren Gojenola), eta Manuel, zakarra eta heriotzaren zain dagoena naiz

ni, baina zeharo aldatuko nau. Bizitzaren eta azken aukeren aldarrikapena da. Istorio gozoa eta maitagarria da", dio Bergarako Mikel Laskurain aktoreak, eta zera gaineratu du: "Ez da komedia, baina ezta drama ere. Jendea pozik eta baikor ateratzen da, eta aktoreontzako ere polita da pisuzko interpretazioa eskatzen duelako. Ander Iruretagoiena eta Ane Salvador aktore gazteak ditugu taularen gainean lagun. Era berean, atzeko pantailan dauden komikiek istorioa osatzen laguntzen digute".

Asteburuan, beste bi gehiago

Sarean kateatuak antzezlanak hartuko du lekukoa bihar, zapatua, Zaria aretoan, 19:00etan. (ikus 16. orria).

Domekan, osterara, agorafobia gaitza duen Marinaren istorioa kontatuko du Alanbike Teatrotik, 19:00etan.

Eguenean, pailazoak

Ikastetxeekin elkarlanean hainbat saio lotu dituzte aurten; horren erakusle da hilaren 17an Tomaxen Abenturak pailazoek eskainiko duten *Azken balea*.

Gaztelekuko 'matinee' saioak hasteko, etzi, Gari&Maldanbera

Aurten ere hilean behin antolatuko dituzte, domeketan, 12:30ean, musika emanaldiak; sarrerak, bost eurotan

A. A. OÑATI

Iaz abiatutako bidetik, eta "izan zuten harrera ona" ikusita, domeka eguerdietan askotariko musika estiloetako doinuekin gozatzeko aukera eskainiko du Udalak gaztelekuan.

Lazarragatik gaztelekura

Hertzainak taldearen kontzertu berezia eskaini ostean, Maldanbera taldearekin duen proiektuari gogotsu heldu dio berriz ere Gari musikariak. Asteburuan, Iparraldean eta Oñatin eskaini-

ko dute kontzertu bana. 2018ko uztailean izan zen musikari legazpiarra azkeneko aldiz Oñatin, Lazarraga lorategian aurkeztu zuen *Beste denbora batean* bigarren diskoa. Lan bera oinarri hartuta abestuko du etzi.

Azaroan, Sarah Vista

Hilean behin izango dira domeka eguerdietako kontzertuak eta diote lotuta dutela azaroko emanaldia: "Londresko Sarah Vista musikariak country eta western doinuak eskainiko ditu".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko urriko sariak!

Telebista LG 32"
Parte hartzeko sariaren izena: Telebista



Sarrerak
Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GASTROLOGIA



Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.barronadonda.org
Bidezko Merkataritza produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOTI 15/16 legearen arabera, jainkatasun dagoa zuek eta gurekin Goiena Komunitateko jainkatasun berragaitza automatikoki hartu dezake. Gure biletak honen helburua izan da indarrean dagoen sustapena gogoratzea. Eskubide izango duzu datuak ezarri, berri edo ezarri, edo ezarri, berri edo ezarri. kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

LASA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkideku zaitetz 2019ko urritik aurrera: 31€

Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazite, denok irabazite!

ESKER ONA

Luis Oruna Elexpuru

2019ko urriaren 6an hil zen, 84 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Haren arimaren aldeko meza domekan izango da, urriaren 13an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2019ko urriaren 11n.




ESKER ONA

Andoni Antxia Azkarretazabal

2019ko urriaren 3an hil zen, 83 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2019ko urriaren 11n.



ESKER ONA



Gregori Larrañaga Elorza

Juan Garitano Askasibarren alarguna
2019ko urriaren 9an hil zen, 92 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran (Angiozar), 2019ko urriaren 11n.



HILDAKOAK

- Maria Pilar Perez Aguado.**
Bergaran, urriaren 3an. 61 urte.
- Andoni Antxia Azkarretazabal.**
Aretxabaletan, urriaren 3an. 83 urte.
- Pedro Ezpeleta Urkia.**
Arrasaten, urriaren 5ean. 90 urte.
- Sebastian Ostogain Gisasola.**
Bergaran, urriaren 5ean. 85 urte.
- Luis Oruna Elexpuru.**
Arrasaten, urriaren 6an. 84 urte.
- Benita Garitano Makazaga.**
Bergaran, urriaren 6an. 96 urte.
- Benita Cruz Sanchez.**
Arrasaten, urriaren 7an. 85 urte.
- Eugenio Apaolaza Velez de Mendizabal.**
Arrasaten, urriaren 8an. 99 urte.
- Begoña Otxoa de Angiozar Atxotegi.**
Arrasaten, urriaren 8an. 76 urte.
- Gregori Larrañaga Elorza.**
Bergaran, urriaren 9an. 92 urte.
- Justa Txintxurreta Elorza.**
Oñatin, urriaren 9an. 99 urte.
- Maria Vigo Fernandez.**
Eskoriatzan, urriaren 9an. 76 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 11	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Zapatua, 12	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Domeka, 13	ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Astelehena, 14	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Martitzena, 15	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Eguaztena, 16	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15
Eguena, 17	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99

BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 11	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Zapatua, 12	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Domeka, 13	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Astelehena, 14	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Martitzena, 15	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguaztena, 16	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguena, 17	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63

ORATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 11	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 12	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 13	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 14	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Martitzena, 15	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguaztena, 16	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 17	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2019ko abenduaren 31ra arte:
RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09	

BERGARA GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2019 osoan:
OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 19 63	

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.


OROIGARRIA

Luis Oruna Elexpuru


2019ko urriaren 6an hil zen, 84 urte zituela.

Bat egiten dugu familiaren saminarekin.


Zure hutsunea asko sentituko dugu.



EPA Arrasate.
Arrasaten, 2019ko urriaren 11n.



OROIGARRIA



Jon Sarasketa Aranzeta

2018ko urriaren 12an hil zen.

Benedicta Aranzeta Askasibar

2018ko urriaren 29an hil zen.

Beti gogoan

Zuen familia eta lagunak.
Elgetan, 2019ko urriaren 11n.



URTEURRENA



Mari Tere Basabe Gorrotxategi

2018ko urriaren 10ean hil zen, 75 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 13an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Erakutsi zenigun ausardia eta kemena, motz gelditu zaigu zure ondoan behar genuena, zure maitasuna, gure orotzapen hoberena, bizirik iraungo duzu, gure bihotzean barrena.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2019ko urriaren 11n.



URTEURRENA



Ignacio Inza Duñabeitia

2018ko urriaren 12an hil zen, 79 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 13an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2019ko urriaren 11n.



ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

Goiena: irakurriena Debagoiengan.

OROILORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguru izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3



4



5




6



7



8

**1. Koreara, ikastera**

Oñatiko eta Bidasoako campusetako 23 ikasle joan dira haraino. Bi hilabetez egongo dira han MUKo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza graduako ikasleak.

3. Barañainen txapelkun

Eskoriatzako Oihana Arana bertsolariak Barañaingo bertsolari gazteen txapelketa irabazi zuen aurrekoan. Gonbidatu egin zuten, eta baita irabazi ere.

5. 1969ko promozioakoak

Eskola Politeknikoan ikasi zutenak urtero elkartzen dira, urriko lehen zapatuan, bazkaria egiteko. Oraingo honetan, promozioaren 50. urteurrena ospatu zuten.

7. Erretiroa hartu du

Bergarako Jose Luis Beitiari erretiroa hartzeko ueña heldu zaio. 44 urte lanean pasa ostean, deskantsatzeko ueña heldu zaio. "Disfrutau! Zure lankideak".

2. 'El caserío' zarzuela ikusten

Argazkiko bergararrak Madrileraino joan ziren, eta aukera izan zuten bertan parte hartzen duten Edu Muruamendiarrak eta Aukeran taldeko kideak zoriontzeko.

4. Txistulariak, Herri Egunean

Kalerik kale ibili ziren hainbat txistulari Oñatiko Herri Egunean. Etxeko bandako kideekin batera, kanpotik joandakoak ere egon ziren herriko txokoak girotzen.

6. Bihar ezkonduko dira

Ander Garro eta Gema Ruiz arrasatearrak bihar ezkonduko dira udaletxean. "Familiaren partetik, zoriontsu izan eta izugarri disfrutatut bidaian. Zorionak, bikote!".


8. Urrezko ezteiak

Juantxo Axpe eta Petra Mari Inda arrasatearrek gaur, urriak 11, betetzen dituzte ezkondu zireneko 50 urteak. "Zorionak, etxekoen partetik".

ZORION AGURRAK



BERGARA
Enara Brunet Moreno
Urriaren 14an, 5 urte.
Zorionak, Enara! Ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat, etxeko partetik.



ESKORIATZA
Intza Kortazar Errasti
Urriaren 13an, 6 urte.
Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu pila bat, etxeko denon partetik.




ANTZUOLA
Alazne Ezkurra Alonso
Urriaren 12an, 10 urte.
Zorionak, maixia! Segi orain arte bezelako alai izaten. Muxu handi bat etxeko danon, eta bereziki, Noraren eta Ekaitzen partetik.



OÑATI
Urko Urtaza
Urriaren 12an, 3 urte. Zorionak, Urko! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu potolo bat, etxeko danan partetik!



OÑATI
Beñat Arregui Unamuno
Urriaren 11n, 8 urte.
Zorionak, txapeldun! Etxeko guztien partetik, ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu handi bat!



ARRASATE
Aratz Garcia del Fresno
Urriaren 11n, 9 urte.
Zorionak, Aratz! Ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxuak Izaroren, Maddiren eta Anderren partetik.



BERGARA
Haizea Ayastuy Markina
Urriaren 9an, 10 urte.
Zorionak, politt hori! Topera disfrutatu zure eguna! Patxo handi-handixa Naroaren, Ekiren eta etxeko guztien partetik.




BERGARA
Hodei Maiztegi Urbesalgo
Urriaren 10ean, 7 urte.
Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat, etxeko danon partetik. Muak!.



BERGARA
Irati Davila Iza
Urriaren 9an, urtebete.
Zorionak, txikitxo. Hemen da honezkero lehen urtebetetzia! Muxu pila bat, familiako guztien partetik!



ARRASATE
Anje Blazquez del Pozo
Urriaren 9an, 7 urte.
Zorionak, txapeldun! Primeran pasatu zure eguna. Besarkada handi bat, familia osoaren partetik. Asko maite zaitugu!




BERGARA
Martina Azkarate Lopez de Lacalle
Urriaren 8an, 2 urte.
Zorionak, Martina, zure anaia Martxelen eta familia osoaren partetik.



OÑATI
Iraide Zumalde Irazabal
Urriaren 8an, 5 urte.
Zorionak eta urte askotako, etxeko danon partetik! Ondo ospatu zure urtebetetzea! Muxu handi bat!



ESKORIATZA
Ander Beitia Oyaguren
Urriaren 8an, 2 urte.
Zorionak, Ander! Ederto ospatu zure eguna eta segi oin arte moduko alai eta jator! Patxo asko, familia osoaren partetik!



ARRASATE
Rafa Maria Martin
Urriaren 8an, 53 urte.
Zorionak, aitia Rafa! Muxu potolo-potolo bat familia danaren, eta bereziki, hainbeste maite ditudun Alaiaren eta Juleren partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



ARRASATE
Araitz Guirado Rodriguez
Urriaren 7an, 15 urte. Zorionak, *poix!* Ondo pasatu zure egunian eta disfrutatu!



ARRASATE
Julen del Palacio Orellana
Urriak 7an, 4 urte.
Zorionak, Julen! Primeran pasa dezazula zure urtebetetze egunean! Muxu handi bat, etxeko partetik!



ARRASATE
Jon Rodriguez Baena
Urriaren 6an, 8 urte.
Zorionak, *kra!* Zortzi urteko betetzen ditu etxeko alaitxuenak. Patxo bat Ibairen, Nahiaren eta familia osoaren partetik.



OÑATI
Libe Idigoras Garcia
Urriaren 3an, 7 urte.
Zorionak, polit hori! Primeran pasatu zure merendolan! Mila muxu, aitatxoren, amatxoren eta Aniren partetik!



OÑATI
Sara Arenaza
Urriaren 3an, 7 urte.
Zorionak, Sara! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna. Jarraitu gure bizitzak alaitzen.



ARETXABALETA
Laia Gorrotxategi Urrutia
Urriaren 3an, urtebete.
Zorionak, printzesa! Segi holaxe, poz-pozik gure bizitzak alaitzen! Zorionak eta muxu potolo bat, etxeko partetik!

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 11

ESKORIATZA Sukaldaritza saioa
Osagaiak gaztelekuak ipiniko ditu, eta sukaldariak gaztetxoak izango dira.
Gaztelekuan, 17:00etan.

ARAMAIO San Martin pilota txapelketa
Partiduak jokatuko dituzte.
Pilotalekuan, 18:00etan.

ARRASATE 'Alakazum' mahai jolasa
Aurkezpena egingo dute.
Erdiguneko gaztegunean, 18:30ean.

ESKORIATZA 'Ez da kasualitatea'
Malen Amenabar, Miren Amuriza eta Nerea Ibarzabal bertsolariak eta Gari Otamendi eta Araitz Bizkai musikariak.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ARAMAIO Alex Mendikuteran argazki emanaldia
San Martin jaietan eta Sagardo Egunean egindako argazkiak erakutsiko ditu argazkilari aramaioarrak.
Udaletxean, 19:30ean.

ARETXABALETA 'Argiaren hautsa' antzezlan
Bizitzaren eta azken aukeren aldarrikapena egiten du Vaiven konpainiak. Sarrerak, lau euro.
Arkupen, 22:00etan.

ESKORIATZA Azken Sustraiak eta Criminal Remains taldeak
Debalde.
Inkernu tabernan, 22:00etan.

ARRASATE Discipulos De Dionisos, Los Clayton eta Ikimuri DJa
Musikari donostiarren eta arrasatearren emanaldia. Sarrerak, bost euro.
Gaztelekuan, 22:30ean.

BERGARA Serge bakarlarria
Bakarlarri zarauztarrak *Enarak itzuli dira* diskoa aurkeztuko du. Sarrera, debalde.
Bule tabernan, 23:00etan.

ZAPATUA 12

ELGETA Auzolana Egoarbitzan
Hango herri basoa garbituko dute. Erremintak eramatea eskatu dute. Hamarretakoa Udalak ipiniko du.
Mendizaleen plazan, 08:30ean

BERGARA Elosuko ganadu feria
09:00etan, azoka; 11:00etan, haurrendako jolasak; 12:30ean, bertsolariak, eta ostean, trikitilariak; eta, 17:30ean, herri kirolak, eta ostean, erromeria, Laja II.a eta Lutxurdio trikitilariarik.
Elosu auzoan.

ARAMAIO Kaleko margo lehiaketa
Edozein teknikarekin eta materialekin egin ahal izango dira margolanak. 18:30ean egingo dute sari banaketa.
Sastiñan, 09:00etan.

ARETXABALETA Sendabelar ikastaroa
Ekoudalatxekoek gidatuta, sendabelarrak ezagutzeko mendi buelta egingo dute, lehenik, eta ostean, ikastaroa.
Arkupen, 09:00etan.

OÑATI Hotz Oñati
Informazio eta salmenta mahaia ipiniko dute.
Foruen plazan, 11:00etan.

ARETXABALETA 'Kuartel zaharra sekula baino gazteago!' jaialdia
12:00etan, irekiera ekitaldia; 13:00etan, Jam eta Jan, Jaiki elkarte eta BRGS DJa; 14:30ean, bazkaria; eta 17:00etan, kontzertua. Besteak beste, Txerrikumeak, Screammers And Sinners eta Criminal Remains taldeak.
Kuartel zaharrean.

ARRASATE Bedoñako Santa Eulalia parrokia
Mendebaldeko leihoan dituen elementu erromantikoak ezagutzeko aukera, besteak beste.
Bedoña auzoan, 12:00etan.

ARRASATE II. otxote topaketa
Baionako Enarak, Portugaleteko Danok Bat, Errenteriako Karnaba eta Arrasateko Txorbela. 12:00etan,

emanaldia San Frantziskon eta 13:00etan kalejira.
San Frantzisko elizan.

OÑATI 'Giltzapeko altzorrak'
Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera. Izena, aurrez: 943-78 34 53.
Turismo Bulegoan, 13:00etan.

ARAMAIO Bertso bazkaria
Sebastian Lizasorekin eta Angel Mari Peñagarikanorekin.
Kasatxon, 14:00etan.

OÑATI 'Giltzapeko altzorrak'
Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera. Izena, aurrez: 943-78 34 53.
Turismo Bulegoan, 17:00etan.

OÑATI Oskarbi taldea
Jorge Oteizaren eta Bitoriano Gandiagaren omenezko emanaldia. Debalde.
Gandiaga Topagunean, 18:00etan.

ARRASATE Gaba Baltza: prestaketa lanen hasiera
Gaztetzkoendako.
Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Sarean kateaturik' antzezlan
Amaia Lizarralde eta Olatz Beobidek sortutako websaileko pertsonaiek bizia hartuko dute oholtzan. Sarrerak, lau euro.
Arkupen, 19:00etan.

DOMEKA 13

ARRASATE Etxezarreta Eguna
08:00etan, menditik Etxezarretara; 10:30ean, kalejiran Etxezarretara; 11:30ean, bertsolariak, umeendako jolasak, eta tailerrak; 12:00etan, bisita gidatua; eta 13:00etan, musika emanaldia.
Etxezarretan.

BERGARA Pirinioetan asteburua
Panticosa eta Astun inguruetan.
Autobus geltokian, 08:00etan.

BERGARA Domeka azoka
Elkartrukea, berrerabilera eta artisautza sustatzeko azoka.
San Martin plazan, 10:00etan.



XAKE

BERGARA 'Lur' antzezlan
Xake antzerki taldearen ikuskizuna da. Julianek jostailu denda zahar bat dauka. 6 urte beteko dituen Ane bilobarendako berak propio egindako panpina egiten ari zaio. Familia guztiari zuzendua. Sarrerak, la euro.
Etzi, zapatua, Seminarixoan, 19:00etan.

LEINTZ GATZAGA Gatzaren Eguna
10:00etan, mendi ibilaldia; 11:00etan, produktu ekologikoen eta artisau azokak, sagar jotzea, bisita gidatuak eta barazki hartzigarrien tailerra; eta 17:00etan, Kilimak taldea.
Frontoian, 11:00etan.

BERGARA 'Bergara monumental' bisita
Bergarako erdigunea, XVI. eta XVII. mendeetako etxe bikainak eta jauregiak ezagutzeko aukera.
Turismo Bulegoan, 12:00etan.

OÑATI Gari & Mandalbera
Beste denbora batean diskoa aurkeztuko du. Sarrerak, bost euro.
Gaztelekuan, 12:30etan.

OÑATI 'Giltzapeko altzorrak'
Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera. Izena, aurrez: 943-78 34 53.
Turismo Bulegoan, 13:00etan.

ESKORIATZA 'Jon Beldurgabea' antzezlan
Jon gazteak ez daki beldurra zer den. Aitaren etxea utzi eta beldurraren bila joango da. Alfonso Diaz eta Aitor Ferdinando dira aktoreak. Sarrerak, hiru euro.
Zaldibar antzokian, 17:00etan.

OÑATI 'Giltzapeko altzorrak'
Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera. Izena, aurrez: 943-78 34 53.
Turismo Bulegoan, 17:00etan.

ARAMAIO 'Maria Callas' pelikula
Musika eta zinema zikloaren baitako emanaldia.
Kultura etxean, 18:30ean.

ARETXABALETA 'Sal Marina' antzezlan
Alanbike teatro taldeak beldurren eta heriotzaren gaineko hausnarketa egingo du. Berezi, agorafobia landuko dute. Sarrerak, lau euro.
Arkupen, 19:00etan.

ASTELEHENA 14

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratze
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ARAMAIO Irakurle klub feminista: izen-ematea
Ibiltaria izan arren, euskarazko taldea Aramaion batu zen aurreko ikasturtean.
Kultura etxean, 18:00etan.

OÑATI 'A por todas, con herramientas' tailerra
Brikolaje ikastaroa hasiko dute gaur, Emakumeendako Jabetze Eskolaren baitan, abenduaren 16ra arte.
Euskaldun berria gelan, 19:00etan.

OÑATI Auzoko: aurkezpena
Aurtengorako egitasmoak aurkeztuko dituzte.
Euskaldun berria gelan, 19:00etan.

MARTITZENA 15

OÑATI Bingo jokoa

Erretiratuendako.
Lagun Lekun, 17:00etan.

ESKORIATZA Kaleko jolasak

Santa Marina plazan egingo dituzte, bi txandatan: 17:00etan eta 18:15ean.
Ludotekan.

OÑATI Idazketa lantegia

Saioa egingo dute Joxe Mari Iturralderekin.
Liburutegian, 18:00etan.

BERGARA Moises Egurenen margolanak

Bearteko kide Xabier Agirrek, Antton Arrillagak eta Jose Luis Azkaratek prestatu dute bilduma. Hilaren 27ra arte ikusgai.
Aroztegin, 18:00etan.

ARRASATE 'Los días que vendrán' filma

Martitzenetako emanaldia.
Amaitzokian, 20:30ean.

EGUAZTENA 16

BERGARA Goi mailako hezkuntzari buruzko hitzaldia

¿Cómo debe plantearse la educación en una sociedad como la actual? Retos y valores delako hitzaldia egingo du Juanjo Alvarezek.
Seminarixoan, 10:00etan.

BERGARA Itsuen antzerki emanaldia

ONCEko Oroimenak taldeak *Algo habrán hecho* antzezlana eskainiko du, San Joxeperen kultura astearen baitan.
Seminarixoan, 17:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baseritarrek garaiak produktuak salduko dituzte.
Oxirondon, 18:00etan.

BERGARA 'Askapen borroka Bergaran' hitzaldia

Bergarako militante erreferentzialak izango dira hizlariak.
Irizar jauregian, 19:00etan.

OÑATI Espetxe eskumenari buruzko hitzaldia

Julen Arzuagak eta Larraitz Ugartek egingo dute berba, Oñatiko EH Bilduk gonbidatuta.
Kultura etxean, 19:00etan.

BERGARA 'Capricornio uno' filma, Dynamo zineklubean

Dynamo zineklubak *Capricornio uno* filma eskainiko du eguaztanean, 21:00etan.
Kartzela zaharrean, Bergaran, 21:00etan

EGUENA 17

ARETXABALETA Tomaxen abenturak: 'Azken balea'

Tomax eta Muxi bikotea balea bati laguntzera joango da. Umoreak, magiak, kanteak eta jolasek bat egingo dute, beste behin, 5 urtetik gorakoendako ikuskizunean.
Arkupen, 09:00etan.

ARRASATE 'Itzuli barik' erakusketa

Alazne Zubizarretaren, Daniel Llariaren eta Natalia Suarezzen lanak ikusgai. Zapatua da azken eguna.
Kulturaten, 17:30ean.

BERGARA San Joxepe eta Oñati abesbatzak

San Joxepe kultura astearen baitan egingo dute kontzertua.
Seminarixoan, 19:30ean.

OÑATI Zinekluba: 'Un hombre fiel' filma

Louis Garrel zuzendariaren lana. Sarrerak, bost euro.
Kultura etxean, 20:00etan.

BERGARA Zinekluba: 'Rojo' filma

Benjamin Naishtat zuzendari argentinarren lana. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

ARRASATE Motosierra taldea

Uruguaiako taldeak egingo du Kooltur Ostegunetako kontzertua. Punk, rock, hardcore eta heavy metal doinuak lantzen dituen taldea, 1999an sortu zuten lau lagunek. Sarrerak, bost euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Downton Abbey
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.
Dora y la ciudad perdida
Zapatua eta domeka: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

Ad astra
Egubakoitza: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.
Playmobil (euskaraz)
Domeka: 17:30.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Agur, Etxebeste!
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
El rey leon
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO

Joker
Zapatua eta domeka: 17:00.
@buelos
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.
Bienvenido al barrio
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Joker
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

GORBEIA

Abominable
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 19:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.
Domeka: 12:00, 17:30.

@buelos

Egubakoitza eta zapatua: 18:35, 20:35, 22:30.
Domeka: 18:35, 20:35.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Ad astra
Egubakoitza eta zapatua: 16:50, 22:30.
Domeka: 16:50.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Agur, Etxebeste!
Egubakoitza eta zapatua: 19:10.
Domeka: 12:15, 19:10.

Angry birds 2
Egubakoitza eta zapatua: 16:35, 18:30.
Domeka: 12:00, 16:35, 18:30.

Dora y la ciudad perdida
Egubakoitza eta zapatua: 16:30.
Domeka: 12:00, 16:30.

El rey burro
Domeka: 12:15.

Geminis
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 18:10, 22:30.

Domeka: 12:15, 17:00, 18:10.
Astelehenetik eguenera: 17:30.
Egunero: 20:00.

Joker
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 21:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Mascotas 2
Egubakoitza eta zapatua: 16:25.
Domeka: 12:00, 16:25.

Noche de bodas
Egubakoitza eta zapatua: 18:40, 20:35, 22:30.
Domeka: 18:40, 20:35.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Padre no hay mas que uno
Egubakoitza eta zapatua: 20:25, 22:20.
Domeka: 20:25.

Paradise Hill
Egubakoitza eta zapatua: 18:20, 20:15, 22:10.
Domeka: 18:20, 20:15.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Quien a hierro mata...

Egubakoitza eta zapatua: 20:25, 22:30.
Domeka: 20:25.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Rambo
Egubakoitza eta zapatua: 16:40.
Domeka: 12:00, 16:40.

Tabaluga y la princesa de hielo
Egubakoitza eta zapatua: 16:30.
Domeka: 12:00, 16:30..

FLORIDA

Mascotas 2
Zapatua eta domeka: 12:00.

Andry birds 2
Zapatua eta domeka: 12:00.

Playmobil
Zapatua eta domeka: 12:00.

Dora y la ciudad perdida
Zapatua eta domeka: 12:00.

Mientras dure la guerra
Egunero, martitzena izan ezik: 17:45, 20:00,

22:30.
Martitzena: 17:45, 20:00.

Agur, Etxebeste!
Egubakoitza: 18:35.
Zapatua eta domeka: 12:00, 18:35.
Astelehenetik eguaztenera: 20:00.

Hasta siempre, hijo mio
Egubakoitzetik domekara: 19:05.
Astelehenetik eguenera: 21:10.

Joker
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 20:00, 22:30.

Abominable
Egubakoitza: 16:20, 18:10, 20:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 18:10, 20:30, 22:30.

KRITIKA

Amazing Grace ★★★★★

Zuz.: Alan Elliot eta Sidney Pollack. **Herr.:** AEB (2018). **Iraupena:** 87 minutu. **Dokumentala.**

Zirriborro baliotsua

ANTONIO ZABALA

Duela egun gutxi estreinatu da *Amazing Grace*. 1972. urtean Aretha Franklinek, soul eta gospel abeslari zoragarriak, Los Angelesko baptista eliza batean, *Amazing Grace* diskoa grabatu zuen, bi egunetan. Franklinekin batera musikari talde bat zegoen, eta piano joleak ikuskizunaren aurkezle eta animatzaile lanak egin zituen. Horiez gain, abeslaria koru batez inguratua zegoen, eta ikusleek euren sentimenduak eta zirrarak beldur barik kaleratzen zituzten. Eta giro horren barruan, Aretha Franklinden aitak parte hartu zuen. Apaiza zen eta bere alabari buruzko sermoi antzeko bat eman zuen.

Sidney Pollack zuzendariak hartu zuen ardura bi egun horietan gertatutakoa filmatzeko. Grabatutakoarekin bat baino gehiago pozik geratu ezenez,



ARGAZKILARIA/XXXX

irudiak urte askotan gordeta egon dira.

Aretharen heriotzaren ondoren, Alan Elliotek lortu du Pollacken irudiekin egindako muntaia estreinatzea.

Amazing Grace bukatu gabeko dokumental bati buruzko zirriborro baliotsua da. Pelikulan kamera mugimendu zakarrak

daude, enkoadraketa bitxiko planoak... Pollack bera ere irudien artean agertzen da une askotan.

Hau dela eta, *Amazing Grace*-ren akabera eta itxura estetikoki hobea izan zitekeela esan daiteke. Baina ezin da ukatu musika istorioan geratuko den disko baten grabazioari buruzko dokumentu interesgarria dela.



AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA

Hilerokoa tabu

Irratian ari ziren komentatzen. Zambiano albiste bat. Gobernuak eskoletan konpresak banatzeko asmoa duela. Neskak, hilerokoa dutenean, ez direlako eskolara joaten. Zona pobreenetan. "Konpresak garestiak dira, kanpotik ekarri behar dituztelako", esan du tertulialakide batek. Eta pentsatu dut: horixe bakarrik falta zaigu, Afrika birziklatu ezin diren konpresaz betetzea. Zaborrez eta ordenagailu zaharrez betetzen ari garen bezala.

Duela 50-60 urte, ez zegoen oraingo konpresarik. Telazko *pañuak* erabiltzen zituzten. Garbitu eta berrerabili. Ezkutuan, etxe askotan. Bada *pañuak* artasoroan zintzilikatzen zituenik ere, inork ez ikusteko. Hilerokoa tabua baitzen. Eta hilerokoa edukitzea, ia-ia kutsakorra: ezin zuten txorizorik eta odolosterik egin, txarrak ateratzen omen zirelako.

Mundu osoan daude hilerokoarekin lotutako sinesmen faltsuak. Toki batzuetan, neska isolatu egiten dituzte, gela ilunetan sartu. Izpirtu txarrak erakartzen dituztela diote. Loreak zimeldu egiten direla, janaria usteldu. Zambian auskalo zer pentsatuko duten.

Albistea hobeto irakurri dut. Badirudi telazko konpresa berrerabilgarriak dituztela buruan. Eta bertan ekoiztea. Primeran! Ea konpresak banatzeaz gainera, heziketa ere egiten duten.

BUKATZEKO



Amaia Txintxurreta, Humberto Esnaola eta Asier Castro. XABIER URTZELAI

Abesti berria izango du Kantarik aurrerantzean

Hamahiru urte dira Goiena karaoke saioarekin hasi zela, eta ordukoa zen emanaldi amaierako abestia, hainbeste eta hainbeste neska-mutikok ahotan ibili dutena. Dance estiloko kantua egin dute orain, itsaskor izateko esperantzan, berriz ere

Julen Iriondo ARRASATE

"Dantzagarrria izatea, itsaskorra; Kantari bukatzen denean denok dugu hortxe buruan amaierako kantua hori, eta era horretako abestia egin nahi izan dugu, gaztetxoei zuzendutakoa"; saio-ko gidari Amaia Txintxurretak dioen hori zuten buruan abesti berria lantzerakoan, eta emaitza prest dago dagoeneko.

Kantu berriarekin lehengoaren arrakasta errepikatzea da asmoa: "Oso harrera ona izan duen kantua izan da orain arte eduki dugun hori. Ume, gazte, nagusi... Debagoienean, esango nuke, denok dakigula kantua hori. Baina ikusten genuen zaharkituta geratu direla kantuaren doinuak. Kantu berrirako hiru proposamen egin zituen Asierrek: bat ska



Kantariren logoa. GOIENA

erakoa, beste bat poperoagoa eta hirugarrena dance erakoa edo modernoagoa. Azkeneko horren aldeko apustua egin dugu, azkenean, ikusita, adibidez, ska doinuak baditugula bestela ere; En Tol Sarmiento, Betagarri... talde horien kantuak baditugu karaokean, eta desberdinago izan nahian edo, ba, hortik joango da kantu berria".

Letra Amaia Txintxurretak berak egin du, eta Gauargi taldean harekin jarduten duen Asier Castro ermuarrak egin du musika. Hain justu, hango, Ermuko, Musical Arabako estudioan grabatu eta prestatu dute abestia, Humberto Esnaolarekin batera. Castro ohituta dago abestiak moldatzen, baina hutsetik sortzen ez hainbeste: "Niretzako, erronka izan da, moldaketak egitea askoz errazagoa izaten da. Kantua hutsetik sortu behar zenez, apur bat gehiago kostatu zaigu. Harmoniarekin hasi ginen aurrena; gero, melodia; gero, letra... eta gustura geratu gara, ea ze erantzun ematen dion orain jendeak".

Denboraldi berria

Urriaren Donostian egingo dituzte Kantari saioaren grabaketak –aurten bigarren aldiz, iazkoen ostean–, eta bertan estreinatuko dute kantu berria. Azken urteetan bezala, Euskararen Eguna-ren bueltan Gasteiza ere badoa saioa, eta Debagoieneko aretoetara urtarrilean iritsiko dira, saioa eta abesti berria: "Grabatu dugu bideo bat, kantuarekin, jendeak kantua ikasteko, koreografiarekin; denontzako izango da kantu berria, eta ea gustuko gertatzen den", dio Amaia Txintxurretak.

GOIENA TELEBISTA

UDAZKENEKO PROGRAMAZIO BERRIA

HARIRA

GOIENA TELEBISTA, ELKARRIZKETA

URRIAREN 15EAN, MARTITZENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
GONBIDATUA: IRATXE ESNAOLA,
MONZON LABORATEGIKO PRESIDENTEA
ENEKO AZKARATEK ZUZENDUTAKO SAIOA



goiena
Zu hemen zaude.